SAGASTIBERRI

# Urruzunotarrak gehituz

2012

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNOtarrak gehituz

# ekimeneko lanen bilduma 2012

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>.


| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2012ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 1.700 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Maite Artabe, Iñaki Artola, Miren Jule Azurza,<br>Iñaki Iturain eta Santos Izagirre |
| Azala: | txapo creativos S.L. |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposaketa: | Gráficas Irudi<br>Uzbina 25 - 01015 GASTEIZ |
| Inprimaketa: | Gráficas Irudi<br>Uzbina 25 - 01015 GASTEIZ |
| ISBN: | 978-84-457-3254-0 |
| Lege-gordailua: | VI 463-2012 |

# AURKIBIDEA

**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Ispilua eta baratzea** . . . . . . . . . . . *Miren Agur Meabe Plaza* . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

Negar artean baina bai . . . . . . . . . *Maialen Madariaga Intxaurraga* 19
Alzheimerraren doinua . . . . . . . . *Leire Alonso Allue* . . . . . . . . . . 29
Izenburu bat zapi bateko bizimodu klasikoen nahaste batentzat . . . . . *Garazi Mugarza Markina* . . . . 37
Patuaren zoria . . . . . . . . . . . . . . . . *Garazi Leanizbarrutia Alonso* . 53
Alemaniarrak gurera etorri zirenekoak *Itziar Zabalegi Arrizubieta* . . . 67
Ilunabarreko hitzak . . . . . . . . . . . . *Nerea Gil Kortabarria* . . . . . . 83
Ametsen erretratuak . . . . . . . . . . . *Ainhoa Urkiola Iriondo* . . . . . . 101

**Prosa: B maila**

Azken itxaropena . . . . . . . . . . . . . *Pablo Calleja Felipe* . . . . . . . . 113
Heriotza tunelaren amaieran . . . . *Jasone Herran Molinera* . . . . . 123
Askatasun egarriz . . . . . . . . . . . . *June Ugalde Pikabea* . . . . . . . . 131
Ahantzi . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Iñigo Perez Mujika* . . . . . . . . . . 141
Bi mundu bakarrean . . . . . . . . . . . *Olaia Irigoyen Iriondo* . . . . . . . 151

Zergatik? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Mireia Yurrita Senperena* . . . . . 163
Gau luzea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Mattin Aranburu Guridi* . . . . . . 173

**Poesia: A maila**

Autopsia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Leire Alonso Allue* . . . . . . . . . 181
Errutina zara . . . . . . . . . . . . . . . . *Txaber Ormazabal Villanueva* . 191
Gorritik morera . . . . . . . . . . . . . . *Mikel Arruabarrena Larrarte* . 197
Gogoeten susmoak, taupadak . . . *Itziar Ugarte Irizar* . . . . . . . . . 209
Zoramena ez bada . . . . . . . . . . . . *Eider Perez Martinez* . . . . . . . . 217
Harriko Harritxu . . . . . . . . . . . . . *Maite Santiago Garabieta* . . . . 223

**Poesia: B maila**

Hozkada . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Maialen Akizu Bidegain* . . . . . . 231
Espaloian noraezean . . . . . . . . . . *Maialen Akizu Bidegain* . . . . . . 241

**Urruzunotarrak 1986-2012** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 251

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketa indarrean izan da hogeita sei urtez. Aurten, diru-egoerak hartaraturik antza, lehiaketa-bidea (berekin zuen sari multzo nagusiaz) ezabatu egin da. “Urruzunotarrak gehituz” izeneko ekimenak hartu du bere oinordekotza.

Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan

nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai, esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea "saiatu berriro", eta topiko erdiarekin nahikoa da: "saiatu" besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu aurtengo epaimahaian:

Castillo Suarez
Urtzi Urrutikoetxea
Leire Bilbao
Miren Agur Meabe
Katixa Agirre

Parte-hartzeari dagokionez, 2012. urte honetan 144 lan jaso dira: A mailan 48 prosan eta 31 poesian; B mailan, berriz, 58 hitz lauz eta 7 olerkian; bestalde, parte-hartzaileetako 106 neskak dira eta 38 mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aipamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna atal bakoitzean.

Aipamendunek irailean egingo den lau eguneko literatura-egonaldian hartuko dute parte.

Sagastiberri sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean Urruzunotarren zerrenda jarri dugu. 1986tik 2012a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Miren Agur Meaberi.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur- eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# ISPILUA ETA BARATZEA

Miren Agur Meabe

Liburu baten azalari begira nago, Damen hiria, 1405ean Christine Pizan-ekoak idatzia. Liburu bakana da. Egileak hiri menderaezin bat deskribatzen du, haren harriak iraganeko emakumeak direlako eta hiriaren eraikuntzari amaiera emateko erabilitako materialak, mortairua eta tinta. Liburuaren mamia alde batera utzita, Anastasiak (Frantziako gorteak Chistineri esanetara jarritako marrazkilariak) eginiko irudiak piztu dit arreta.

Errenazimentuko dama bat ageri da kaballete mardul baten aurrean jarrita. Lehoi-hankak ditu jarlekuak, tronu antza: andrea gune horren jabea da. Ezker eskuan ispilu txiki bat dauka, non aurpegia islatzen zaion; eta eskuin eskuarekin pintzel bati eusten dio. Andreak bere erretratua pintatzen dihardu mihise gainean.

Subjektu beraren isla-joko hirukoitz horretan, ideia hau hauteman dut: autobehaketa dela sorkuntzaren abiapuntua. Halaber, artearen izaera ispilatzaileaz ere ohartu naiz: behatzaileak eta behatutakoak batak bestea ezagutzen dute, ezagun dira bata bestearengan.

Badira pintorearen eskura ontzitxo batzuk pigmentuz beteak, zurezko kutxatila bat, estiletea, eta tresna bat, ha-

sieran bereizi ez baina orain garbi ikusten dudana: beste ispilu bat, eskukoa bigarren hau, kirtenduna, mahaian pausatua azpikoz gainera. Bigarren ispilu horretan distira zehazgabe bat ageri da, urdin, zuri eta gorrixka, hala baitagokie koadroaren atzealdeari, emakumearen azalari eta tunikaren koloreari. Mahaian artagabe utzitako ispiluak, orduan, egilea tentuz eta arduraz eraikitzen ari dena islatzen du, partez behintzat.

Andrea azken ukituak ematen ari zaio erretratuari, eta pintzel-muturra bermatu du ez irudiaren ilean, ez bekokian, ezta bularrean ere, baizik eta ahoan, hitzaren konplizean. Zertzelada horretan aurkitu dut, hain zuzen ere, dama pintorearen eta neure arteko lotura, idazlea naizenez gero.

Anakronikoa irudituko zaizue orain dela seiehun urteko miniatura bat izatea hausnarketa honen abiapuntua. Hala jazo da, ordea, nire begiak, intuizioz, esanahi sinbolikoz hornitu dituelako eszenako elementuak.

Mihisea idazkuntzaren esparrua da. Margoen ontzitxoak, idazkeran eragiten duten datu biografikoak. Zurezko kutxatila, bitxi-ontzi estilokoa, iraganaren gordailua da, memoriaren harribitxien biltokia. Estiletea, berriz, adieraziaren nahiz adierazlearen pinportak ebaki, berdindu eta disekzionatzeko borondatea. Eta altzari gainean alderantzika dagoen ispilua, zenbait forma lauso zeharka baizik harrapatzen ez dituena, norberaren nahiz besteren errealitatea erdizka baino ez ulertu eta islatzeko gaitasuna.

Horraino sormen-jarduera pribatuaren metaforizazioa. Ezen eta mihise, pintura, ispilu eta enparauez jabetu ondo-

ren, aire zabalera irten beharra dator; alegia, gelako lana osatzen duen baratzea landatzera.

Baratzea argilunetan dago. Badira txoko ospelak, goroldioa bertan argia jaten, eta fruta-arbolak nagiak ateratzen alderdi eguzkitsuetan. Bada sendabelarren gunea. Badago palmondo bat, oinetan arrosondoak dituela, alboan putzua, eta haren aurrean mahai bat, idazteko.

Baratze hori ez da paradisu galdua, ez lorategi bukolikoa, baina bai toki atsegin bat, sortzaileak berari komeni zaizkion ezaugarriz hornitzen duena: badu zerbait basatia, jasmin endredatuan eta hirusta nekagaitzean; badu zerbait arrazionala, ilar, tipula eta piper ilaretan; badu zerbait onirikoa huntzorri herdoilduan; badu misteriorik arrasteluak inoiz ere arakatzen ez duen orbelaren azpian.

Toki horretan izerdia botatzen da zuhaitzak landatzeko eta belar txarrak erauzteko; xehetasunak zaintzen dira; hautu bakoitzaren arrazoiez hausnartzen da; asmoekin gozatzen da; bizitzako pasadizoak gogorarazten dizkiguten une iheskorrak begiztatzen dira, hala nola tximeletaren hegaldia amapolaren bularrean edo zozoaren jauzia harraren bila; erregaliza, menda, salbia, ezki-lorea eta arraiska batzen dira, tentuz xehetu, nahasi eta ur irakinetan egosi ondoren iragazkitik pasatzeko, ontzira isuritako ur hori ez baita izango lehengo ura, lurrin-belarren esentziak kolore, usain eta zaporez hornitu duen bestelako edaria baino. Horixe da, gutxi gorabehera literatura, errealitate ñibirriñabarraren kontzentratua egitea norberaren errezeta estetikoaren arabera.

Idazten ikasi egiten da. Nola, horixe zaila azaltzen. Erritmo konstantea, egitura orekatua, lekuaren eta denboraren arteko harreman zuzenak bilatuz; bizitza, gertaera, toki, sentimendu eta gauzei harriduraz so eginez; hitzak airean doazela harrapatuz; eta lortzen dugunarekin bainoago egiten ari garenarekin arduratuz, idaztea ez delako hitzekin eta esaldiekin jolaste hutsa, norberaren beldur eta erreparoei aurpegia ematea ere baizik.

Honetan datza erronka: ispiluari zapia pasatzean, gure unibertso pertsonalaren analisi sorkuntzarako oinarria delako; eta baratzea zaintzean, barne-espazioaren luzapenak ematen digulako behar dugun testuingurua.

*Miren Agur Meabe Plaza*
Bilbon, 2012ko maiatza

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Negar artean baina bai

Maialen Madariaga Intxaurraga
Arratia institutua
Igorre

Bizitza: gizakiari eskainitako oparirik preziatuena. Eta han nindoan ni oraindik arnasten hasi aurretik, zuri aukera hori esku artetik kentzera.

Lausoa zen ikusten nuen oro, umeak, emakumeak, agureak, gizonak, atsoak… Baita mina, samina, beldurra, itxaropena, tristura, desesperazioa eta ezinegona ere. Begirada bakoitzak bere sentimendua aireratu zuen gela txiki hartan, lurrundutako malko eta arimekin batera aire guztia goraino betez, arnasteko azken oxigeno puru bakarra ere nahigabeak lapurtu zuelarik. Ni ere ez nintzen salbuespen eta nire hazia isuri nuen bertara. Hala ere, ez neukan argi oraindik poztasuna edo tristura zen atmosfera hartara jariatu behar nuena, lasaitasuna edo ezinegona, maitasuna ala itxaropena. Baina badaezpada ere malko tanta bat jaurti nuen, isil-isilik eta ezkutuan.

Supituki nire izena aditu nuen urrunean, putzu sakon batetik etorriko bailitzan. Noski, putzu hartako sentimendu korronteak mendietako urak baino uhin gehiago xurgatzen zituen, oraindik urrunago aldenduz. Deiarekin batera are gehiago lausotu zitzaidan begirada, malkoak aspaldi lehortu baziren ere. Gizon haren amantal zuriak bikoiztu egin zuen ondo eza, mila eta bat fokok hau argitzean itsu-

tzeko moduko distira eragiten baitzidan zuzen zuzenean. Hasperen egin nuen, iritsi zen momentua azkenean. Amaren laztan berezi hori oroitu nuen orduan. Eskumako eskua heldu eta sendo estutzen ninduen bere babesa eskaini nahi izaten zidan guztietan. Nik barre egiten nion honen aurrean, ez baitzidan inolako lasaitasunik igortzen. Bera ere beldur izaten zen eta niregan ezarri nahi izaten zuen izu hori askotan, horretarako laztan hau, bestetik ez. Baina egun hartan faltan sentitu nuen haren keinua, nola edo hala nire alboan neukala esaten baitzidan. Nostalgia isuri nuen orduan gelara, beste pare bat negar tanten artean urtuta.

Beraz, han nindoan hainbeste jendek hats bakar batean isuritako sentimendu multzoaren artean baina inoiz baino bakartiago, aurrera eta aurrera zuriz jantzitako hari nekez segika, kirioen zorabioa sabelean. Erruaren pisua zein erantzukizunarena gero eta gehiago nabaritzen nuen pauso bakoitzean, oraindik ere zalantzaz beteta. Baina zoritxarrez urrunean lauso agertzen zen puntu zuri hura ez zen aingerua, kolorez nahasitako gizaki soila baizik. Sentimendu pilo hura atzean betiko ahantzi eta berriak sortzeko bidearen hasieratzat nuen korridore estu hura, baina nahigabeak, ordea, badaki hegaz egiten.

Bai! Hiru hizkiko monosilabo hori ahoskatu nahi nuen, ozen eta irmo, azken asteetako zalantza guztiak estaltzeko moduan. Amak, Mirenek, Amaiak argi entzuteko gisa, batez ere Mikelen belarri goxoetara iritsi zedila desio nuen, mesedez. Erabakiari hainbeste bira eman nizkion egunsenti eta ilunabarretan. Eta orain han nengoen erabakia azalerazteko unean, mutu. Nahia, baina ezina, ezpainak bere horretan ziharduten, elkarrengandik banatu ezinean, lehorregi.

Amaren disgustua, Oihanaren oihua, Aitorren babesa, Amaiaren irribarrea, Maitaneren ametsa, Ihintzaren besarkada, Mikelen malkoak, … flash batean heldu zitzaizkidan denak elkarren atzetik tropelean. Gelditu, gelditu, gelditu! Mikelen negarra, Mikelen negarra, Mikelen negarra … bihotz taupaden erritmoaren pare errepikatzen ari zen esaldi, irudi eta samin hura nire begien aurrean etengabe, abiadura bizian. Mantso-mantso, gela berriko paretetara kanporatu berri nituen hitz bakoitzak eztarritik bi besoekin gogor heldu eta itotzeko saiakuntza egin zuten, arnasa behar nuen. Baina hor daude malkoak, beti barrua husten laguntzeko gertu, ustekabean bateri erortzen utzi eta hasperen egitean lortu nuen, apur bat lasaiago bai, behintzat.

Zure aurpegi apal eta xaloa imajinatu nuen gero ametsen mundura bidaiatuz, ohean, amaigabeko gauetan ikusten nuen antzean. Mikelen besoetan, zuri begira-begira lokanta ezti hura abesten zizun artean, ahopeka xuxurlatuz. Nire magalean, negarrez edo barrezka kulunkatzen zintudalarik edo neguko haize izoztu horretatik babestuz sutondoan, ala egun eguzkitsuetan hondartzan kresalaren jolasean murgilduz. Zure lehenengo pausoa, hizkia, irribarrea edo negarraren lekuko, eskutik helduta pozarren. Neska bazara Maider eta mutila bazara Aitor. Zoriontsu, denok zure keinu xaloei begirik kendu gabe, eskutxo ñimiño horiek leunki laztanduz, nire bihotzaren zati bihurtuz.

Gogoan ditut parkeko solasaldiak, Mikel. Haritz txiki haren gerizpean eguzki bortitzaren izpi itogarrietatik babestuz, egurrezko banku herdoildu hartan eserita. Bitartean haurrak jolasean, korrika alde batetik bestera, maitagarri. Orduak ematen genituen haiei so, irribarretsu, haien mugimendu bakunak aztertuz. Baina lasai, azken finean uler-

tzen zaitut, biok desio genuen haur haietako bat besarkatzea eta laztantzea. Hala ere guraso izateko irudia urruti zegoen, baita niretzat ere.

Orain ez laztana. Azkarregi ari zara bizitzari ate joka, itxaron egin behar duzu. Gaur ez dago tokirik zuretzat larunbateko parrandetan, 50m$^2$ eskaseko apartamentuan, 2 metroko ohean, gure arteko muxuetan, kandelen erromantizismoan, unibertsitateko apunteetan edo orgasmoz beteriko gau luzeetan. Mikel da momentu xamur hauen protagonista, kuttuna. Berak uko egin dio zurekin gure maitasuna partekatzeari ozen eta irmo, zalantzarik gabe. Eta nik ez dut berea galdu nahi, hori ez.

Akats baten fruitu zara zu, Maider edo Aitor. Errakuntzen artean hutsik politena, ordea. Negua iritsia zen azkenean, eta eguzkiaren agurrarekin batera azaroaren 22a. Baziren urte bi leku hartan ezagutu zintudala. Hondartzan. Biologiako apunteekin borrokan nenbilela han entzun zintudan urrunean, kresalaren doinua imitatu nahian gitarra astinduz. Elkarrekin abestu genuen erlats gelditu arte. Egun hartan, ordea, beste doinu bat abestu genuen. Han zeunden unibertsitateko ateetan golf zuri haren barruan, esperoan. Haurren jolas bat bailitzan begiak estali zenizkidan zure lurrin atsegina jario zuen zapi koloretsu harekin. Gustuko nuen misterio puntu hori, banekien nora gindoazen, ordea. Lagako hondartzara, gure txokora, urtebete beranduago. Oraingoan ez zen gitarraren soinurik aditzen, haizearen ufadak bai, ordea, hutsak eta noski, kresalaren usainaren doinu gazia. Guk josi genituen gainontzeko kolore zein melodiak, larrugorritan maitasunari oihukatuz. Aske elkar laztanduz eta ulertuz, olatuen mugimenduekin batera dantzatuz, urrutira hegan eginez. Baina are mortu

haren presentzia ez genuen guk biok soilik sentitu. Zuk ere han egon nahi zenuen, gure maitasunaren isla eta lekuko. Erromantizismoak ere huts egiten baitu batzuetan.

Nahia, ondo ahal zaude? Ez ahal duzu nire galdera entzun? Ziur zaude orduan abortatuko duzula?

Hondartzaren gorengo hodei argietatik bota ninduten bat-bateko hitz haiek, ospitale hartan berriz oinak jarriz. Hainbeste bidai eta oroitzapen eztien artean ahaztua nuen non nintzen eta han egotearen zergatia. Hasperen egin nuen orduan, sakon sakonean oxigeno apurren bat aurkitu nahian. Ez nuen askorik aurkitu, zure hatsak lapurtuko zizkidan beharbada, zure bizitzeko nahiak apika. Baina nik ere arnastu beharra neukan, ordea, Mikel alboan eta zuregandik urruti oraingoz behintzat. Krudela naizela badakit laztana, ez zaitudala maite esango duzu, eta ez dizut hori eztabaidatuko. Agian zurea izango baita egia, ez dakit. Benetan ziur dakidan gauza bakarra Mikelen muxuetan galdu nahi dudala da, bere alboan goizero esnatu, bere ezpainak mila eta bat aldiz laztandu, berriz Lagako are pikorrak zapaldu, bere alboan abestu, gitarrarekin edo gabe, kresalaren doinua edo maitasunarena ala olatuena, bere hatsarekin luzaro bizi.

Erabakia argia zen jada, bi eskuak elkartuz sabela leunki igurtzi nuenean, zu agurtzeko gogoz. Baina orduan, mugimendu xalo bat sentitu nuen esku ahurrean, otzan. Gustatu egin zitzaidan taupada hura, eta berriz estutu nuen sabela, beste kolpetxo bat. Begiak itxi eta azkeneko malkoa isuri nuen sabelaren gainera erortzen utziz. Zure negarra entzuten nuen nire azala zeharkatuz, bizitzeko grina eta beharra, aske izateko ametsa. Eta nire burua en-

gainatu dudala sentitu dut, zure edertasuna estali eta Mikelen distira baino ez dudala utzi agerian, zu aintzat hartu gabe. Kolpetxo leun horrek errealitatearen ateak ireki dizkit. Zu zara nire fruitua, Mikel nire euri ura den artean. Maite zaitudala jabetu naiz, zure taupadak nireak bailitzan azalez azal sumatu eta erritmo berean bizi. Zu lepoan harturik Lagako eguzki izpiak lapurtzera alde egin nahi dut, olgetan eta maitasunean itsasoaren gazi-gozoan.

- Nahia, orduan zer, bai?

- Bai -ez, ez, ez. Hitzek traizioa egin zidaten, bihotzari entzungor eginda, zure kolpetxoak ahaztuz eta berriz ere Mikelen babesa bakarrik kontuan hartuz. Gutxika gutxika urruntzen nabaritu zintudan, kolpetxo bakoitza leunago eta leunago, azkena zurrumurru ezereza bihurtuz. Baina ez nuen indar gehiagorik kontrakoa ahoskatzeko, berriz lehortu ziren ezpainak. Bukatu zen dena, agur maitea.

Ordu bete iraun zuen hilketak, hotz eta azkar, odolik gabe, ordea, garbi. Urrunera alde egin zenuen betiko. Ospitale hartako sentimenduen dosia arnastu gabe joan zinen, ez nizun haritz haren itzalean jarri, eta munduari so eginez, denboraren poderioa nabaritzeko aukerarik eman, ez duzu ezagutuko arearen freskotasunaren usaina, maitasuna ere arrotza izango da zuretzat. Zu guretzat irudimenezko oroitzapen urria bezain handia.

Orain hemen nago Urkiolako larre orlegietan eta Mikel aldamenean zeruko izar argiak behatzen ditugun artean. Erromantiko, goxo, babesean, elkar maitatuz. Toki berri batean, Lagako hondartza beroa iraganean gelditu da jada, zuri beltzeko argazkian, zu baitzinen bertako benetako

protagonista. Ez dugu adorerik bertako doinua berriz entzuteko, zure kolpetxoek jarraituko diguten beldurrez. Han, itsasoaren bits artean jaio zinen eta beste ur gazi baten murgilduta alde egin zenuen urrutira, Urkiola gaineko zerura agian. Aurkitu dut zure izarra jada laztana, hemen, gure gainean, berriz ere gure arteko maitasunaren lekuko, guk bakarrik nabaritzen ditugun kolpetxoak joz. Pum, pum, pum, pum…

# Alzheimerraren doinua

Leire Alonso Allue
Askatasuna institutua
Burlata

Gogoan dut nola ahaztu zitzaion idazten, irakurtzen, herriko kaleak, gaztetako kontuak, gure izenak, berea. Bizitzen ere ahaztu egin zaio azkenean. Eta hori da gogorrena. Bera ez da gogoratzen. Baina nik dena dut gogoan. Pauso txiki bakoitza. Ahaztutako segundo guztiak. Nola utzi zioten iraganak eta etorkizunak orainaldiaren parte izateari. Mozarten edozein sinfoniaren akorde bakar batek bezala. Akorde hutsa. Segundo erdia. Inondik etorri ez eta ezer helburu ez duena. Airean, momentu batez, zintzilik dagoen soinu zentzugabea.

Gau-mahaiko argazkiari begira dago. Begira dago, baina ez du ikusten. Senti dezaket. Ez daki lur zati hori txikitako jolastoki duela. Ez du haurraren ondoan dagoen gizon irribarretsuan bere burua aurkitzen. Eta haurra inoiz ezagutu duen susmorik ere ez du.

Larunbata zen. Larunbata zen aitonaren baratzean. Maiatzeko arratsalde beroa. Fruta-arbolak loretan ziren. Tomateak hazten hasiak. Udaberri beroa izan zen urte hartakoa. Horregatik nago argazkian bainujantzia eta kamiseta laranja jantzita. Ureztatzeko uretan plisti-plasta ibili izango nintzen. Hankak lokazteraino. Beti gustatu izan zait hankak lokaztea. Aitonak errieta egiten zidan amaren

aurrean. Eta gero barre egiten zuen. Barre egin eta lokatzetatik ateratzen ninduen kontu handiz, arbola haiek guztiak landatu zituzten beso sendoekin eta umea jausiko zitzaion beldurrez. Orduan egin zigun amonak argazkia, lurretik jaso ninduenean. Oinak beltz ditut. Aitonak irribarrea zuri. Baina ez ditu gogoratzen. Zuhaitzak. Lurrak. Bilobaren oin lokaztuak. Amonaren argazki-makina zaharra. Bere burua. Gure bizitzak.

Nik oparitu nizkion argazkia eta markoa. Gau-mahaian ere nik jarri nuen hostoz eta kartoi mehez egindako markoa argazkia barruan zuela. Lehen begira geratzen zitzaion denbora luzez. Eta ikusi egiten zuen. Belar eta zuhaitz artean jolasean emandako egun bakoitza ikusten zuen argazkian. Seme-alabek aitondu zuten garaia. Biloben haurtzaroa. Emaztearen udaberriko irribarreak. Begiratu eta ikusi egiten zuen. Orain irudia besterik ez da. Irudi arrotza, begiratu orduko burutik ezabatzen zaiona.

Gurpildun aulkian eseri dut erizain baten laguntzaz. Aspaldian zama handiegia izaten da nik bakarrik bizkarreratzeko. Horregatik eskatzen diot laguntza erizainen bati. Lehen banekien. Banekien trapuzko panpina bailitzan hanka bat mugitu, besoa igo, enborra zutitu eta aitona ohetik aulkira mugitzen. Orain ezin dut. Ezin dut denborak makurtutako enbor sendoa zuzendu. Eta olibondoak etortzen zaizkit halakoetan gogora. Sagarrondoak. Tomate landareak. Muxikak. Gogora etortzen zait nola jartzen zizkien makilak enborraren ondoan. Nola lotzen zituen. Txikitatik. Txikitatik lotu behar zirela esaten zuen beti. Begira, aitonak bezala. Tomate landare bakoitza. Makurtzen hasitako zuhaitzak. Tente hazi behar ziren sagarrondoak. Etxolaren leiho ondoko pikua. Zahartzean ez makurtzeko lotu behar

direla zuhaitzak. Aitonak erakutsi zidan. Eta orain ez dakit noiz lotu behar nion aitonari makila. Ez dakit aitonari makila lotu banio tenteago legokeen. Beharbada bai. Baina ez nintzen konturatu noiz hasi zen makurtzen.

Gurpildun aulkiari bultzaka lorategiraino iritsi gara. Ni eta nire bultzadak. Eta gurpildun aulkia. Eta estimulu orori begiak mugitu gabe eta ahoa ireki gabe eta hatzak eta oinak geldi erantzuten dion aitonarena zen gorputz hau. Oraindik han bizi ote den galdetzera behartzen nauena, egunero.

Betiko zuhaitzaren gerizpean eseri gara. Aulkitik jaisteko moldatzen naiz. Igotzerakoan, berriz, ingurukoren bati eskatu behar izaten diot laguntza. Beste gaixo batzuk ikustera joaten diren familiartekoei noizbehinka. Lorategian harrapatzen ditudan erizainei inoiz. Belarretan eseri eta MP4a atera dut poltsikotik. Ezkerreko aurikularra ezkerreko belarrian jarri diot. Eskuinekoari neure belarria zegokion. Chopin. Chopin poloniar frantsestua. Jaioterria gazte utzi eta sekula ahaztu ez zuena. Chopinen hamabosgarren preludioa, Euri tanta. Euri tantak teilatuarekin jolasean, txirrista amaigabea bailitzan. Euri tantak teilatu-joka, etxe barruan ekaitzetik babesten uzteko eskatuz. Eta euri tanta sumatu diot berari ere, begi ertzean. Chopinen Euri tanta, amonak ekaitz egunetan jartzen zuena etxeko diskojogailu zaharrean. Chopinen ekaitzekin ez omen zirelako haurrak beldurtzen.

Euriaren ondoren atzerago eraman dut. Parisetik Alemaniara. Hemeretzigarren mendeko Parisetik hemezortzigarren mende hasierako Alemaniara. Jauregi barrokoren bateko ganbara dotore batera. Bachekin. Bachen biolin

kontzertu bikoitzarekin. Irribarre txikia lapurtu diote jolas barrokoek, errepikapenetako ornamentazio bihurriek, hemezortzigarren mende hasierako hariaren soinu jolasti eta arinek. Katedralean aditu genuen lehenengoz kontzertua. Txiripaz. Bartzelonatik etorritako lehengusu batzuei hiria erakutsi genien ostegun batean. Katedralera iritsi ginenean kontzertua zegoela jakin genuen. Bachen txelorako hirugarren suitea, Telemannen trio bat eta Bachen biolin kontzertu bikoitza. Ordutik zuen ostegun arratsaldetan kontzertua jartzeko ohitura. Eguneroko osteratxotik etxera itzultzen zenean. Amona urduri jartzen zuen. Beti kantatzen zuelako grabazioarekin batera. Eta inoiz ez biolinek egiten zutena zehatz-mehatz. Nahi bezalako ornamentaziorako eskubidea zuela esaten zuen, barrokoaren legeen barruan. Eta hori zela bere interpretazioa. Niri gustatu egiten zitzaizkidan bere txio xelebreak, nahiz eta amonak agure buruaren matxura seinaleak zirela esaten zuen.

Eta, Bachen ondoren, arratsaldeko azkena. Nik gonbidatu nuen kontzertura, obraz maitemindu nintzenean. Hamabi urteko haurra nintzen artean. Gogoan dut nola gorde nuen hilabete bateko dirusaria kartoizko kutxa txiki batean. Hilabete osoan ez nuen gozokirik erosi eta ez nintzen lagunekin zinemara joan. Sakelako berriari ere ez nion xentimorik eskaini. Banekien Daniel Müller-Schott etortzekoa zela, eta kontzertura joan nahi nuen. Amak eman zidan sarrerak erosteko falta zitzaidan dirua erratza pasatu eta lorategiko hostoak bildu nituelako. Aitonari nik oparitu nion sarrera, eta elkarrekin izan ginen kontzertuan. Elgarren biolontxelo kontzertua mi minorrean, Opus 85. Egun hartatik aurrera bere kontzertu gogokoena da. Baita nirea ere. Horregatik jartzen dut egunero joan aurretik. Jacqueline Du Preren grabazioa, 1965ekoa, bere Stradiva-

riusarekin. Askok bikaintzat duen musika. Historian zehar izan diren musikari eta obrarik onenetakoak. Biak batera.

Lehenengo adagioaren erdian erizain bat pasatu da gure ondotik. Zein obra aditzen ari ginen galdetu digu. Elgar zela erantzun diodanean aitona aulkira igotzen lagundu dit. Berak ere badaki Elgar arratsaldeko azkena izaten dela.

Elgar eta Jacqueline Du Prerekin batera amaitzen dugu egunero lorategian zeharreko paseoa. Niri haurtzaroa ekartzen dit gogora, aitonaren eskutik antzoki handi batean. Eta nola jartzen zidan gerora Elgar bere etxean izaten nintzenean. Hamalau urte bete nitueneko eguna. Bere irribarre erraldoia eta opari txikia. Ireki eta Elgar violoncello concerto ikusi nuenekoa, eta azpian Jacqueline Du Pre. Bazekien beste edozein opari baino askoz gehiago gustatuko zitzaidala esku artean zuen kutxa txiki hura. Eta horregatik egiten zuen irribarre.

Berak zer sentitzen duen ez dakit. Ez du kutxa gogoratzen. Urtebetetzea. Kontzertua. Biloba. Atzo obra beraren interpretazio bera aditu zuela ere ez du gogoratzen. Baina zerbait sentitzen du. Ez dago haizearen eta mugimenduaren eta irudien eta usainen aurrean bezala, geldi eta begirada galdu. Ez, musika sentitu egiten du. Hori da ahaztu ez duen bakarra.

# Izenburu bat zapi bateko bizimodu klasikoen nahaste batentzat

Garazi Mugarza Markina
Fray Juan de Zumarraga institutua
Durango

# 1

Hotz egiten du gaur ere. Nabari da negua ate joka dugula. Duela astebete hasi zuen tenperatura hozten, eta egunetik egunera, izotzago da arnasa, goizean etxetik ateratzeak dardarka jartzen nau, hezurretaraino izozten. Zorionez, ostirala da gaur, amantalak etxera ekartzeko eguna izaten zena duela urte batzuk, kantuka etxeratzen ginena, orain ordea, nekea eta asteburu osoan lanpeturik edukiko gaituzten koadernoak besterik ez dakartzagu.

Entzungailuak belarrietan eta musika ezpainetan ditudala jaitsi naiz autobus geltokira. Musikak, ordea, ez du nire gorputzeko hotza uxatzeko besteko epeltasunik. Luze egin zait autobuseko bidaia gaurkoan, luzeegi, baina iritsi naiz institutura, eta lagunekin elkartu naiz bigarren solairuko korridorean. Larunbateko parrandaren inguruan aritu gara hizketan, erortze barregarriak, txutxu-mutxuak, aspaldian ikusi gabeko lagunak… Bada bai zer kontatu. Ahots tonu altua daukagu, ingurukoek begiratzen digutenean konturatzen gara gure barre algarak eta solasak oraindik burkoaren gainean dauden belarrietara iristen direla. Txirrinak jo du. Horrek gortzen du bat goizeko zortzi eta erdietan. Bolumena jaisteko eskatu beharko genuke.

Azkar ihes egin du kimikako orduak. Atsegin dut kimika, bai. Euskarako orduan liburutegira joan gara, agindutako liburuaz gain, nota igotzeko beste liburu bat aukeratzeko asmoz. Sarriren liburu bat irakurtzea gomendatu dit irakasleak. Laurehun eta hogeita hamahiru orrialdeko liburu bat. Sendoa da. Atsegin dut irakurtzea, ordea. Azkenean horixe aukeratu dut.

Lauretan iritsi naiz etxera, bizkar zorroaren zama gainetik kendu, liburua sukaldeko mahaian utzi eta arropak aldatzera joan naiz. Bueltan, ama aurkitu dut liburua eskuetan duela.

- Liburu polita aukeratu duzu. Durangoko azokan erostekotan izan nintzen iaz, baina, azkenean, ez dakit zergatik, ez nuen erosi. Beti izan dut hau irakurtzeko gogoa.

- Irakasleak gomendatu dit, badut nahiko lan Gabonetarako -erantzun diot, platera eta edalontzia armairutik ateratzen ditudan bitartean.

- Ba al zenekien Sarrionandia zure aitaren lehengusua dela? -Harritu egin nau galderak. Une batez nahastuta dabilela pentsatu eta txundituta begiratu diot. -Zure amona berez bilbotarra zen, kajakoa uste dut. Eta Sarriren aitonamonek alabatzat hartu zuten umea zela. Sarriren ama, Natalia, eta zure amona ahizpatzakoak dira. -Nire harridura aurpegia gero eta handiagoa da, nire kokotsa gero eta beherago dago, pisu handia izango balu bezala, nire aurpegia indargabetzeko adina. Ez nekiela ezer esan diot amari, sorpresan harrapatu nauela. -Aitari galde iezaiozu, ez nago ziur nola izan zen eta.

Hipnotizaturik banengo bezala bazkaldu dut, begiak mahaiaren bestaldeko mostradorean iltzaturik. Orain arte sentitu gabe nengoen barnea astintzen didan hau, nondik gatozen ahaztu izanak barrua estutu beharko ligukeela etorri zait burura, iluntasun koipetsu bezain malenkoniatsu bat sortu beharko ligukeela pentsatu dut. Banekien egunen batean neure burua aurkitu eta denboran kokatuko nuela, gutxien espero nuen unean izanda ere, eta hau izan da une hori. Kortaturen abestian aipatzen den Sarriri buruz hitz egin ote dit amak? Idazteko gaitasun paregabea duen idazle, filologo eta poeta horretaz? Bai, hala da, 1985ean espetxetik ihes egin eta orain klandestinitatean bizi den Sarri berberaz. Miresten dut gizon hura, benetan maite izan duen askatasuna lortu duelako. Bere idatzietan soilik mugatu izan duelako askatasuna. Iheslari den era berean, aske bizi delako, auskalo nongo txokoan, ez duelako bere jaioterria ahaztu. Preso izatearen errealitate gordina bere obretan islatu du, dispertsioari eta isolamenduari trapu zaharrak atera dizkio. Bakardadea aipatu du; jendez inguratuta egon eta bakarrik sentitze hori. Herri baten mina ezin hobeto deskribatu du, bera ere, dagoen tokian dagoela, hemengoa delako. Eta begira zer kontatu didaten orain. Benetan arrazoi zuen mundua zapi bat dela esan zuenak.

## 2

Datorren asteko matematikako azterketa prestatzeari hirugarren aldiz ekin diot. Lanak eman ditut arreta jartzeko ahaleginetan. Ez dut lortu. Amak kontatutakoari buruz zenbat eta gehiago pentsatu, are bereziagoa egiten zait dena. Aita noiz etxeratu zain nago. Konturatu naiz, zerbait berria jakite hutsak bizitzaren ardatza tokiz alda

diezaiokeela bati. Bere egia ulertu nahian hain okupaturik ibili denak ez duela bere atarian ate joka ibili dena aintzat hartu.

Aitarekin batera iritsi zaigu afaltzeko ordua. Ezer aurreratu gabe berriz ere. Pare bat ordu pasa ditut matematikako dudak aurreratzeko asmoz, neure pausoen lekuko izan nahian. Pauso bakar bat ere ez. Geldirik.

- Ez dut ezer jakin gaur arte, aita. Amak aipatu dit Sarrionandia zure lehengusua delako kontu hori. Azalduko didazu xehetasunez? -Amonari galdetzea dela onena erantzun dit, behingoz zerbaitenganako interesa dudala ikusi duenean.

- Bihar bertan joan gaitezke Elgetzura, amama da honi buruz gehien dakiena.

- Honi buruzko ipuina idaztea pentsatu dut. -Bota dut ziurgabetasunez. Baina ez da ideia txarra. Pozik begiratu didate gurasoek, uste dut ondo iruditu zaiela, izan ere, denbora daramat ipuin luzerik idatzi gabe. Urtebete agian. Azken ipuinean elbarritasunari buruz idatzi nuen. Beste ipuin batean preso batenganaino eginiko bidaia luze bezain neketsu bati buruz. Argi dago gustuko dudana nire inguruko bizimodu klasikoenei buruz idaztea dela. Ez dut nahasiko klasiko terminoa berezi izatearekin. Esanahi desberdina badute ere, herri honetan edo nire inguruan klasiko diren bizimoduak beste nonbaiten berezi izan daitezkeelako batez ere.

Ohean sartu naiz afalostean, Sarriren liburua irakurtzen hasi naiz,  jakin-minez, eta ez dut beste liburuak

irakurtzean sentitutako gauza bera sentitu. Etxekotzat jo dut narrazio hura. Sentsazio arraroa. Kapitulua bukatu eta eskuko ordenagailua magalean hartu dut, lagunekin hitz egiten aritu naiz internet bidez ordu batzuez. Gustura, ia egunero beraiekin egoten banaiz ere. Beharra izaten dut lagunen presentzia egunero sentitzeko. Entzun egiten naute. Ulertu egiten naute. Beharbada antzeko arazoak ditugulako, antzeko pentsamendua. Gauerdian itzali dut ordenagailua.

Goizeko hamaikak inguruan ireki ditut begiak. Hogei minuturen buruan altxatu naiz. Gosaldu ostean, koadernoan zenbakiekin jolas egiteari ekin diot. Matematikari. Gustura nabil. Hala ere, ulertu gabe jarraitzen dut. Matematika ez dugu ulertzen, uste dut ez dagoela matematika ulertzeko gai denik, bertara ohitzen irakasten digute, hori ikasten dugu. Bazkaltzeko ordua iritsi arte bete ditut orriak ariketez, zenbakiz, letraz. Arratsaldeko lauretan amonarengana joan gara aita eta biok.

## 3

Hiru seme-alaba zituzten Irenek eta Estebanek. Laugarren baten guraso izateko prest zeuden. Zoriontsu ziren Garaizarren. Bizitzeko aukera bat ematea dela egin daitekeen opariirik onena zioten, iturriari ura darionean edan behar dela, ez egarri zarenean. Ellakuriatarren anai batek Bilboko familia baten berri eman omen zien abenduko arratsalde batean, lau seme-alabak aurrera ateratzea ezinezko zitzaien bikote baten berri. Fraideak ziren Ellakuriatarrak, konfiantzazko gizonak garai hartan. Duela urte gutxi batzuk arte, konfiantza erlijioan oinarritu izan baita,

jainkoaren mezulari diren ondo jandako gizon lodietan. Matilde Patrocinio Laura izeneko neskatoa alabatzat hartzeko erabakia hartu zuten egun hartan Irenek eta Estebanek.

Horixe kontatu dit amonak. Kontatu bitartean orri batean apuntatzen aritu naiz entzundakoa, hitz soltez bete dut orria, hitz soltez, ez hitz hutsez. Gustura dabil hizketan, egundo inori kontatu izan ez balio bezala, urte hauetan guztietan sekretupean egon izan balitz bezala. Gustura dabil hizketan, bai, eta neu ere gustura nago bere hitzak entzuten, nire belarrietan kondaira da amonak dioena. Nire arretaren atzean, amonaren hitzen atzean, txapako suaren txinpartak eta telebistaren marmarra entzuten ditut. Amonaren sukaldeko harmonia izan da umea nintzenetik. Asaba zaharren etxeetan ez dira gauzak aldatzen. Betiko lez jarraitzen du denak. Amona bere betiko txokoan, sutondoko besaulkian; hura da bere gogoko lekua. Kuriosoa badirudi ere, ez dut ezagutzen amonaren ezkerreko belarria. Ile kizkur zurien atzean ezkutatuta dirau, baina belarritakoaren distirak salatzen du bere presentzia. Oraindik ere bere amantal ilunean pausatzen ditu eskuak, nik hain gogoko dudan amantalean, eta ez, ez du bere irribarrea galdu. Ni naiz berari begira denboraren kontrola galtzen duena. Zeinen goxoa den amona, zeinen polita.

- Ez duzu inoiz zure guraso biologikoen berri izan?

- Bai, duela urte batzuk jakin nuen hil zirela. Zatoz nirekin maitea, jaso nituen oroigarriak erakutsiko dizkizut. Amak eman zizkidan, Irenek.

Bere logelara gidatu nau. Korridorean, atzetik jarraitu dut amona. Etxeko zapatilak erdi arrastaka daramatza bere pauso mantsoak. Gelako atea irekitzeaz batera, logelako itoginaren berri eman dit.

- Sabaia ez zen joan den asteko euriteei eusteko gai izan.

- Agerian dago bai, hara zelako hezetasuna.

Gehiegi axolako ez balio bezala, kasu handiegirik egin gabe, zuzenean jo du armairura. Diru zorroa hartu eta sukaldera itzuli gara. Aurretik epeldutako aulkietan eseri gara, berriz.

## 4

Bere besaulkia ezik, egurrezko aulkiak dira denak, zumitzezkoak. Mahaia sukalde kantoian kokatuta dago, tamaina ederrekoa da, garai batean etxe berean asko biziko ziren seinale. Elgetzun, ez da sukaldeko horman herriko harategian oparitzen duten egutegia esekitzeko ohiturarik galdu; hain ohikoa den artile artean galdutako katakumeen edo paisaia eder baten argazkia duena. Une berezi bezain irreal batean ateratakoa. Baina alboan, bada iloben argazkia duen egutegia ere. Sukaldeko sabaian zintzilik dago euliak bere baitan itsasten dituen zinta likatsua ere, beste modurik ez balego bezala.

- Atxurin jaio nintzen. Hiru neba-arreba ginen. Hau zen nire ama, Julia Salvador -esan zidan, bere argazkia erakusten zidan bitartean. Bere ama biologikoaren itxura du amonak, bekainak, begiak eta sudurra. Ile beltzeko

emakumea zen Julia, ilea kokotean bildua zeraman argazkian. -Ez dut aitaren argazkirik, baina badakit Bittor Martinez zuela izena. Begira, hau da nire amama, Ireneren ama.

Ez diot tristurarik nabaritzen, konturatu naiz, Irene eta Esteban dituela gurasotzat. Beraiek izan baitziren erortzean zutitzen lagundu ziotenak, galtzen zenean, galdutakoari begiratu ordez, irabazitakoaz gozatzen irakatsi ziotenak. Altxatu egin da amona. Afaria prest dago jada, eta sua itzali du. Ke-erauzgailua kili-kolo omen dabil, apaleko irrati zaharkitua ez bezala. Hainbat berbaldi eginak ditu jada. Gogoan dut, duela urtebete osaba hil zen arte, ia egun osoa isildu gabe pasatzen zuela. Telebistarekin tartekatzen zuen eguna, eguzkiak eta ilargiak egiten duten antzera. Bere ondoan, espresiorik aldatu gabe dirau etxeko txokorik ezkutuenak ere bedeinkatzeko zeregina duen emakume ezagun horrek, ur bedeinkatuz beteriko amabirjina zuri-urdinak. Uste dut badela beste bat bigarren solairuan ere. Ez dakit zer duen politik horrek, baina tira, dagoela hortxe. Apalari loturik dago armairurik bereziena. Bertan daude "pazientziak", jokorako kartak, paperezko zapiak, argazki horituak, gutunak... Eta armairuaren sakonean, nabari daitezke inoizko orratzik berezienen borobiltasunak eta aspaldi erabili gabeko artilearen lehorra.

- Nataliarekin gordetzen dut harremanik estuena, Josebaren amarekin. Oso emakume alaia da, etxera etortzen zait noizbehinka. Esaten dit jolastu egin behar dugula, umetan bezala, jolasteari utzi diogulako zahartu garela. Susana da nire beste ahizpa, oso polita zen Susana, ilehoria. Eta Angel… Ez dut ahaztu, nire neba nagusia. Gogoan ditut umetan elkarrekin egiten genituen bihurrikeriak. Beti

izan da bihurria, urteetan ez dut ikusi, baina ez zen asko aldatuko azkenengoz elkar ikusi genuenetik.

- Eta zu? Nolakoa zinen zu amona?

- Amak esaten zidan, heldu nintzenean bete betea nintzela. Zuk ezagutu ez baduzu ere ile zuri honek kolore beltza zuen lehen. Sei urte nituela hasi nintzen eskolan, baina hamar urterekin utzi behar izan nuen, etxean banuelako lana. “Ittaurren” egiten nuen. Badakizu zer den hori? -Ez dut erantzuteko astirik izan.- Soroan behi edo astoen aurrean hara eta hona ibiltzea lurra lantzen, abereen gidari. Aida eta jeurt. Bazkalorduan deitzen zidan amak, eskuak amantalean garbitzen zituen bitartean; “Patri! Zatoz bazkaltzera!”. Garai hartan amantala beti eramaten genuen soinean, kamiseta eramaten den bezala.

Bizkorregi pasa zait arratsaldea, bi orrialde bete ditut. Bada etxeratzeko ordua. Joan beharra dudala esan eta eskerrak eman dizkiot, bihar etorriko naiz ordu berean. Musu umel bat eman dit. Zeinen goxoa den amona, zeinen polita.

## 5

Iritsi da Elgetzura joateko ordua. Amonari egingo diodan galdera pentsatu dut, ea noiz etorri zen bertara, zergatik etorri zen.

- Lan egiteko beharrak ekarri ninduen. Neskame etorri nintzen, hemen hasi nintzen lanean, niretzako moduko lekua baitzegoen. Eta zure aitona ezagutu nuen, gizon altua, begirada serioa zuen. Berezia zen. Ni baino hogei urte na-

gusiagoa bazen ere, egia da maitasunean adinak ez duela garrantzirik, denboraren poderioz maitemindu egin ginen. Hogeita lau bete berriak nituen Migelekin ezkondu nintzenean. Eta hortik aurrerakoa, ba, imajina dezakezu, seme-alabak, egunerokotasuna…

- Baduzu argazkirik amona?

- Bai, baina ni ezin naiz bila joan, zahartuta nago gazte sentitzen banaiz ere. Adinak ez du barkatzen maitea. Nire logela zaharreko armairuan daude. Ekarriko dituzu zuk?

- Banoa.

Eskaileretan gora noala gogoan dut amonak esandakoa. Gazte sentitzen da amona. Amona ez da zaharra. Asko poztu nau hori esan duela jakiteak. Tristatu ere bai gazte sentitu eta etxean egon behar duela ikusteak. Logelako ate zaharkitua kontu handiz ireki dut. Zaharkituta alajaina! Badaramatza urte batzuk ireki gabe. Ohe hutsa. Bizitzaren arrastorik gabekoa, oihal batez estalia. Zoruko egurrak ere ez du zarata makala ateratzen, armairuko ateen antzera. Geldian isila da logela, zaratatsua mugimenduan. Armairua ez dago espero nuen bezala, ez dago hutsik. Hiru argazki albumak atera eta itxi egin dut. Oheburuko horman hautsez estalitako ispilua dago, eta irten orduko, bertan islatuta ikusi dut neure burua. Amona iritsi zen egunean izango banintz bezala sentitzen nintzen, une hura imajinatzen saiatu naiz. Bai, geure barrua lo hartzen dugun unea bezain ezezaguna da. Beno, noan neurera.

Hainbat argazki, zuri beltzezkoak, horituak gehienak. Argazki horien atzean denbora mugitzen zela sentitu dut

une batez, garaiak soilik ez direla izan ordutik hona aldatu direnak, eta iragan hori ez dela izan betirako ihes egin duen horietakoa. Gauza horiek ditu denborak argazkietan, batzuetan memoria gezurtiaren lagun egiten dela, eta bestetan, ez duela ezer ahaztu nahi. Inguru mugatu horiek ezinbestean garamatzate zuhaitz enborren magaletara, adar punten zintzilikatu ordez. Aitona eta amona biak batera eta bakarrik agertzen diren argazki bakarra dago, eliza batean. Ea ezkondu ziren egunekoa den galdetu diot.

- Ez, ezkontzaren batekoa izango da. Hara! Oraintxe gogoratu dut. Elgetzuko aitonari, Migelen aitari, zail egiten zitzaion “Patri” esatea, berak Matilde deitzen ninduen beti. Azkenean, etxean ohitura hori hartu zuten guztiek, eta ezkontzako paperak egin ostean Matilde zen jada nire izena. Zazpi seme eta alaba bat izan genituen. Balentin hil zitzaigun, hamasei urteko mutil koxkorra zela. Begira, hau zen Balentin. -Esan zidan, zazpi urte inguruko mutiko baten aurpegia hatz erakusleaz seinalatzen zuen bitartean. -Buruko tumore batek jota galdu zuen bizia. Horregatik, eduki genuen azken semeari ere Balentin izena jarri genion, Migelek hala nahi izan zuelako.

- Bai, jakin dut hori.

- Orain, bost seme ditut, iaz hil zelako Juan Angel ere. Eta Alazne, alaba bakarra. Eta bederatzi biloba. Baina tira, guzti hori bazenekien.-Argazkiei begira jarraitu dugu. Nire galderak berdintsuak izan dira denak.

- Nor da hau?

- Ez al duzu ezagutzen zure aita?

Galdera antzekoak egin dizkiot amonari, eta pazientziaz erantzuten dizkit guztiak. Albumak ikusten bukatu dugunean, bere logelara jaso ditut berriz. Itzuli naizenean Sarrionandiaren liburu bat irakurtzen hasi naizela esan diot. Idazle aparta dela. Gogoan duela esan dit. Ez duela ahaztu nolakoa zen haur txikia zenean. Nataliaren itxura zuen begietan. Baserrira etortzen omen zen, Garaizarrera. Oso jostaria zen, ez zen isilik egoten. Harritu egiten ninduen Sarrionandia edo Sarri deitu beharrean Joseba deitzen zuela entzuteak. Baina noski, beretzat ez da munduko bazterren batetik liburuak idazten dituen gizona, kartzelatik ihes egin zuena. Amonarentzako bere biloba da.

Kontuz beteriko arratsalde luze honetan, beste hainbat gauza apuntatu ditut. Nahikoa datu batu dut ipuin polit bat idazteko. Harritu ninduen istorioa idatziko dut, gustura gainera. Gabonetan ekingo diot idazteari. Astebete daukat ideia bat egiteko. Etxera joateko ordua da. Baina joan aurretik galdera bat egin diot amonari.

- Galdera bat amama. Azkar pasa zaizu zuri bizitza? -galdegin diot. Urduri nago.

- Atariko enara horren hegaldia baino azkarrago. Zoaz, maitea, aita zain daukazu.

Beste musu bat eman ostean atera naiz atarira. Konturatu naiz, ezer gutxi dakidala bizitzari buruz. Zenbat daukadan oraindik ikasteko. Egia da esku txikiegiak ditugula bizitzak ematen digun dena hartzeko. Geure bizia husten saiatzen gara batzuetan, geure liburuko orrialderen bat hausten, kontuan hartu gabe bizitza hutsak zer nolako zama duen. Sinesten dut zortean, nik baditudalako ahale-

ginik gabe etorri zaizkidan gauzak, baina arrazoia du ahalegina dagoen tokian aurkitzen dela zoriona esan zuenak. Eta sarritan damutzen naiz, daukadana zaindu beharrean eduki nezakeenaz amets egin izanagatik. Sarri galde egiten dugu ea zer egin duen bizitzak gurekin, baina geu gara bizitza bizi dugunak; zer egin dugu guk bizitzarekin? Asko daki amonak, bizitza luzea du, esperientziaz betea, eta badaki zer dioen. Beraz, ezagutu dezagun bizitza, bertan galdu orduko.

## 6

Aste bi daramatzat ezer egin gabe. Alfertuta nago aspaldian. Pantailaren aurrean eseri eta tekleatzen haste hori da gogogabetzen nauena. Gabonak duela astebete etorri zitzaizkigun ate joka. Urte berrian sartzeaz batera hasi naiz eskolako lanak egiten, irakurtzen. Bada garaia idazten hasteko.

Hemen nago, pantailaren aurrean eseri eta orrialde zuri bat zabaltzea lortu dut, gutxienez. Idatzi ahal izateko baldintza bakarra bete behar dela diote, esateko zerbait izatea. Eta zer esan nahi dut nik honekin? Ba egia esan ez nago ziur. Tokiko bizimoduei buruz hitz egin ohi dugu gehienetan, eguneroko otorduak prestatzeaz gain etxekoen zama daraman emakumeari buruz, zahartzaroa gaitzat hartuz, etxeko indarkeriaren inguruan edota korapiloak egitearen erraztasunaz, baina askatzeak duen zailtasunaz. Idazleak irakurleari sinestarazi behar dio hainbat aldiz errepikatutakoa lehen aldiz irakurtzen duela. Hori da idaztearen helburua.

Badakit zer idatzi. Datuak emateaz gain, bizimodu desberdinen arteko loturari buruz hitz egingo dut, biak klasikoak izanik gure herri honetan. Biak datozela sorburu beretik, bide guztiz desberdinak izan dituzten arren. Iraganeko artile nahaste baten muturrak izan direla biak. Bai, horri buruz idatziko dut. Esaldiak idatziko ditut, dakidana idatziko dut, daukadana eta dezakedana.

Ekin diot idazteari, lehen hitzak aukeratzeak dakartza ondorengoak. Ez diot amaierari begiratuko, helburua gehiegi begiratzen badugu, bertan eroriko garen amildegi bihurtzen delako. Idazten bukatu orduko erabaki nahi dut izenburua, istorioa lotzen laguntzen didalako horrek. Zeinen bizitza klasikoa duen nire amonak, eta herri honentzat, Sarriren bizitza ere klasikoa da. Hara nondik, bizitza horiek nahasturik dauden. Izenburu alternatibo bat behar dut nire istorio honetarako. Beharbada ez hain alternatiboa, bizimodu klasikoen nahaste bati buruz idatziko dudala argi baitaukat. Zorabio atsegin bat irudikatzen saiatuko naiz izenburutik hasi eta nire iragana ere baden amonaren gaur arteko bizitza idazten amaitu arte, gutxienez, badakidalako dezakedala, ezin dezakeenak kontatzeko lana hartu ondoren.

# Patuaren zoria

Garazi Leanizbarrutia Alonso
Olabide ikastola
Gasteiz

# I

Erlojua begiratu eta zortziak dira jada. Duela ordu bete autobusean igota egon beharko zen, baina ohean etzanda dago oraindik Iker. Iratzargailua bigarren aldiz begiratuz, sinetsi ezinik, izaretatik kanpo salto egin eta ziztu bizian abiatu da komunera.

*Gosaltzeko, haginak garbitzeko eta janzteko minutu bakar bat duzu*, esaten dio bere buruari; baina ez dauka minuturik. Nagusiak jakinaren gainean jarri ditu berriz ere langileak. Krisialdi garai hauetan ezin zaio inori akatsik onartu. *Hor kanpoan jende asko dago zure postua itxaroten eta zu baino eraginkorragoak izan daitezke*, gogoratu zion berandu iritsi zen azkenengoan.

Sukaldean, ohiturak gidatutako goizetan ez bezala, esku batekin kafe hotza behi alaien irudiak dituen katilura bota eta bestearekin, aldi berean, hamarretakoa prestatzen saiatzen da Iker. Ulergarri izan zitekeen bezala, kafeak sukaldearen gainazala beltzez margotzea eta hamarretakoa lurreko labezomorroei oparitzea besterik ez du lortzen.

Gehiagorik egin ezinean, kafeari kafeontzitik zuzenean zurrupada bat bota eta hamarretakorako sagar bat hartzen du mutilak, komunerako bidean.

*Laztana, lanpostu hau ez zaizu komeni, ez du merezi aztoratua bizitzea beti, gero ezer ez irabazteko*... amatxo maitea agertu zaio ispiluan islaturik. Ederto biziko litzateke bera gurasoen etxean dena prestatuta eta lanera joan beharrik gabe. Baina amak arrazoia eduki arren, aitak ere badu; bizitza bere kabuz bideratzen hasteko adina aspaldi gainditu zuen eta hori da heldu egiteak esan nahi duena, presaka bizitzea. Ikasketak bukatu eta lanpostu bat aurkitzerakoan espero zuena askatasuna zen, gurasoen menpean egoteari uztea, bere erabakiak berak bakarrik burutzea. Horren ordez, gurasoen aginduetara egotetik nagusiaren nahietara pasatu zen.

Haginak erdi garbituta, ispiluari musu bat ematen dio Ikerrek, amari emango liokeen bezala. Alkandora marradunaren botoiak asimetrikoki lotu eta zein jaka jantzi erabakitzeko astirik gabe etxeko giltzak hartu eta atea zanpateko batez ixten du. *Oraingo autobusa harrapatuko ote? Ordu erdiro bakarrik igarotzen dira*.

Berandu. Badaki behin atea itxita gidariak ez duela berriro irekiko. Oinez joatea jausi zaio gaur. Norbaitek ea begiz hartu ote duen pentsatzen duen bitartean lanerako bidera abiatzen da gaixoa, bere zoritxarra ezin sinisturik.

## II

Erlojua begiratu eta zortziak dira. Bere ondora begiratu eta Ainhoa lotan ikusten du Kepak. Berak ez du gau osoan

lorik egin, bart izandako liskarrak kolpatuta utzi baitzuen. Badirudi emaztea, ordea, jadanik egunerokoak diren liskarretara ohituta dagoela, lo lasai batean dabilelako. *Konponbiderik aurkituko al diogu gure arazoari?* Hasierako maitasuna itzali dela dirudi, baina barrenean badaki erru osoa mediku madarikatu horrena dela.

Altxatu, jantzi eta gosaltzera doala atzo gaueko liskarraren ondorioz afaldu gabe geratu ziren makarroiak ikusten ditu mahai gainean; duela urte beteko Pragarako bidaian elkarrekin erosi zuten mahai-oihala zikintzen ari direla. Gauzak zenbat aldatu diren ahaztu nahian kafea berotzen jarri eta lanerako paperak sailkatzeari ekin dio Kepak.

Badaki lanak denbora asko kentzen diola, agian bere erruz sentituko ote zen Ainhoa hain bakarrik? Beste gizon batekin geratzen ausartzeko oso bakarrik sentitu beharko zen. *Agian nire errua izan da...* kafeontzian kea dariola. Itzali, katilura isuri eta azukre gutxi botatzen dio, esnerik gabe, gizentzen ziola erabaki baitzuen aspaldi. Aldatu berri duten sukalde beltz, moderno eta teknologikoaren punta puntako 800 euroko plater-ikuzgailuan katilua sartu eta pentsatzen du Kepak, ea zer gertatuko zaion elkarrekin osatu duten bizitzari, dena banatuko al dute? *Bai, hozkailu erdia zuretzat, beste erdia niretzat*. Bihotz-bihotzez espero du berak gauzak berriro lehenengora bueltatzea, guztiz konpontzea ezinezkoa izango dela jakin arren.

Nekatuegi dago, gauzak patxadaz egiten ditu; baina ez presarik ez edukitzeagatik, indarrik ez izateagatik baizik. Ezkontzerakoan espero zuen bizitzako atal lasaiak besterik ez zitzaizkiola geratzen. Ezkondu, umeak izan, hezi, etxe-

tik nola joaten diren ikusi eta erretreta iristerakoan urtero hilabete batzuk Benidormen pasa. Horren ordez, orain ari zen bizitzako tarterik latzena pairatzen.

Aharrausika komunera doa Kepa, dutxa bat hartu beharko luke, esnatu zedin. Baina ez dauka gogorik, ez zaio inporta lanean lokarturik egotea gaur ez daukalako bilera askorik. Azkeneko astean lanegunak trantze moduko batean igaro dira, lorik ez du egin ia aste osoan eta bere eguneroko plana beti berdina izan da: lanera, bilerak, paperak, telefonoa, egun osoa horrela igaro eta bederatzietarako etxean berriz. Bere ametsetako bizitza zena errutina hutsa bihurtu da. Jarraitu behar.

*Autoko giltzak non ote? Ah bai, sarrerako mahaitxoan utzi nituen atzo*. Bere emazteari azkeneko begirada botatzen dio gizonak; lokarturik dago oraindik, edo lokartuarena egiten ari da berarekin ez hitz egitearren. Guztiz ulerkorra izango litzateke hori. Autoan sartu, motorra piztu egiten du eta irratia ere bai. Kautaren abesti bat jarri dute EITBn, *Mina duzu bizi:*

*Zure ametsak doaz laztan ezinekin ohearen gainean, mina duzu bizi...*

*Ardi galduaren antza hartzen duzularik, beldur amaigabeak gauero nagusi.*

## III

Erlojua begiratu eta zortziak dira oraindik. Gau osoa darama Josuk ospitalean lanean. Aste honetan gaueko txanda zuen, baina normalean bezala etxera 6etan joan

ordez gaur bere postua 4 orduz luzatu behar izan du, duela hilabete bat galdutako lau orduak berreskuratzeko.

Nekatuta dago jada, gau osoan lan gutxi egon da ospitaleko larrialdi sailean. Gaur, igandeko gaua eta astelehe-neko goiza izanik, ez dago mugimendu askorik

larrialdietan; gehienbat, gazte mozkorturik ez dagoelako. Horregatik, gauean izandako lanak betikoak izan dira: gurasoak kezkatuta dituzten ume txikiak, agure hipokondriakoak hilko direlakoan, afaltzeko janari hondatuak familia oso bati sortutako gastroenteritisak...

Hala ere, gau lasaiak gau aspergarriak dira Josurentzat. Jendeari lagundu nahi zioenez, ikasketak zalantzarik gabe erabaki zituen eta gogoz joaten da egunero lanera. Gainera, aspaldi honetan oraindik apeta handiagorekin janzten du amantala zuria, ospitaleko erizain batek txoratuta duelako. Hasieratik jo zuen berak begiz neska hura, xarmanta, liraina eta alaia. Ahal zuen bakoitzean kafesne bat hartzera gonbidatzen zuen, *beti esnerik gabe mesedez*, eskatzen zuen; horrek gizentzen zuelakoan. Horregatik ari zen orain 4 ordu horiek berreskuratzen, maiteminduta zuen emakume hori ikustearren bere lanpostutik lehenago irteten zelako.

Egia esatekotan, kostata konbentzitu zuen berarekin joateko. Hasieratik urrun mantentzen zen, baina horrek kutsu misteriotsu bat gehitu besterik ez zuen egiten. Zenbat eta misteriotsuago bihurtu, orduan eta gustukoago zuen neska hura.

Gaixo batekin dagoela, erizain bat etorri da bere bila:

*-Urrutia doktorea, dei bat duzu bulegoan, zure emazte ohia da.*

*Zer nahiko ote du?* Aurreko astean hitz egin zuten, semeari Gabonetako oparia berak erosiko ziola esateko, berak zer behar zuen bazekiela eta.

*-Bai, nor da?*

*-Kaixo Josu, Irune naiz, etxera deitu dizut baina ez zeunden han, horregatik deitu dizut horra.*

*-Bai egia, ordu batzuk bete behar nituen hemen. Zer nahi duzu, Irune?*

*-Atzo zure seme traketsak hemen ahaztu zuen bere eramangailua. Emango al diozu zuk zure etxetik pasatzen denean? Neuk eramango dizut ospitalera.*

*-Noski emango diodala. Gezurra dirudi jadanik bakarrik bizi denik, oraindik bere bizitza norbaitek kontrolatzea beharko du ala? Dena ahazten du.*

*-Oso lanpetuta dabil, uler ezazu* -ama beti jartzen da bere alde. *-Beno Josu, gero arte orduan. Mila esker.*

*-Gero arte bai, Irune.*

Gaixoarekin bueltatuta, behin kopetako zauria erizainak nola josi dion ikusita, etxera bidaltzen du 20 urteko gazte hura.

*-Nolakoak diren adin horretako gazteak, ezta?* -erizainak.

*-Bai, egia esanda 20 urterekin aztoratuta bizi izan gara denok. Nire semea bezala* -erantzuten dio Josuk.

Bat-batean bilagailuak zarata atera eta larrialdietara lehentasun handiagoko lan bat iritsi dela abisatzen dio, bere laguntza behar dutela. *Behingoz lan garrantzitsu bat, zer ondo!*

## IV

Kale berbera zuzen jarraitzen du Ikerrek, oinez joan ordez korrika joan beharko duela erabakiz. Nagusiaren aurpegia ikusten du bere bulegora joateko exijitzen. Bereak egin du. *Egin korrika Iker, ez ezazu utzi nagusiak pentsa dezan akats larriegiak egin dituzula.*

Zebra-bideak ziztu bizian igarotzen ditu, begiratu gabe ea autorik datorren. Hegaka dabil Iker, 8ak eta 5 dira, bost minututan iritsiz gero 10 minutuko atzerapena besterik ez du izango. Kaleko jendearekin talka egiten duen bakoitzean hauei barkamena eskatu eta aurrera jarraitzen du.

Bat-batean gertatzen da, bera ez da ezertaz ohartzen. Auto baten galgen soinua, klaxona, jendearen oihuak... eta dena beltza, lasaitasuna.

## V

Pentsatzen ari den bitartean zergatik jarriko ote dituzten beti identifikatuta sentiarazten zaituzten abestiak, horri bakarrik egiten dio kasu Kepak. *Gauero beldur amaigabeak nagusi...* Pentsamendu horietan murgildurik, ez

dio kasurik egiten bideari, ezta zebra-bidea begiratu gabe zeharkatzen ari den gazteari ere. Beranduegi antzematen du, klaxona jotzea alferrekoa da, gainean du jada gaztea. Autoak, hala ere, aurrera egiten du behin gaztea harrapatu ostean. Bere ibilgailua oso baxua da eta mutila automobilaren gainetik pasatu da gero lurrera eroriz. Berak aurrera egiten du oraindik pixka bat, ondoan dagoen eraikuntzaren hormaren aurka talka eginez.

## VI

Abiada batean iristen da Josu larrialdietako atera.

*-Zer dugu?*- galdetzen du.

*-Istripu bat, Urrutia doktorea* -erantzuten dio laguntzaile batek. -*Dirudienez,autoko gidaria lokartu egin da eta zebra-bidetik igarotzen ari zen gazte bat harrapatu du.*

*-Ongi da, har dezagun oinezko gaztea, larriago egongo da segur aski.*

*-Ez Josu, oinezkoa autoaren gainetik irristatu omen da lekukoen arabera*. -anbulantziako gidariak azaltzen dio oraingoan. Luis da, bere lagun onenetariko bat.- *Autoko gidaria da txartoen dagoena, eraikin baten aurka egin baitu talka. Utzioinezkoa beste mediku batek begira dezala, autoko gidariak zu behar zaitu, onena zara.*

Luisi kasu egin eta ondoko gelara sartzen da gidaria ikertzen hasteko. Oso txarto dago, Luisek arrazoia zuen, talkak traumatismo larri bat eragin dio buruan eta burmuineko entzimak aurpegitik agerian geratu dira. Taupada

azkarrak ditu, behintzat bihotza lanean ari da gorputza bizirik mantentzeko asmoz. Hala ere, horrelako burmuineko kalte batekin nekez berreskuratuko ditu istripuaren aurretik zituen gaitasunak.

Hezur apurtuak ere baditu, gehienetan gertatzen den modura. Sorbalda biak, eskuineko besoa eta ezkerreko hanka guztiz apurtuak ditu eta gorputzak jarrera irreala hartzen du kalte guzti horien ondorioz. Haragizko masa ulergaitz bat besterik ez dirudi.

Gutxi balitz, saihets-hezur batek urdaila zulatu egin dio eta horrek gaixoa operazio gelara sartzera behartzen ditu. Hori egin aurretik, badirudi bihotzeko taupadak lasaitzen ari zaizkiola, eta are gehiago, konortea berreskuratzen ari dela dirudi...

## VII

Arraro sentitzen da Kepa, oraindik ezin ditu begiak ireki, ezta ezer entzun ere. Ez du gorputza sentitzen, inoiz baino nekatuago dago. Saiatu egiten da begiak irekitzen, lehenengo dena lauso ikusten du baina pixkanaka gauzak argitzen ari dira. Orain gogoratzen du dena, istripu bat izan du, ospitalean dago.

Nekez mantentzen da esnaturik, oso nekatuta dago. Orduan ikusten du bera, hor dago, mediku madarikatu hori! Bere bizitza aspaldi honetan apurtu duen gizona, bere emaztearen bihotza lapurtu duena... Baina ezin du hitzik ere esan, nekatuta dago, begiak itxi egin behar ditu...

## VIII

Gaixoa galdu egin dute, itzali egin da, ezin izan dio bizitzari gehiago eutsi. Ez du ia astirik izan bera salbatzen saiatzeko. Nor ote zen? Norbaitek faltan botako al du?.

Isiltasuna dago gelan, gaixo baten galerak sortzen duen tristurak baldintzatuta.

Bihotzeko taupadek jadanik marra zuzena marrazten dute pantailan.

*-Abenduaren 12a, astelehena, 8ak eta 30 minutu dira* -Josuk gaixoaren heriotza egiaztatu behar du.

Beste gelako gaixoarekin zegoen erizain bat sartzen da orduan:

*-Urrutia doktorea, beste gelara etorri behar duzu, garrantzitsua da.*

*-Ongi da*, -erantzuten dio Josuk- *abisatuko diozue zuek gaixo honen familiari?* -eskatzen die Josuk bere gaixoarekin lagundu dioten erizaini, eta beste gelara abiatzen da.

*-Zer dugu hemen?* -galdetzen du gelara sartu bezain laster.

*-Zera... Josu, zure semea da* -erantzuten dio bere bila joan den erizainak.

*-Zer? Iker? Nola? Lanean egon beharko luke!* -larritu egiten da Josu.

*-Lasai, ondo dago, besoa apurtuta besterik ez du, orain laster esnatu beharko litzateke.* -Lasaitzen saiatzen dira.

Segituan abiatzen da Josu bere semearen albora, egiaztatzeko Iker ondo dagoela.

Egia dirudi, ezkerreko besoan kalte arin bat du, baina ezer ez larriagorik. Konortea laster berreskuratu beharko du, kolorea ere ona du.

Kanpoan, kaleko atetik jendea sartzen ari dela ikusten du Josuk. Laster etorri beharko da beste gaixoaren familiak, eta Ikerren ama ere bai, bere eramangailua ekartzeko geratu direlako. Zelako zortea izan duten beraiek, ez dutelako inor galdu. Baina gertu ibili dira, ezin duzu jakin noiz egokituko zaizun zuri.

# Alemaniarrak gurera etorri zirenekoak

Itziar Zabalegi Arrizubieta
Oianguren  institutua
Ordizia

# I

“Bixer be argittuko dau egunak” -dio nire logelako leihoa ireki eta lehen ikusten den hormako graffitiak. Egun batetik bestera azaldu zen, betazalak igurtzi eta, hara! Begiak zabaltzerako bertan egongo balitz bezala. Inork ez daki egilea nor den, ez eta, bide batez, Bermeoko kaleek zer ezkuta dezaketen ere… baina, bertan jaio garenok badakigu bai, dakigunez, baduela xarma berezi bat, kostako arrantzale herri txiki batek soilik eskain dezakeen xarma paregabea, kilikagarria. Esnatu eta, benetako itsasoa parez pare ikusi ezin dudan arren, graffitiaren irudi bikainak portuko kresalaren usainaz gozatzera gonbidatzen nau; begiekin usaintzen dudala esango nuke.

Nahiko iluna da, tristea, aurrean emakume goibel batzuk ditu arrantza-sareak josten eta hauen gizonak ur gazietatik noiz itzuliko direnaren esperoan daudela zin egingo nuke. Ez dakit, bada. Azkenaldian ez da nirera, behintzat, eguzki printzarik iristen. Lanez gainezka eta egunak daramatzat aitari zer gerta dakiokeen galdezka. Beldur naiz, nire aurreikuspenak beteko diren beldur. Laurogeita lau udaberri ikusi dituen arren, sasoi bete-betean izan da beti. Lanbidez

arotza zen baina orduak pasatzen zituen itsasoan. Hain zuen maite…

Ama joan zenetik, etxetik nahiko hurbil dugun itsasargi hutsera goizero joan eta bertan igarotzen zuen eguna kanabera xume baten punta noiz mugitzen hasiko irrikatan. Irakurtzea, bai, irakurtzea ere gustuko zuen eta idazle gisa, Mario Benedetti miresten zuen.

Irakurtzea gustuko zuen, Benedetti miresten zuen… zertan nabil? Hemen ondoan eserita dago eta! Baina ez, jada ez da lehengoa. Katalin ere konturatu da horretaz.

- A! Ama, goizean zutaz galdezka hots egin dau norbaitek -esan dit Katalinek iragarkien tartean.

- Eta? Nor zen ez al diozu ba galdetu?

- Aititek egin dau berba beragaz… ezta aitite?

- Emmm… zera… tira… ez naz akordeten. Neuk hartu al dot telefonoa? Ez zen oso garrantzitsua izengo… – Bota du algarak tartean. Baina begiek salatzen dute, bera ere jabetzen da azkenaldian beti horren harro azaltzen zuen memoria ezkutaketetan jolasten hasia duela.

- Ongi da aita, ez larritu. -Saiatu naiz lasaitzen.

San Juan gaua den honetan sargori dago eta logelako leihoa erdi zabalik dut. Gazteen zalapartak entzun ditzaket urrutian, gau polita izaten zen nire garaian ere, magikoa. Baina urteak aurrera doaz eta behinola galdu nituen nik parrandarako gogoak eta beste. Orain, gau izartsuari so eginez nostalgiaz bustiriko izarek gogoetara naramate, gauetan

bakardadea eta isiltasuna lagun dituzula soilik egin daitekeen gogoetara. Herenegun betaurrekoak bere txapin batean aurkitzeak edo arrantzara joan zen atzenekoan okindegian azaltzeak badu esanahi bat; lagun alemaniarra etorri da aitaren ganbarara bisitan eta ez dirudi joateko asmoa duenik.

## II

Erosketak egitetik autobusean bueltan natorrela, eta bonoa iraungi zaidala ikustean, arratsalde euritsu horretatik dagoeneko bospasei hilabete igaro direla ohartu naiz. Euritsua, leihoko ur tantek lurra jotzen zutenean bezala nik neuk ere lurra jo nuelako apika. Lan orduak murrizteko zortea izan dut geroztik eta bulegoan ez nagoenean aita parkera ateratzen dut gurpil-aulkian, txorien kantek asko lasaitzen baitute. Tarteka itsasargira ere eramaten dut, baina jada ez du ezagutu ere egiten. Bertako hotzaz bakarrik da kexu eta etxera bueltatu nahi izaten du sarritan.

Gabonetako argiak azkar jarri dituzte aurtengoan. Abendua hasi besterik ez da egin eta piztuta ez dauden arren zintzilik daude jadanik. Nabari da mende berrian sartzeko irrika, XX. mendeak ekarritako guda, gosete eta ezbehar orori bizkarra emateko desira. A, Bizkaiko Jaurerria kaleko klinikatik pasatzean gogoratu naiz aita eta neurologoaren datorren asteko hitzorduaz, ea zer dioen honek. Entzun behar dudana entzuteko prest nagoela uste dut. Ala ez. Tira, astebete daukazu, Eva, errealitatea behingoz onartzeko.

Etxera iristean Katalinekin egin dut topo ezkaratzean eta igogailuan aspaldi erreparatu ez nituen begi orlegiak triste ikusi ditut.

- Zelan juen jatzu eguna laztantxu? Kantseta zagozela emoten dau.

- Ikastola ama, badakizu aurtengo kursoa oso zaila dodala medikuntza egin gura badot. -Esan dit ahots finez.

Hirugarren solairua. Betikoa gaur ere, bizilagunen landareak ureztatu gabe eta ate pareko alfonbrak, zikinak. "Ongi etorri" batetik "Ong" soilik irakurri daiteke, lotsagarria. Eta hau gutxi balitz, argia, argi dezenterik ere ez; hirutik bonbilla bat fundituta. "Ene!" Etxe nahiko zaharra dela ezin ukatu eta berri bat erostekotan egon nintzela ere ez. Baina zera, etxe bat uztearekin batera bertako oroitzapenak atetik beste aldera geldituko direlakoan egin dut beti atzera pausua eta orain, behintzat, ez da horretarako garaia. Hementxe, 3B. Giltza sartu eta bat ere bueltarik ez izateak harritu nau.

- Zenbat bider esan bihotzut urteten zaren bakoitzien atea giltzagaz zarratute lagatzeko, Katalin?

- Bi buelta emon diodaz ama... ziur nau. Ez zan ba Karmen etorriko?

- Geur barikue da, martitzen eta eguenetan soilik etorten da -esan dut oso urduri.

Etxera sartu eta betiko legez egongelan ez zegoela ohartu naizenean benetan kezkatu naiz. Ez egongelan, ez logelan eta ezta komunean edo sukaldean ere.

- Joder... Nora juen ete da gizon hau orain?

- Lasai ama, bizilagunen bati galdetuko deutsat ea norbaitek ikusi dauen... ez zan urrunera juengo.

Korrika batean atera naiz etxetik. Eskumuturrean dudan aitak berak oparitutako erlojuak markatzen dituen hiru tiktak nahikoa dira okerrena imajinatzeko. Non ote da? Norekin? Ondo al dago? Mesedez ez dut amaiera txarrik nahi.

Parkean ez da. Meza ostean igandeetan joan ohi garen tabernan, Txintxarrin, ere ez. Auzokide batzuk bilaketan laguntzeko prest daude, benetan eskertzen diet. Haur bat galdu dela dirudi, edozein txokotan egon liteke hau ere. Katalin eta besteak bilaketan dihardute eta zurrumurrua zabaldu da dagoeneko herrian. Ni, bitartean, etxera noa telefonoz poliziari deitzera, ezin dugu denborarik galdu eta lehenbailehen ondoan nahi dut, behar dut.

Sukaldera sartzean sotoko giltzak falta direla konturatu naiz. Ez da ba…? Hara noa! Zuzen-zuzenean! Eskailerak ziztu-bizian jatsi eta ia-ia estropezu ere egin dut.

Hotz egiten du hemen behean eta hezetasun kiratsak edozein itoko luke. Argia piztu eta hara nor aurkituko parez pare etxeko bata jantzita izkina batean dardarka.

- Aita, zertan zabiz bada? Kezkatuta ginduzuzan! -esan diot haserre baina era berean besarkatuz.

- Kontuz Eva! Etor zaitez nire ondora eta ez berbarik esan nik babestuko zaitut. Alemaniar zikinak... euren etxean gera eitekezan! -xuxurlatu dit belarrira.

Haur galdu bat bere amaren besoetara iritsi bailitzan, bere esku hotz eta aldi berean sutsuek, nireak heldu eta estutu naute goxoki. Salbu dago, nago, gaude.

## III

“www.google.com” “Alzheimerdun gaixoen egoitzak Bizkaian”. Bai, atzo izan ginen medikuarenean. Aitaren gaixotasunak tinbrea jo du eta atea zeharkatzen utziko ez geniokeen arren pasatu egin da, aitak oroitzapenei agur esateko. Guztiak ahaztuko ditu azkar; Gernikan jaio zela, bere bost anai-arrebekin amari egiten zizkioten bihurrikeriak, bizikletan ibiltzea, mus partidak lagunekin, neska hari emandako lehenengo musua, jatea, hitz egitea… eta gehien ikaratzen nauena, ni neu nor naizen ahanztea.

Noizbehinka haurtzaroko eta nerabezaroko gertaerak izango dituela ahotan esan zuen medikuak; irudiak errealitatera ekarriko dituela, orainaldia hura dela pentsatuko duela. Orduantxe ulertu nuen zergatik aurkitu nuen pasa den astean sotoan, ilunpetan kikilduta. Hara, hemen, Gernikan bertan dago egoitzetako bat eta nahiko txukuna dirudi.

Ez dut inora eraman nahi, berak zaindu ninduen nik behar izan nuenean eta orain txanponaren beste aldean gaudela ez nuke horren azkar amore eman nahi. Baina medikuak diagnostikoa eman bezain laster esan dit atzera joango dela berriz ere haur bilakatu arte eta hobe dudala ni neu lasaiago egoteko ere zentro espezializatu batera eramatea. Bertan ere ikusiko dut, bisitatuko dut, maitatuko dut. Nik ez dut ahantziko, ez; aitzitik, zer edo zer egin beharrean

nago. Berari bizitza errazten ari natzaio baina era berean nirea ari naiz zabartzen eta Katalini ere ez diot kasu handirik egiten; nerabea da eta behar nau berak ere. Maiz pentsatzen dut etxeko nahasmen hau ahanzteko primeran etorriko litzaiokeela bere aita eta honen neskalagunarekin Madrilera egun batzuk pasatzera joatea baina honek ere ez ditu oso gustuko ez Markel ezta Patricia delako hori.

## IV

Egun on loti eder! Bart loak hartu zinduzala juen nintzan eta oraintxe esnatzen? Edarto batien bizi zara zu gero, gazteluko errege! -diot txantxetan. Egia da bai, lo egiteak on egiten dio eta begi-bistakoa da gaur pozez "zoratzen" dagoela, irribarrez begiratzen nau istorio bana ezkutatzen duten zimurren tartetik. Hemen dagoenetik ez dut sekula hain alai eta sendo ikusi. Nire urtebetetzea dela gogoratuko al du, bada?

- Maitia! Ezin dot sinetsi be egin… zenbat denpora zu ikusi barik! Zure falta sentitu dut… asko! Eskerrak Jaungoikoari etorri zaran! Hainbeste izengo dogu elkarri kontetako… -Besarkadak ia arnasarik gabe ere utzi nau. Indarrik ez duela galdu dirudi, burua ostera…

- Baine…

- Lasai kuttuna, batera gauz. Banekian itxaroteak mereziduko zebala, hemen zaitut, besoetan. Hirurogeita hamazazpi egunsenti gaurko honen zain. Eskerrak zure gutunei… beraiegaitik nago zuregaz, iluntasunean argi ziren. Eta zure begiak… zure begiak betikoak dira, eta ezpain goxoak… horiek berriz ere musukatzeko desirak mantendu nau zutik

azkenera arte. Askatasuna ostu zidaten, lau pareta hotz hareen artean gilzpetu, baina itxaropena bidezain luzean galdu izen dodanik ez pentsa.

- Aita…

- Aita, aita? Aita ondo zegoala zenioen idatzitako azkenean. Berba guztiak dekozaz ondo gordeta, azken hondar alea eroriko zanaren esperoan nik neuk egin neban zurezko kaxa gorrian. Zin egin, arren, neure alboan geldituko zarela eta ez garela barriz be bananduko, bizi ezin izen genduzan agurrik ez dela errepikauko.

Ezer gutxi ulertzen nuela Marie, erizaina, gelan sartu eta frantses azentu eztiz *Sintrom, Memantina, Aricept…* delakoak irentsarazi dizkio karameluak bailitzan. Bitartean, aitaren hitzak josten saiatu naiz. Amaz ari zela garbi dago baina, ze espetxe? Ze gutun? Zurezko kaxarik ba al da gurean?

Bermeora bidean autoan noala, 1936an hasitako amesgaiztoaz ari zela ohartu naiz ideiak lotuaz… gizagaixoa, beti ekidin izan du bizitako garai beltz horretaz hitz egitea eta orain berriz ere bueltan? *Alemaniarrak…*

Atzera begiratzeak gutxi balio izaten duela, zauriak irekitzea soilik dela, baina aurkituko dut kaxa kosta ahala kosta. Ez dut iraganik berreraikiko, aitzitik aitaren oroitzapenen *collage* bat egiteko premian sentitzen naiz gaurkoaren ostean.

## V

Patuaren gauzak, bizitzaren opariak. Bart, neguko arropak ateratzen nenbilela altxor bat topatu nuen etxeko garajean bertan piraten mapen X-rik agertzen ez bada ere. Bai, aitak zioen kaxa gorria eskuartean dut eta gosaltzeko kafea hozten ari zaidan bitartean arretaz erreparatzen dut. Pipiak jota dago eta nekez atzeman daiteke bihotz bat taparen goikaldean, ireki eta nirearen taupadak bizkortzen dira, kasik entzun ere egin ditzaket.

Barruan, hautsik ez da falta. Hareazko erloju bat eta zenbait gutun ezkutatzen ditu honek, "a-a-atxis!" (alergia madarikatua). Lehendabizi, erlojua hartu dut. Polita da oso. Beirazkoa ez dena egurrezkoa da eta kaxa baino hobe kontserbatuta dagoela esango nuke. Itxuragatik, ehun bat urte badituela dirudi. Buelta eman eta hondar aleak erortzen hasi dira pixkanaka. Ea zer dioten lumaz idatzitako eskutitzek…

*Dueso. 1937/05/14*

*Teresa maitea:*

*Barroteen bitartetik udaberriko loreen usainak itzartu nauela eta hemendik txoriak aitzen dodazela esan gura neuskizu.*

*Hemengoak, berriz, bestelakoak dira sano. Zenbat gure negar-anpulu, lau horma hotz, leihoko hiru barrote, zuretzako berba bi eta giltza bakarra, askatasun bakarra. Gauero, hamazazpi gaurkoagaz izango diranak, herriko zaratotsa eta minen katibu diran amets txarrak zapalduten daurie zeldako lurre, zanpatzen*

*nabe ni. Abioien zaratea, leherketeak eta tiro hotsak, begiradak lausotzen ke beroa, beldurre kaleetan, umeen gorputz erreak bide bazterrean eta ni, errezu artean, aterpe baten bile nabil. Egun bi geroago hemen ninduen, egia isilarazi gurean.*

*Zelan zeu? Zelan gauzek kanpoan, laztantxoa? Familie eta lagunek ...?*

*Ezinikusie eta maitasune odolean daroadaz, baina gorri banaz eta hau maitasunaren kolorea bada, ez dot etsiko eta hemen zutunik egongo naz; maite zaitudalako, maite dodalako Euskal Herrie.*

*Erantzungo deustazulakoan, muxu handi bet*

*Zeure Martin.*

*Bilbo. 1937/05/27*

*Martin kuttuntxue,*

*Bilbo ei da Euskal Herriko uririk seguruena; horrexegaitik etorri naz neba-arrebakaz hona. Zure sendiak be alboko auzoan ikusi dotez, ez zaitez ba artegatu. Sinistutea gatza egingo jatzun arren egoereak ez tau hobera ein hemen bez. Gose gorrien bizi gara. Oin dala hile bat pasau zanaren errudunek euskaldunok garala entzun leike, gu geu izin ginala herrieri sue emon geuntsonak! Halakorik esatea be!*

*Aitaren eta semearen ... "Ubillarteko" Benito eta bere andrea Ixabel hil euriezan zu eroan ostean pasau ziran frankistek... suertea badeku guk Martin, gogorreizu, atoan batuko gara ta.*

*Karteagaz batera amamak regalatu osten hareazko erlojue agindutentsut (...)*

*"Ring, ring, ring"* Moztu dit mugikorrak irakurketa; bide batez masailetik gutunetara zihoazen malkoak ere lehortu ditut musuzapiaz.

- Bai, nor da?

- Egunon, Eva Arrietagaz eiten al dot berba? -dio kablearen bestaldeko ahots lodi baina aldi berean goxo batek.

- Bai, neu naz.

- Bada, Ramon Iturralde nozu. Gogatu Zentrotik deitzen deutsut gurean dan Martin Arrietaren medikuak familiagaz kontaktuan ipinteko eskatu deuskulako; senideak lehenbailehen etor daitezan arren.

- O..ongi da, mila esker abiseteagaitik. Oraintxe izango naz bertan, gero arte. -diot erabat urduri.

- Gero arte bai, eta kontuz bidean Arrieta anderea... edurra eta izotzak ez dira autoen lagun.

Katalin iratzarri, Cachemirazko jertsea eta autoko giltzak azkar hartu eta biok gaude Gernikara bidean. Ez da hitzik autoan, isiltasuna, badakigu dei honek ez dakarrela ezer onik. Kanpoan, elurra ari du mara-mara eta zuriz jantzita daude mendiak. Irratian, Gatiburen *single* berria entzun daiteke *...bizixek ihes egin eutsun, urrundu egin zinen eta orain zutunik nago...* Zozo beltz batek moztu du zuritasuna begi-aurrean, hotz izango da hori ere ziur aski.

Aitaren bisaia zurbil dago, hura ere elurra bailitzan. Seruma du “zerutik” zintzilik eta makina baten *pi, pi, pi, pi,* … errepikakorrak min egiten du. Arren, ez dadila gelditu. Katalin bere eskuman eseri da eta ni ezkerraldean. Begiak itxita ditu, ametsetan dabilela esango luke edonork bere irribarrearen kinada ikusiz, baina ez, nik badakit sentitzen gaituela, bere bi printzesak alboan ditu.

Medikuak bakarrik utzi gaitu. Agur esateko unea iritsi dela dirudi.

- Aitite… entzuten zagozala badakit, Katta nozu. Bidaiari ekiteko prest zauzela diote… Nora ete? Hurrinera ez, seguru aski. Eskerrak emon bihotzudaz orain eta hemen... Joan zaitez harro zoazen tokira zoazela, gu hemen geratuko gara zure izena behin eta barriz errepiketeko... aita parebakoa izen za niretako be. Asko maite zaitugu, maiteko zaitugu. -Eskutik heldu du, negar zotinka.

- Aita parebakoa, hortxe berba bikainak zuretzat aitatxu. Gogoratzen tximeletak harrapeten genituenean? Sei urte eskas nebazan eta ez neban honeen hegaldia ulerten. Hegoak astindu eta zerurantz joaten zirala zinoan, libre zirala, aske. Zure garaia da, emon gogor eta ukitu izerrak behatz puntekin, eta bidean galtzen bazara lasai, gu beheran egongo gara zuri besoa luzateko, zu izen zinan lez. Mila esker gugaitik emon dozun guztiagaitik, berbaz esplika ezina, baina maitetasunez ordaindua.

- …

Ez du hitzik esan, baina hasperen ttipi bat egin ostean irri egin du. Prest da, maleta egin du eta amarekin bizitzera doa.

- Zin dagizut barriz be alkartuko garela, aita. -Muxu eman eta burua bere bularrean jarri diot, bihotzean.

*Pum*. Azkena. Adiorik beroena izan du. Heriotza, hotza. Kanpoan, elurra mara-mara eta zozo bat leihoan pausatu da. Gida ezazu, zurian puntu beltz zaren horrek, ez zaitzala galdu.

Katalinen besarkadak babesten nau.

Negua da, baina egun luzea gaurkoa. Etxera iritsi eta isiltasuna da nagusi orain ere, heriotza batek soilik utz dezakeen isiltasun mikatza. Azukre pixka bat, txokolate bero bat prestatu eta berehala amaren gutunaren irakurketarekin jarraitzeari ekin diot.

*(...). Honek esaten ebanez azkeneko hondar garaue jausiten danean zure desiotxoa beteten da. Bakizu zein dan nirea, gurea.*

*Behotsut,*

*Teresi.*

Elkarrekin daude.

# Ilunabarreko hitzak

Nerea Gil Kortabarria
Txantxiku ikastola
Oñati

Muturra luze jarrita nindoan autoan, leiho txikitik begira, basoak atzean utzi eta kosta aldeko inguruei erreparatuz. Ez zegoen eskubiderik. Udako plan guztiak pikutara! Aurtengoak perfektua izan behar zuen: koadrilarekin inguruko herri guztietako jaietara animatu, pixka bat ligatu, mozkor-mozkortuta bukatu, gaupasa ugari egin… Eta orain, zer?! Nire ezkerretara begiratu eta Alaine ikusi nuen, aurikularrak belarrian jarrita, musikaren bolumenak tinpanoa apurtzen ziolarik. Dantzan, pozik. Nazkantea! Zergatik? Zergatik ez nintzen ni izan lehenengo jaio zena? Zergatik egin behar zioten gurasoek beti berari kasu?

Alainek idaztea atsegin zuen, edozein lekutan, edozein unetan. Istorio laburrak ziren bere pasioa, egunero bizirik jarraitzera bultzatzen zutenak. Egun batean, eta nire zoritxarrerako, bere idazle gogokoenaren jaioterriari buruz hitz egin zioten, Zunigari buruz, kostaldeko herritxo txiki bat. Alaine, guztiz txoraturik, inspirazio bila zihoan Zunigara. Eta berarekin, aita, ama eta ni! Ezin nuen gehiago…

- Zer? -galdetu zidan, nire begirada zorrotza axolagabetuz.

- Gorroto haut -esan nion, sinple.

- Tontoa haiz, Luken. Lagunekin mozkortzeko izango duk astia. Orain mundua ikusi behar duk!

Nazka aurpegia jarri eta leihoko bistetara itzuli nintzen. Gurasoek ez ziguten entzuten: txundituta zeuden parajeei begira. Itsasoko olatuen hotsa zen nagusi giroan, eguzki distiratsuak kolore paregabea ematen zien metro batzuetara ikusten genituen herrixkako etxeetako teilatuei. Herri barrura sartzean, kale zaharretan barrena murgildu ginen, hainbat dendatxoren artean. Alainek aurikularrak kendu zituen eta ahozabalik begiratzen zuen kanpora. Egia zen polita zela, baina…

- Hemen ez dago tabernarik -esan nuen sorbaldak jasoz.

Hilabete horretan gure etxea izango zenera iritsi ginen orduan. Alaineren burugogorkeriari aurre egin ezinik gurasoek interneten bilatu zuten etxetxo bat zen, hondartzatik gertu. Hori atsegin nuen. Ilunabarra zenez, afaldu eta hondartzara irten nintzen buelta bat ematera, aita, ama eta arreba herria ikustera joan ziren bitartean.

Zapatilak kendu eta eskuetan hartuz, pauso azkarren bidez, ur ertzera heldu nintzen. Parean neukan ilargi erraldoiari begiratu nion, borobil eta distiratsu. Nire lagunak zertan egongo ote ziren pentsatze hutsak gaixorik jartzen ninduen. Begiak ixtea bururatu zitzaidan, beraz. Begiak itxi eta olatuen hotsarekin gozatu. Olatuen hotsarekin gozatu eta arnasa sakon hartu. Behin. Bitan. Hirutan… Betazalak zabaltzean lasaiago sentitzen nintzen, gustura. Baina lasaitasun horrek azkar egin zuen ihes itzal beltz bat ikusi nuenean. Ilargiaren argia besterik lagun ez nuela sumatu

nuen mugimendu arin hori harkaitzetara zuzentzen zela. Zalantzan egon nintzen segundo batzuez. Hala ere, nire arimaren ganbaran aspaldian lotan zegoen mutiko bihurri eta kuxkuxeroa esnatu eta bertara abiatu nintzen. Harkaitzetara hurbiltzen nindoan heinean zarata batzuk entzun nituen bertan, izaki misteriotsuaren hotsak. Honek bihotzeko taupadak dantzan jarri zizkidan. Gehiago gerturatu nahi nuen, baina ez nintzen ausartzen. Eskua harri hotzaren gainean pausatu eta, ordura arte niretzat ezezaguna zen ausardi inpultso batean, aurrerantz salto egin nuen… Eta norbaitekin txoke egin nuen.

- Zertan ari zara?! -galdetu zidan ahots garbi eta ozen batek.

Begirada altxatu nuen eta bertan aurkitu nituen begiek odola izoztu zidaten. Zeru oskarbiaren koloreko begi handi eta zorrotzak. Goitik behera begiratu nuen neska, analisi azkar bat eginez. Ile motxa zuen, makillajez jositako aurpegi ederra, ezpain gorri mamitsuak, sudurrean piercinga eta belarriak ere belarritakoz josiak. Soineko beltz bat zuen soinean, bere gorputz liraina agerian uzten zuena. Soinekoa eta bota beltz, handi, zahar…?

- Zer? Ez al duzu sekula neska bat bota militarrekin ikusi, edo? Mozoloa… -esan zuen mugimendu zakar bat eginez. Urruntzen hasi zen.

- Barkatu, ni… -hasi nintzen -Luken naiz.

- Ba, zorionak.

- Hori da umorea hori, neska! -esan nion bere atzetik nindoala.

- Zer… zer zabiltza?! Ez jarraitu! Utikan, turista nazkante…

Eta lehen aldiz aurpegira begiratu zidan zuzenean. Ederra zen, gero. Isilik geratu ginen une batez, bata bestearen begiradan murgilduta. Baina berak buelta eman eta korrika alde egin zuen iluntasunera ni ohartu aurretik.

Aluzinazioa ote zen? Benetakoa al zen neska hura? Bazuen zerbait oso espeziala… Umore txarra kontuan hartu gabe! Jesus. Berezia zen. Desberdina. Gorritzen hasi nintzela igarri nuen. Bakarrik nengoen, baina! Burua astinduz abiatu nintzen etxera neu ere. Ez zen gainontzekoen arrastorik oraindik. Nik ez nuen inoren beharrik, dena den. Garbi usaia zeukaten izara horietan sartu eta neskaren begi magikoekin egin nuen amets. Eta amets horrek nire bihotz txikiaren taupadak kontrolatzen zuen, txotxongiloa bailitzan. Aurretik izoztutako odola laba pozoitsu bat bihurtu zen nire azalpean, irakiten, noraezean. Detaile guztiak nituen nire burmuineko armiarma sarean harrapaturik, baina datu bat falta zitzaidan: neskaren izena. Nola edo hala jakin behar nuen. Eta jakiteko modua aurkitzeko asmotan esnatuko nintzen ordutik aurrera nor zen ezagutu arte.

Egunak joan eta egunak etorri herrixkan bueltaka ibili nintzen neska kaskamotzaren bila, guzti-guztia alperrik. Mamua bailitzan desagertu zen nire begien bistatik. Ez nire bihotzetik, ordea. Banekien erreala zela, zerbait oso sakona eta indartsua sentitzen bainuen berarengatik. Gorputzeko atal guztiak lotuta daudela esaten duten arren, nire buruak ez zuen nire bihotza ulertzen: ez nuen ezagutzen. Nola da posible ezagutzen ez duzun pertsona batekin mai-

teminduta egotea? Maiteminduta… Bai. Agian. Ez. Ez nekien…

Alainek lagun batzuk ekarri zituen etxera egun batean. Herritarrak zirela esan zidatenean ez nuen pentsatzeko astirik ere izan:

- Ile motza duen neska bat ikusi nuen etorri ginenean, arraro samar jantzita, oso makillatuta… ezagutzen al duzue? -galdetu nuen nire bizia jokoan egongo balitz bezala.

- Ilehoria al zen? -esan zuen Marenek. Nik baietz egin nion buruarekin- Bai… Ilia da- erantzun zidan, muturra okertuz.

- Nahiko arraroa da, egia esan -jarraitu zuen Danelek-. Oso neska jatorra zen lehen, orain dela pare bat urtera arte. Orduan guztiz aldatu zen: janzteko estiloa aldatu zuen, begiak beltzez margotzen hasi zen, piercingak jarri zituen, ilea moztu zuen… Ez dakigu zer gertatu zitzaion. Baina, batez ere, ezatsegina bihurtu zen. Kalera irteteari utzi zion eta galduta dabil, nonbait.

Segituan hasi ziren beste zerbaiten inguruan hitz egiten, esan zuten hitz gutxi haiei garrantzirik eman gabe. Koadrila horrek ez zekien niri zenbateko kuriositatea piztu zitzaidan istorio hori entzutean. Zergatik? Zergatik aldatu zen horrenbeste Ilia? Ilia… aurpegi paregabe horrek izena zuen, azkenean. Bere izenaren oihartzuna nire burmuineko paretetan kolpeka ari zen, bueltaka, burukomin ikaragarria emanez. Ezin nion inori berarengatik sentitzen nuena kontatu, ez horixe! Nire sekretua zen… Gure sekretua. Berak oraindik ez zekien arren… Edo bai? Hondartzako azken

begirada hura ez zitzaidan sekula ahaztuko. Berak berdina sentituko ote zuen planteatzen nuen bakoitzean arnasestuka hasten nintzen, taupaden erritmora korrika joango banintz bezala. Nola jakin hori egia ote zen, ordea?

- Luken! -egin zidan garrasi Alainek, ametsen munduko atea itxiz- Gaueko hondartzako festara etorriko al haiz, orduan?

Ederki! Gauean, hondartzan… noski! Tontoa nintzen, gero. Hondartzan eta gauean ikusi banuen Ilia lehen aldiz, nolatan ez zitzaidan bururatu berdina egitea berriz ere? Festa aitzakia ezin hobea zen. Bertan ikustea espero nuen… Eta esan egingo nion. Bai. Ez nion esango maiteminduta nengoenik, baina, agian, egunen batean, akaso, buelta bat ematera ateratzeko eskatuko nion…

Festa jendez josia zegoen. Ez nekien horrenbeste gazte zegoenik Zunigan! Musika, edariak, giroa… Ilia besterik ez zen falta. Ez zen ageri, ordea. Harkaitzetara begira egon nintzen urteak iruditzen zitzaizkidan minutu luzeetan, eta ezer ez. Itzal beltz bat igarri nuen arte. Korrika irten nintzen festatik, bertara zuzenduz. Geroz eta urduriago sentitzen nintzen harkaitzak handiagoak eta handiagoak egiten ziren heinean. Bere bota erraldoien aztarnak jarraituz bertan ikusi nuen, lurrean makurtuta, kobazulo txiki moduko baten erdian. Nire presentzia nabaritu eta burua bortizki jiratu zuen. Zutitu eta azkar zuzendu zen niregana. Gogorki bultzatu ninduen.

- Zu berriz ere?! Alde hemendik! Ez al duzu ikusten ez dudala zurekin harremanik nahi?

Bere hitzak nire sabelean sartzen ziren labain zorrotzak ziren. Ez nuen ulertzen. Banekien, esan zidaten ez zela oso atsegina, baina hori?

- Aizu, Ilia zara, ezta? -esan nion.

- Nola…? Aaaag…! -bere baitan eman zuen buelta. Begi horiek. Ezpain gorriak. Bota handiak. Dena nuen gustuko, dena. Berak ni ez, antza- Utzi bakean.

Berriz egin zuen ihes. Berriz! Motela edo nintzela pentsatzen hasia nintzen aurretik makurtuta ikusi nuen tokira gerturatu nintzen arte. Hondarra mugituta zegoen. Bertan pausatu nituen nire behatzak, bere behatzen marken gainean. Eskua mugitzen hasi nintzen… Zerbaitekin egin nuen topo. Behatzak hondarretan murgildu eta zerbait atera nuen. Paperezko mezu bat? Zinta batekin batutako paper arrosa bat zen. Mezua ireki nuen. *Ez dut berriz ikusi. Non zabiltza? Berriz ikusiko banu… ez dakit zer egingo nukeen*. Hitz haiek irakurtzean, kaligrafia paregabe horretan maisuki idatziak, eskua dardarka nuela konturatu nintzen. Ni ote nintzen berriz ikustea nahi zuen hori? Besteren bat? Beste zerbait ere bazegoen idatzia, zertxobait beheragо: *Berriz harrapatu nau. Ez nau bakean utziko oraingoan. Indartsuegia da niretzat*. Zer? Nor zen hori? Norbait min egiten ari zitzaion. Barruak gori-gori nituen, haserre bizian. Beste mezu bat aurkitu nuen, berde koloreko paper batean. *Amak eta biok tarta goxo-goxo bat egin dugu gaur. Maite dut*. Lerro batzuk beherago *"Ezin dut gehiago. Sufrimendu honekin bukatu nahi dut"*. Mezu gehiago aurkitu nituen, guztiak kolore desberdinetako paperekin, baina jada azkeneko hitzak besterik ez nituen irakurtzen. *Burukomina jasanezina da, zaplateko ikara-*

*garria izan da gaurkoa. Oheari lotuta eduki nau egun osoan.*

Mezuak patrikan sartuz ziztu bizian irten nintzen bertatik, bota militarren arrastoa jarraituz. Hondartzatik irtetean ez nekien norantz jarraitu neskatxa bat urrunean ikusi nuen arte. Munstro bat nuen barruan, esnatzen ari zen munstro bat. Egia saihestezina zen: Iliak tratu txarrak jasaten zituen. Eta nik lagundu egin behar nion.

Bere etxera inguratzen hasia nintzen, beti ere bere atzetik arineketan. Nire gorputza arima baino motelago zihoan. Pauso bakoitza geroz eta astunagoa zen eta helmuga urruti ikusten nuen beti. Azkar. Azkar. Gutxi falta zen. Gutxiago. Hortxe zegoen. Bertan…

- Ilia!!!

Nire ahots kordak zarata beldurgarri bat egin zuten, itogarria, latza. Berak atzera begiratu eta nigana hurbildu zen, haserre.

- Esan dizut bakean uzteko, ez al duzu…?

Paperak erakutsi nizkion momentuan isildu zen. Mugimendu arin batekin kendu zizkidan eskuetatik. Bi itsaso urdin haietatik errekak irtetear zeuden. Ezpain gorriak astiro zabaldu zitzaizkion.

- Non aurkitu dituzu? Zergatik irakurri dituzu? Ez dira zureak! Nor zarela uste duzu…?

Bere negar hotsak izoztuta utzi ninduen. Nire erruz ari zen negarrez eta ezin nuen jasan. Barkamena eskatu nahi

izan nion baina eskutik gogor heldu eta bere etxera sartu ninduen. Nik dena oso azkar gertatzen ari zela besterik ez nuen ikusten, ezer ulertu gabe. Bere logela izango zela ondorioztatu nuen gela batera eraman ninduen eta ohe gainean etzan zen.

- Badakit… badakit zer gertatzen zaizun -esan nion eskutik helduz, ausart.

Berak beldurrez begiratu zidan, traumatizatuta. Buruarekin ezetz egiten zuen. Ezetz eta ezetz.

- Nor da zuri min egiten ari dena? Nor, Ilia? -esaten nion behin eta berriz. Berak ezetz eta ezetz.

- Ez… oker zabiltza, Luken.

Luken… Nire izena. Kontuan hartzen ninduen, beraz. Ni nintzen mezuko pertsona, berriz ikusi nahi zuena.

- Zer gertatzen zaizu? Esadazu!

- Ez! Ezin dizut esan! Ez al duzu ulertzen? Ez diot inori minik egin nahi… Inori. Eta zuri, gutxiago.

Eskua gogor heldu zidan. Ezin nuen ezer ulertu eta bonba nuklear bat bezala erori zitzaidan guztia gainera. Kutsatuta nengoen. Ezin nuen errealitatea ikusi. Saiatu eta ezin. Ezin…

- Zin egin behar didazu. Mesedez. Zin egin ez diozula mezuena inori kontatuko. Inori! Luken… inori.

- Nori kontatuko diot, bada? Inori. Inori…

Bere gurasoak heldu ziren orduan. Iliak joateko eskatu zidan. Leihotik behera salto eginez gero ez zitzaidala ezer gertatuko esan zidan, ez zegoela horren altu. Bertan nengoelarik, aurpegia heldu zidan.

- Zergatik arduratzen zara nitaz? -galdetu zidan, tinko, galduta.

“Maite zaitudalako”. Nire ahots kordak ez zuten hotsik atera, ordea. Hala ere, ez zela beharrezkoa izan uste dut. Masailean muxu txiki bat eman zidan eta salto egin nuen, lurrera gogor eroriz. Ez nuen minik hartu. Ez min fisikoa, behintzat. Barruak ziren guztiz urratuak nituenak.

Hondartzara joaten nintzen egunero eta aldiko mezu bat irakurtzen nuen. Denbora pasa ahala, bere pentsamendu guztiak bertan idazten zituela konturatu nintzen. Eguneroko bat bezalakoa zen hura, hondartzak berak babesten zuen egunerokoa. Edozein giltzak baino hobeto. Mezu berri bat zabaltzen nuen bakoitzeko Ilia biluzten nuela iruditzen zitzaidan, nire kontuak ez zirela eta ez irakurtzeko eskatu baitzidan. Baina nahastuta nengoen eta egin beharreko zerbait zela uste nuen. Bere mezuei begiratuz, norbaitek min egiten ziola ulertu nuen. Hala eta guztiz ere, bera zen minik egin nahi ez zuena. Zentzurik gabeko hieroglifiko arraro bati begira nengoela zirudien, sekula asmatuko ez nuen hieroglifiko bat. Bakarrik, behintzat, ez nuen asmatuko. Eta Ilia guztiz desagertuta zegoen. Batzutan bere etxera inguratzen nintzen eta bere logelako leihora begira pasatzen nituen orduak. Gure bihotzak banandu zituen leiho berbera. Salto egin izan ez banu, berarekin egongo nintzen. Betiko. Behin negarrez aurkitu nintzen, malkoak zerk eragiten zituen zehazki jakin gabe.

Mezu haiek bereziak ziren. Barrutik jaten nindutenak. Eta asko niri buruzkoak ziren, nire izena ere agertzen zen batzuetan. *Lukenekin egin dut ametsetan berriro… Noiz ikusiko dut hurrena?*. Pixka bat beherago *nire azkena iritsiko da nik ezer egin ahal izan gabe*. Ez nituen azken hitzak sekula ulertzen. Hura tratu txarren egoera bat ez bazen, zer zen? Amaitu gabeko labirinto batean bizi nintzela pentsatzen nuen. Eta bertatik irteteko gakoa aurkitu nahi nuen arren, ez nuen inon ere ikusten. Iliarekin hitz egin behar nuen. Nola edo hala.

Egunsenti eta ilunabar anitz ikusi nituen Iliarekin berriz hitz egiteko aukera izan nuen arte. Etengabe nire sorbalden gainean sentitzen nuen pisuak geroz eta gehiago hondoratu nahi ninduela zirudien, nire desesperantza itogarrian hondoratzea. Bere logelako leihotik ikusi ninduen betiko lez bere seinale edo antzeko bati itxaroten ari nintzela. Gerturatu zenean harkaitzetara eraman ninduen, oraindik guztiz ilundu ez zuen arren. Bertan eseri eta orduak eta orduak eman genituen elkar ezagutzen. Zein berezia, ezta? Jada ezagunak ginela ematen bazuen ere ez genekien ezer ere batak besteari buruz. Benetan oso interesgarria zen. Eta ederra. Eta bakarra. Eta nire pentsamendu eta ekintza guztien jabea. Mezu ezkutuen gaia ekiditu genuen gehienetan. Ez zuen horri buruz hitz egin nahi eta nik errespetatu egiten nuen. Errespetatu, bai, jada inork ere jotzen ez zuela aitortu baitzidan, inork ez zuela gaizki tratatzen. Bera zen arazoa, antza.

- Hondartzan bizi nahiko nuke, badakizu? -esan zidan behin- Asko lasaitzen nau. Hemen… libre naiz. Guztia perfektua da -begiak itxi zituen-. Olatuen hotsa, itsasoko usaia, hondar epelaren sentsazioa… Zu.

Konturatu orduko bere ezpainak nireen kontra zeuden. Korapilo erraldoi bat sortu zitzaidan eztarrian, baina bere muxuek askatzea lortu zuten. Bere eguneroko sekretuaren gainean geundelarik lurperatutako hitz guztiak gure inguruan jiraka hasi ziren bat-batean, jada ezerk ez baitzuen axola. Begirada, laztan, ukitu bakoitzean bihotza gelditzen zitzaidan. Ez honen taupadek hotsik ateratzen ez zutelako, baizik eta denbora gelditzen zelako. Berdin zitzaizkidan belarritako, arropak eta makillajea: nik bera maite nuen, Ilia, Zunigara heldu nintzen lehen egunean begi sutsuekin begiratu ninduen hura. Aurpegi zimurtuak eta ile zuri-zuria izan arte geldituko ginen bertan. Ilia eta biok. Batera.

Baina ez nuen gehiago ikusi. Desagertu egin zen, aurretik desagertu zen bezala. Mamu trakets bat bailitzan, bere aztarnak edonon aurki nitzakeen: bere oinetakoen markak, mezu berriak… Jasanezina bihurtu zen niretzat. Ezin nuen guztiarekin. Ez nuen ezertxo ere ulertzen! Agertu, desagertu, agertu, desagertu… Zertan zebilen? Nirekin jolasean? Ezin ninduen bere panpintzat hartu! Zer uste zuen…! Hala ere, bere hitzekin gogoratzean, haserre guztia baretzen zitzaidan. Ez, ez nengoen haserre, arduratuta baizik. Beste hainbat egun eman nituen hondartzatik bueltaka, baita gauean ere, harkaitz ondoan itxaroten. Ez zen agertu, ordea. Esperantza nuen, korrika agertuko zen esperantza, nire besoetara gogotsu etorri eta laztan luze eta sutsu bat emango zidan esperantza. Alainek nire azala gogortuko zuen kaleko zurrumurru bat kontatu zidan arte.

- Galdetu huen, bada, neska kaskamotz hori nor zuan? Ospitalean larri omen zegok…

- Zer?! -esan nion larriturik.

Nire arnasa besterik ez nuen entzuten. Guztia ilundu zen nire inguruan, ez zegoen argi izpi txikiena ere sartzen utziko zuen zirrikiturik. Hotz nintzen. Botagura nuen. Nire bihotzak ez zuen erreakzionatzen. Izerdi tanta bat nire aurpegian behera zetorrela konturatu nintzen… baina malko bat zen.

- Minbizia omen du…

Korrika abiatu nintzen herriko ospitalera. Ilia ikustea besterik ez nuen nahi, eskutik heltzea, guztia ondo egongo zela esatea. Presio izugarri bat nabari nuen bularrean, aurrerantz egiten uzten ez zidana. Buru-belarri ari nintzen borrokan. Jendartean sartu nintzen. Bultzakadak eman nituen. Garrasi egin zidaten. Garrasi egin nuen.

Ilia ospitaleko ohe batean aurkitzen zen, makina ustelek bere arima xurgatzen zutelarik, apurka-apurka. Esna zegoen. Noiz arte, ordea? Galduko nuela pentsatze hutsak hotzikara latzak sortzen zizkidan. Bere gurasoei lagun bat nintzela esan eta bakarrik utzi gintuzten gelan. Lotsatuta zegoela zirudien. Makillajerik gabe. Belarritakorik gabe. Arropa punkirik gabe. Begi urdin-urdinez, niri begira. Bere hitzak orratz zorrotzak izango balira bezala sartu zitzaizkidan azalean.

- Luken… sentitzen dut. Lehenago esan behar nizun, baina… ezin nuen. -Arnasa sakon hartu zuen jarraitu aurretik- Ulertzen al duzu orain? Ulertzen al duzu nor den niri min egiten ari dena? Hau… hau da… Eta ezin dut ezer egin hau gelditzeko. Ezin dut… -Negar malko potoloak erortzen zitzaizkion matrailetan barrena. Berarengana hurreratu eta eskutik heldu nion. -Ni… horregatik aldatu nin-

tzen. Ile motza gustatzen zaidala uste al duzu? Ez. Eta… arropa horiek? Belarritakoak… Dena, dena dut gorroto. Baina ilea eroriko zait, Luken… eta, aldez aurretik, nik moztu nuen. Jendeak… jendeak ezin zuen jakin. Bestela… hau herri txikia da eta, barruko honek hil aurretik, beraien begirada zorrotzek hilko ninduten. Ezin nuen hori jasan, eta, horrelakoa bihurtu nintzen. -Muxu eman nion eskuan- Zergatik uste duzu horren gaizki hitz egin nizula lehenengo aldiz elkar aurkitu genuenean? Zergatik… zergatik uste duzu ez naizela atsegina jendearekin? -Eskua estutu zidan, indarrez- Inork ni faltan botatzerik ez dudalako nahi da, Luken.

- Ez esan tontakeriarik, Ilia -esan nion nik, kontatu zidan guztia barneratzen nuen bitartean. Belaunak dardarka nituen eta ahots kordak ez zidaten erantzuten- Hemendik irteten zarenean hondartzara joango gara, eta, badakizu zer? Etxetxo bat egingo dugu, biontzat! Bertan pasatuko dugu uda guztia. Uda eta bizi guztia. Hondartzan. Zuk eta nik.

- Zer polita, baina… Luken. Hondartzako mezuak… nire pentsamenduak dira. Ezin nizkionak inori azaldu. Ezin nizun maite zintudala esan… Paper kolore bakoitzak bere esanahia du.

Eta kontatu zidan, egun hartan eta hurrengo egunetan, kolore bakoitzaren esanahia. Arrosa “maitasuna” zen, laranja “aita”, gorria “ama”, urdina “hondartza”, morea “barregura”, horia “egunerokotasuna”, berdea “esperantza”… eta beste hainbat kolore. Gai horien inguruan idazten omen zuen kolore haietan. Guztiak batuz gero, esan zidan, bere azken urteetako bizitza irakur zezakeen batek.

- Zuk… oraintxe bertan, ba al dakizu zein kolore duzun? -galdetu zidan behin.- Gardena. Ez baitut sekula zu bezain pertsona zintzo eta leialik ezagutu.

Nire barneak lainotuta sentitzen nituelarik, berarengana hurbildu eta muxu eman nion. Sekula esan didaten gauzarik politena izan zen hura.

Egun batean kristalezko bi ontzi ekarri nizkion: bata itsasoko urez eta bestea hondarrez betea.

- Gure hondartzako etxetxoan zaudela pentsa dezazun da -esan nion.

Urak itsasoko usaia ekartzen zuen ospitaleko gela triste eta ilunera eta Ilia oso gustura ibiltzen zen atzamarrak hondarrean sartuta, begiak itxita, pozik.

Nire bizitzako momenturik latzenak pasatu nituen gela hartan, nik maite nuen pertsona makina nazkagarri haiei itsatsita zegoelarik. Baina, momenturik latzenak izan ziren moduan, momenturik alaienak ere izan zirela esan dezaket. Ez bainuen ezerengatik aldatuko Ilia hondartzan aurkitu nuen gau hura. Ezerengatik.

Goiz eguzkitsu batean Iliaren gurasoak negarrez aurkitu nituen bere gelan. Bera ez zegoela konturatzea kostatu egin zitzaidan, nire burmuinak ezin baitzuen prozesatu horren esanahia. Ekaitz izugarri handi batek harrapatu ninduen eta kaiola baten barruan nengoen, ihes egin ezinik. Zorabiatzen hasi nintzen, ia-ia lurrera erori arte. Ezin nintzen errekuperatu… ezin nuen. Ezin nuen.

Bere gelan sartu eta kristalezko ontziei begira gelditu nintzen. Hondarra. Hondarra! Hondarrean begira hasi nintzen urduri eta bertan zegoen, nik nahi nuena, espero nuena, banekiena: niretako azken mezu bat. *Kolore gardeneko paperik aurkitu ez dudanez, kolore guztiak uzten dizkizut hemen. Betiko izango nauzu gure hondartzako etxetxoan zain. Edozein momentutarako. Edozer gauzatarako. Nire mezu guztiak zuretzat dira. Maite zaitut. Ilia.* Une batez bere ahots goxoa sentitu nuen nire lepoan. Maite zaitut. Maite zaitut. Maite zaitut. Maite zaitut…

Alaine haserre doa etxera, ez baitu inspiraziorik aurkitu Zunigan, berak espero zuen bezala. Ni… Beno. Nirea jada ez da sekretua. Iliaren heriotza mingarriaren ostean guztiak konturatu ziren gure artekoaz. Autora sartu eta martxan jartzean azken begirada ematen diot motxilari. Badakit guztiak bertan egongo direla, baina azken begirada eman behar diot. Mezu guztiak bertan daude, besarkatuta, hitz paregabeekin lotuta. Alainek ez daki, baina herri honek istorio eder bat ezkutatzen zuen, eta nire motxilan aurkitzen da une honetan. Egunen batean berari emango dizkiot mezuak, badakidalako hitz aproposak aukeratuko dituela istorioa behar bezala kontatzeko. Egunen batean…

# Ametsen erretratuak

Ainhoa Urkiola Iriondo
Ondarroa institutua
Ondarroa

Gauero lez, izaren artean sartuko naiz epe-epel. Ihes egingo dit begiak ixten ditudan uneak eta bihar esnatuko naiz noiz lokartu naizen gogoratu gabe. Begiak ixtean ametsen ateak zabalduko dira. Agian ametsen batek nire loari oztopo bat jarri eta korrika doan arnasa sentituko dut. Edo bestela lo sakonean ametsek laztanduko naute eta ez dut nahiko ametsaren ateetatik irten iratzargailuak nire belarriak kolpatzean. Iratzargailuak bere modura abestean eguzkiak jantziko du eguna. Edo batek jakin, eguzkia hodeiekin mozorrotuko da zerua grisez janzten delarik. Ez dakit egunerokotasunaren barroteak bere homogeneotasunari eutsiko dion edo urtuko diren eguna desberdin eginez. Urtuko diren esperoan nago.

Beste egun bat hasi da iratzargailuaren irrintziarekin batera. Beste egun berdintsu bat hasi da. Izarak eranztean aireak besarkada hotz bat eman dit. Begiak itxita dituen leihora joan naiz begiak ireki diezazkiodan. Egun eguzkitsuaren argia senti nezake aurpegian goxo-goxo txorien kantuek laguntzen dutelarik. Udaberriaren oihartzuna senti dezaket, badatorrela esanez. Gosaria prestatu ostean sukaldean kafearen usaina nabari da zirrikitu txikienean ere. Jantzita dudana erantzi beste zerbait janzteko eta esnatzeko aurpegia ur tantekin busti eta beste gauza batzuk

egin ostean hor daukat atearen ondoan motxila zain. Mugitzen ez banaiz autobusa ez da egongo nire zain.

Kalera irtetean haize leun hotz bat sentitu dut eta zapia kokotearen inguruan jarri dut. Gustuko dut, hotza sentitzean eta zapia jartzean sentitutako sentsazio hori, hotzak ihes egitean. Kaleari bizia txorien kantuek ematen diote. Goizero ia beti gurutzatzen ditudan aurpegi berdinak gurutzatu eta banoa autobuserantz. Hor ere ia egunero aurkitzen ditudan begiekin aurkituko naiz eta beste begi berri batzuekin. Bidaia gehienetan luze joaten da, beste batzuetan laburrago egiten zait. Autobusa lo egoten da isiltasunak hartzen duelarik. Eguna esnatzearekin batera esnatzen gara gu ere gutxika gutxika. Autobusaren begien ondoan jartzen naiz beti, leihotik begira egotea nahi izaten baitut. Atzo bezala egungo paisaje berdina ikusiko dut kristaletik harago eta nire aurpegia islaturik. Horrelako bidaia aspergarrietan edozerk balio digu dibertitzeko. Horietako bat dut jendeari begiratu eta haien atzean zer ezkuta liteken pentsatzea. Nirekin batera autobus honetan joaten direnei jada asmatu diet euren istorio propioa. Badago emakume bat egunero musika entzuten joaten dena. Askotan argazkiak ikusten egoten da. Bi multzo egiten ditu argazkiekin. Multzo bat bere poltsaren barruan sartu eta beste multzoa berriz ikusten du. Batzuetan argazkiak ikusten ari denean irribarre goxo bat nabari zaio aurpegian. Agian oroitzapen ederrekin nahasten du bere gogoa. Agian noizbait argazkietan agertzen diren leku misteriotsuetara joango dela amesten du. Bakarrik edota beste norbaitekin agian.

Beste mutil gazte bat ere bada bidaia honen lagun. Behin baino gehiagotan ikusi izan dut partiturak dituela eskuetan. Batzuetan arkatz bat hartu eta burua hankaren

erritmoan mugitzen hasten da eta eskua paperera eramaten du musika notekin janzteko. Papera notekin margotzen ez duenean papera berriro motxilan gorde eta arnasa sakon hartu ostean leihotik harago dagoen munduan galtzen zaio begirada. Papera notekin betetzen duenean ostera, begirada irribarretsua galtzen zaio kristaletik harantz.

Bidaian mendiak ez dira falta inguruan. Bidaiari bizitasuna ematen dioten harriz edota belarrez janzten dituelarik amalurrak. Eta hirira heltzean, zementuaren erresuman banengo bezala sentitzen naiz. Eraikinak han eta hemen, hemen eta han. Zementua apaintzeko loreak eta belarra aurkitzen dira. Autobusetik jaitsi eta egunero bezala zerurantz begiratu dut, amaigabeak diruditen eraikinetara. Orduan jabetzen naiz txikitasunaz. Gero buruari bueltak ematen dizkiot eta egun bat eta beste bat, eta beste bat, eta beste bat... pasatu ostean beti berdinera heltzen naiz. Nahiz eta txikia izan, eraikin horiek baino handiagoa den bihotza gorde daiteke txikitasun horretan.

Eraikin horiek itzala marrazten duten kaleetan zehar abiatzen naiz. Jendearen bihotzaren taupadak erlojuaren tik-takak markatzen dituela dirudi. Hor doa gizon bat, bere traje eta guzti maletina eskuan, bere hankek erritmo hau daramatelarik: tik-tak, tik-tak, tik-tak, tik-tak... Atzetik jarraian beste emakume bat takoi hotsa gehituz: tik-tak, tik-tak, tik-tak... Aurkako norabidean ia gizonaren kontra joan da beste bat: tik-tak, tik-tak, tik-tak... Tik-takaren hanken artean dabil umetxo bat erritmo horri jarraitu nahian, baina erori egiten da. Aitaren oihuak entzuten dira atzetik, bere atzetik dabil harrapatu nahian. Bada tik-tak eta klaxon hotsa apurtzen duen doinu eder bat, gitarraren akorde ugari airean. Mutil gazte bat kale ertzean jarrita gitarraren

akorde bakoitza sentitzen duelarik begiak ixtean eta ametsen munduan sartzean. Sentimendu hotzak sentimendu beroekin nahasten dira.

Baina azkenaldian bada norbait. Emakume bat. Autobusaren geltokian zain nagoela hor egoten da begirada galdu batekin zerbaiten esperoan balego bezala. Karpeta bat darama aldamenean beti. Karpeta hori irekitzeko keinua egiten du beti, baina karpetaren ahoa sekula ez da zabaltzen. Keinu hori egin ostean begiak ixten ditu eta berriro irekitzen ditu begirada galduarekin. Inguruan hainbat eta hainbat jende ari da tik-takaren erritmoan eta bera denbora gelditu balitz bezala bere begiek bakarrik ikus dezaketen munduan. Mila istorio egin nitzake karpeta barruan gorde dezakeenaren inguruan. Baina emakume honekin istorio horiek alferrik.

Une horretan. Espero ez nuenean. Ezin da jakin zer gerta liteken gaur edo bihar. Emakumea karpeta irekitzera zihoan egunero lez eta barrukoak lurrera egin du jauzi. Begirada joan zait paper horietara. Marrazkiak. Hainbat eta hainbat marrazki zeuden. Marrazki batzuk zuri, beltz eta grisak. Beste batzuetan aldiz magenta, zian edota horiaren nahasteak ageri ziren. Berehala joan naiz marrazkiak jasotzen laguntzera eta bitartean horiek hobeto ikustera. Batbatean konturatu naiz, paperak lurraren kontra erortzean ateratako soinua geltokian zabaltzean, inork ez duela hatz bat ere mugitu. Norbera, norbera eta norbera. Besteak konpon daitezela. Emakumeak eskerrak eman dizkit irribarre lotsati batekin. Ezin izan dut galdetu gabe egon eta berehala bota diot ea berak eginiko marrazkiak diren. Hitzik gabe erantzun dit buruaz egindako baiezko keinuarekin.

Marrazkiak jaso ostean eskuekin bat hartu eta marrazkira begiratzeko esan dit. Hor ageri da neska gazte bat bere ileak eta gorputzak haize indartsuaren mugimendua adierazten dutelarik. Kale erdian begiak zeruan iltzaturik dauzkala. Inguruan jendea dauka, batzuk begira besteak begiratu gabe oinez. Argi ikusten da marrazkian neskak barnean sentitzen duela dantza, gogo guztiarekin. Neskaren arropa gorri ilunak marrazki zuri beltzean dei egiten dit. Dantzariaren indarra barrura iristen zait. Ezkerreko beheko aldean ikusi dut sinadura bat, Lorraine.

Konturatu orduko hor dago autobusa, zutitu ezean zain egongo ez den autobusa. Presaka agurtu naiz eta autobuseko atea zeharkatu aurretik galdetu diot ea bihar aurkituko dudan, asko gustatu zaidala dantzariaren marrazkia. Berriro ez da hitzik egon, baina bai keinu irribarretsu bat, baiezkotzat har nezakeena. Gauean begiak itxita amestea kostatuko zait. Izaren artean ezkutatu eta zain egongo naiz, noiz lokartuko zain.

Txorien kantuarekin batera suma nezake gaur ere udaberriaren oihua. Kafe usaina sukaldean, arropak jantzi eta banoa autobusera. Hiriko eguneroko tik-tak bizimodua ikusi eta banoa autobuseko geltokirantz. Han aurkitu dut Lorraine. Oraingoan karpeta irekita eta marrazki bat bere ondoan, dirudienez hautatutako marrazki bat. Agurtu gara eta atzo ahaztu zitzaidana egitea izan da lehenengo gauza, nire izena ematea, Iratxe. Esan diot Bilbon ari naizela ikasten. Lorraine, izatez frantsesa. Gogoko du leku desberdinetara joan eta kalean aurkitutako artistak marraztea eta nola ez amets egitea. Urte asko daramatza Euskal Herrian. Txikitan ere askotan etortzen omen zen bere amaren etxea

den lur honetara. *Merci beaucoup* esaten dakien bezala, eskerrik asko ere esaten du.

Ametsa esaten dakien bezala, *rêve* esaten ere badaki. Edo bestela lorrain eta lorea. Alboan zuen marrazkia jarri dit eskuetan. Bere begi urdin sakonetara begiratu diot, emakumearen azal zurian deigarri direnak.

Mutil gazte bat ikus nezake gitarra bat duelarik eskuan. Nahiz eta ez ikusi, hor daude gitarraren akordeak airean lau haizetara zabaltzen. Mutilak begiak itxita dauzka musika berarekin daramala. Ahoa irekita dauka gitarraren akordeen laguna delarik ahotsa. Hor dago jarrita denbora existituko ez balitz bezala. Mutilaren alboan bi haur eserita begiak mutilarengan itsatsita. Ezkerraldean behean sinadura berdina, Lorrain.

Lorraini beste marrazki bat erakusteko eskatu diot. Atzo dantzaria tokatu zela, gaur gitarra jolea eta bihar erakutsiko didala beste zerbait esan dit. Pena eman dit, baina ezin naiz kexatu ikusitako irudi eder horiekin. Sentimenduz beteriko irudiak, sentimendu asko eta asko adierazten dizutenak. Autobusa iritsi da eta berriro bueltatu behar naiz etxera. Autobuseko leihotik bestaldera begiratu eta hor ikusi dut Lorraine, alde batera eta bestera gelditu gabe dabilen jendearen erdian geldirik. Haize freskoa egiten hasi da eta zapia estuago lotu du. Gero hor geratu da marrazkiei begira.

Argitu du beste egun batek ere. Gogoan dut behin gau batean, gau itzal batean norbaitek esan zizkidan hitzak, bihar ere argituko zuela. Kafearen usainarekin nahastu dira ametsak begirada kafearen kolore marroian galtzen zaidan

bitartean. Hor ikus nitzake dantzari hura eta gitarra jolea. Bata gitarrarekin eta bestea dantzako pausuekin. Konturatu naiz biak dutela zerbait elkarrekin lotzen dituena, biek amesten dute. Bata dantzatzen ari denean eta bestea gitarra jotzen, biek adierazten dizkigute euren sentimenduak. Banoa gurpilen gainean ezarritako eserlekuaren leihotik beste aldera begiratzera.

Egunero bezala tik-tak erritmoaren artean galdu naiz. Gaur euri tantek bustitzen dute kalea eta bertako jendea. Batzuk lasai doaz aterkiarekin, beste batzuk aterkiarekin ere presaka eta han doaz batzuk presa handiagoarekin euri tantei ihes egin nahian. Eguna egunero lez aurrera joan da eta heldu naiz geltokira. Oraingoan hiri eta eguraldi grisaren artean deigarri dira Lorrainen begiak. Gaur geltokiko eserlekuan lekurik ez eta aterkiaren azpian izkutatzen da bere karpeta ondo baino hobeto babesturik. Gaur presarik ez dudanez kafetegi barrura sartu gara kaleko giro hezea atzean utzita. Croissant bana eta kafesne bana itxura apartarekin gure sabelei hots egiten daude egurrezko mahai borobilaren gainean.

Kikaran kafe tanta batzuk eta platerean *croissant* apurrak geratu ostean karpeta mahaira atera eta hortik eskuekin marrazki bat hartu du. Oraingo honetan bi pertsona daude marrazkiko eszenan. Demaseko keinuak egiten ari dira inguruko jendearen begirada bereganatu nahian. Neska bat eta mutil bat ageri dira. Neskak ahoa zabalik dauka oihuka hizketan egongo balitz bezala eta mutila eserita ikus nezake aulki batean eskuak buruari itsatsita. Bi gazte euren sentimenduak adierazten gidoi bati jarraituz eta sentitzen dutena kaleak entzun nahian ahotsaren tonuari bolumena igota. Amesten dutena antzerkian adierazi

nahi dute. Eta nola ez, Lorrainen sinadura ezkerraldean behean.

Lorrainek galdetu dit ea zer lotura duten marrazki hauetan irudikaturik ageri diren dantzariak, gitarra joleak eta antzezleek. Goizean kafearen aurrean bururatu zaidan erantzun berdina izan da galderaren erantzuna, ametsak, rêvers. Hiriko kaleetan tik-tak erritmoa apurtzen duten jendearen erretratuak egitea du gustuko. Guztien lotura berdinak, ametsak marrazten ditu. Artista horien sentimenduak irudikatzen ditu. Askotan artistei arropak, edo gitarra, edo aulkia... kolorez margotzen dizkie, kale grisa ametsek koloreztatuko balute bezala.

Geltokiaren ondoan euri tanten artean hor dago autobusa. Lorraine agurtu eta gurpilen gaineko eserlekuan jarri naiz. Eskuarekin agur egin diot Lorraini. Autobusa martxan hasi eta konturatu naiz ez diodala galdetu ea bihar ere posiblea izango den berarekin egotea. Ni betiko lez geltokira joango naiz. Espero dut han aurkitzea bera eta ametsen erretratuak, *les portrait de rêves*. Bestela bera bezala geltokian jarriko naiz. Hor egongo naiz begirada galduarekin hiri grisa kolore biziz margotu nahian ametsetan.

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Azken itxaropena

Pablo Calleja Felipe
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Agur esan nien soilik. Hitz bakar bat denboraldi luzeegi baterako. Ama emakume heldua zen arren, negar egin zuen; aitak ordea mutu jarraitzen zuen, anaiak bezala; baina dagoeneko adostuta zegoen. Ez neraman gauza handirik soinean, 250 dírham, tratuan adostu genuen bezala eta ezer ez gehiago. Zertarako?

Gaua zen oraindik, baina jada nabaritzen zen beroa, egun gogorra izango zen gaurkoa. Herri txikia zen Benguerir, hala ere ez genion inori ezer esan, nahiago genuen ezkutuan, familian gorde. Ez zegoen ondo ikusita herria uztea, koldarrena zela zioten, axolagabeen jarrera zela hura. Bost axola niri gainerakoek pentsatzen zutena. Jarrai zezatela haiek egoera hura jasaten, ni, behintzat, ez nengoen prest horrela segitzeko, aski zen. Bideari ekin nion, herria atzean, mendien artean aldentzen zen heinean.

Safiraino egun erdiko ibilbidea zegoen, ni, ordea, ordu bietan geratua nintzen jabearekin portuan, beraz, lasterka egin nuen bide erdia. Beldurtuta egin nuen, bakarrik nenbilelako bidelapurrez beteriko zonalde batean, izutzekoa. Ezin nintzen arriskatu harrapatua izatera eta neraman dirua galtzera, neu nintzen familiako itxaropen bakarra une hartan eta.

Espero baino lasterrago heldu nintzen hirira. Hala ere oraindik jabea aurkitu behar nuen. Hura kaosa bertan zegoena: jendea postuetan saltzen, motorrak noraezean toki guztietatik, jendea oihuka… Baina jabeak emandako azalpenei esker eta hiriko jendeari galdetuz heldu nintzen erabakitako tokira. Erraldoia zen. Herritik noizbehinka pasatzen ziren baina ez horren handiak. Nire etxearen besteko altuera zuen; 16 gurpil, atoi eta guzti. Paperean idatzita nuen bezala, 63872 I اف 40 zeukan horrek ere aurrealdean jarrita. Hura zen dudarik gabe.

Osabari esker aurkitu nuen, gizon hura ezagutzen baitzuen, lanetik antza. Merkantziak garraiatzen zituen Europara, hura zen bere ogibidea. Egia esan ez zen gizonik eta atseginena, baina neukan aukera bakarra zen. Zeukan libertatea eta honra 250 dirhamegatik arriskatuko zuen, zuhurra benetan.

Hogei bat minutu itxaron behar izan nituen jabea agertu zen arte. Marmarka heldu zen, txokorra hortzen artean, paper multzo bat eskuaz astintzen zuen bitartean.

Aitak esan zidan bezala, lodia eta bizarduna zen, kolore argikoa, Europarra antza. Harengana hurbildu nintzen, burua aurkezteko eta adostutakoa ordaintzeko, baina nire harridurarako ahoa ireki bezain pronto “Utzi bakean, gazte!”esan zidan. Ez zidan jaramonik egin, berean zebilen atzera eta aurrera, ezinegonean, ni bezala, urduri. Dirua estu neukan helduta eskuartean, norbaitek kentzeko beldurra izango banu bezala.

Arrapaladan etxera bueltatzeko gogoa sentitu nuen, abentura zoro hartatik ihes egiteko, hala ere ez nuen etsi

eta berriz ere harengana hurbildu nintzen, oraingoan nahastuta.

Pentsatzen hasia nintzen agian okerreko gizonari hurbildu nintzaiola. Ahots fin eta estuz, “Jauna, Ashraf naiz, Benkiran familiakoa, hemen daukat dirua”. Harritu egin zen, eta ondoren irribarre egin zidan. “Ah, ongi da. Diru bila zebilen eskale bat zinela pentsatu dut, zorigaizto madarikatuak…”

Trailerrera igotzera gonbidatu zidan. “Goazen, merkantzia hau ez da bakarrik banatzen eta!” Presaka zebilen. Ezin genuen zortzi t’erdietako ferria galdu, eguneko azken ferria. Beldurrez eta aldi berean ezjakintasunez bi eskaileratxoak igo nituen, bi pauso, bidai luze hartako lehen pausuak, garrantzitsuenak, baina aldi berean dudatsuenak. Itzela zen barrutik kamioia: erosoa zen oso, botoi eta argitxoekin toki guztietatik, ohe eta guzti! Giltzak kontaktuan sartu eta martxan hasi zen kamioia.

Laster irten ginen hiritik eta bidean jarri ginen. Begirada errepidean finko zuela, “Dirua hor al duzu?” esan zidan jabeak, bi atzamarrak elkar igurtziz, keinua eginez.

Presaka eskua poltsikora eraman eta burumakur billete sorta eskaini nion. Mesfidantzaz begiratu zuen, eta banan-banan liburuxka bateko orrialdeak balira bezala pasatu zituen.

Azken urteetako aurrezkiak ziren haiek, esfortzu handiz lorturikoak. Guretzat diru asko, harentzat ordea, propinatxo bat besterik ez. Irratia jarrita zegoen, eta horrek tentsioz beteriko atmosfera hura pixka bat baretzen zuen.

Denbora pasa ahala, elkar ezagutzen hasi ginen. Jabeak argitu zidan bezala, Frantziara zihoan, zeraman merkantzia bertan saltzeko. Barazkiak ziren gehien bat: piperrak, tomateak, letxugak… Marokon balio gutxiko produktuak dira, Europan, ordea, ez. Eta galdetu zidan arren, nik ez nion nire bidaiaren xedeari buruz tutik ere esan, ez da atsegina norberaren arazoetaz hitz egitea.

Hala ere, jakin bazekien, dudarik gabe.

Pare bat ordu eman genituen bidean, hizketan. Azkenean tipo atsegina iruditu zitzaidan, baina beti bezala, momentu atseginak bukatu egiten dira, eta hura ere amaitu egin zen. Kamioia geldiarazi zuen bide zidorrean, letra handiz “Ceuta” jartzen zuen seinale baten parean. Azkenean heldu zen unea, gogorrena etortzearren zegoen oraindik.

Nire etorkizuna zehaztuko zuen unea. Jabeak penaz begiratu zidan, jada adiskide egiten hasiak ginen. Keinua egin zidan buruaz, eta biok jaitsi ginen. Tokia erakutsi zidan.

Atzeko gurpilen artean, lurretik metro erdira eta barra batzuei helduta kamioiaren azpialdean jarraitu beharko nuen bidaia. Tokia espero bezain larrigarria eta gogaikarria zen, baina muga arazorik gabe zeharkatzeko toki bakarra zen. “Gogoratu esan dizudana” izan zen jabek esan zidan bakarra. Jakin banekien zer egin behar nuen, edo hobe esanda, zer egin behar ez nuen: hitz egin, soinu txikiena bazen ere. Isiltasun osoz egon beharko nintzen bertan beste aldera arazo gabe zeharkatu nahi banuen.

Errepideko lerro zuriak nire oroitzapenak bezala igaro ziren, ziztu bizian. Jada iluntzen hasia zen. Han azpian ez nuen ezer ikusten, pasatzen ziren autoen argiak soilik, besterik ez. Hirian barrena sartu ginen, portuko aduanarantz. Erloju gabe, inkomunikatuta, itxarotea zen egin nezakeen bakarra. Osabaren irudia etorri zitzaidan burura. Hark egin zuen guztia, nigatik, berak bizi izandakoa baino etorkizun hobeagobat izan nezan. Melankoliko jarri nintzen une hartan, familian pentsatzen. Baina han ez nuen inor besarkatzeko eta ezta harekin negar egiteko.

Urrunean itsasoa ikusi nuen, portutik hurbil geunden. Gero eta auto gehiago ikus nitzakeen. Poliki-poliki aurrera gindoazen; itsasontzira sartzeko ilara izango zen. Txistu hotsa entzun zen eta halako batean, kamioia balaztatze bortitz batez gelditu zen. Zerbait ez zihoan ondo. Une batez geldi egon ginen, ahotsak entzuten nituen. Ondoren, berriro jarri ginen martxan, baina bidetik irten ginen, eta gainerako autoak ez bezala, izkina batean gelditu ginen. Urduri jartzen hasi nintzen, zerbait ez zihoan ondo. Hankak ikusten nizkien soilik. Begiradarekin jarraitu nituen. Zapatila zahar eta bakerodun gizona jabea zen, beste biak, bota altu eta kamuflagezko prakak zituztenak, ordea, militarrak.

Atzealdean gelditu ziren. Kamioiaren atoiko atearen hotsa entzun zen, ireki egin zuten. Jabearen hankak ikusten nituen hara eta hona, urduri, ni bezala, izututa.

Bihotz taupadak gero eta arinago zihoazen, arnas falta sumatzen nuen nigan. Barrura sartu ziren. Haien pausuen hotsa barruraino heltzen zitzaidan, dam, dam… Gainean nituen. Haien ahotsak entzuten nituen baina ez nuen ezer

ere ez ulertzen. Kutxen soinuak entzuten ziren gora eta behera, zerbait bilatzen ari balira bezala. Egia esan ote zidan jabeak, edo barazkiez gain zerbait gehiago garraiatzen zuen? Une hartan ezin erantzun galderari.

Berriz ere isiltasuna, eta pausoak, dam dam… atea itxi egin zuten. Atzetik aurrera zetozen bi gizon haiek eta bat batean, gelditu egin ziren. "Momentu bat!" esan zuen militarretako batek. Hor bertan nituen botak, niri begira baleude bezala, ukitu ere egin nitzakeen. Arnasa hartzeari utzi nion. Begiak itxita neuzkan, gorputzak ez zidan erantzuten. Itxaronaldi hura betierekoa egin zitzaidan. "Ongi da, aurrera jarrai dezake. Kontu izan". Barruan neukan haize guztia bota nuen, hura lasaitasuna, jada erdia eginda zegoen. Denbora luzea itxaron behar izan genuen, hala ere azkenean itsasontzian geunden.

Ilun zegoen autoz beteriko toki hura. Olatuen soinua, itsasontziko motorren hots leuna eta ni, atmosfera hunkigarria. Begiak itxi nituen, iluntasun ezezagun batean murgilduz. Bakarrik nintzen une hartan. Pare bat malkok ihes egin zuten nire begietatik, ezin izan nuen saihestu. Mila irudi pasatu zitzaizkidan burutik. Agurtu nituen unea, ama negarrez, aita mutu eta anaiak etsipen aurpegiaz; nola egongo ziren momentu hartan? Ni bezain urduri, ziurrenik. Eta berriz ere erantzunik gabeko galdera: lortuko ote nuen beste aldera pasatzea? Gorrotoa sentitu nuen une melankoliko hartan. Zergatik pasatu behar nintzen ni kamioi baten azpialdean, ezkutatuta, txakur gaixo baten antzera izututa, eta gainerako bidaiariak trabarik gabe, aurpegia bistan zutela? Erantzuteko galdera konplexuegia.

Itsasoa atzean utzi genuen, barrualderantz gindoazen, arriskutik aldenduz. Helmuga gurutzatu nuen, zorioneko helmuga, inoiz irudikatuko ez nuena. Jabeak laster gelditu zuen kamioia, atseden gune antzeko batean. Lasaitu ederra hartu nuen burdin artetik jaitsi nintzenean. Lepoa urratuta nuen, eta oinak guztiz lokarturik; hala ere hura ez zen eragozpena izan lasterka eta saltoka hasteko, poztasunez gainezka, oihuka. Jabea, trailerrean muturik, begira neukan, gogobetetasunez irribarretsu. Harengana gerturatu nintzen lasterka, eta besterik gabe gizona besarkatu nuen. Momentu hartan denbora gelditu egin zen, ez zidan ezerk axola. Dena ondo irten zen, desiratzen nuen bakarra, ez nuen ezer gehiagorik behar. Jabeak ez zuen espero erantzun hori, algaraka hasi zen bizkarrean zapladak ematen zizkidan bitartean, ni lasaitzeko. Ez genuen hitzik egin, sentimenduak nahikoak ziren une hartan sentitzen genuena adierazteko. Topaketa hunkigarri horren ondoren, kabinan jarraitu nuen bidaia, jada ez nintzen burdinen artean ezkutatu behar. Nonbaitera nindoan, hiriren batera agian.

Semaforo batean gelditu ginen. Gizon bat zebilen autoz auto mukizapiak saltzen. Guregana ere hurbildu zen. Arabiarra zen, ni bezala. Ez genion ezer erosi. Hura izango al zen nire etorkizuna? Horrela bukatuko ote nuen nik ere? Hori izango al zen abentura luze honen bukaera? Ez. Inondik inora, etorkizun hobe bategatik borrokatuko nuen, ni bainintzen familiako azken itxaropena.

# Heriotza tunelaren amaieran

Jasone Herran Molinera
Bihotz gaztea ikastola
Santurtzi

Arnas hartzea zeregin zaila egiten zitzaidan. Munduaren nekea hostoetan sumatzen nuen. Isiltasuna zen nagusi. Preso sentitzen nintzen nire bakardadean. Nola ihes egin nire giltzape propiotik? Mendietako hezetasun usaina faltan botatzen nuen. Ez nintzen gogoratzen norabidea aldarazi zidan berriaz. Non ote nengoen? Gaua heltzear zegoen, baina ez zetorren bakarrik. Bere atzetik begirada maltzurrak nabaritzen nituen, geratzeko iritsi zirenak. Beldurra nire erraietan barrena hedatzen hasia zen. Pixkanaka-pixkanaka narrasti bat bezain pozoitsua zen piztia hurbiltzen ari zitzaidan, bere itzala gero eta gertuago ikus nezakeen. Bere hatsa gertuago sumatu nezakeen nire bizkarrean. Belarrira gerturatu eta ahots leun batez hauxe xuxurlatu zidan:

-Heldu da eguna!

Bere aurpegira begiratzen geratu nintzen une batez. Begi oso sakonak zituen, atxabitxiak bezain ilunak. Bere eskua luzatu eta honako hau oihukatu zidan:

-Inoiz erre zintuen su berberak argituko dizu etxera heltzeko bidea.

Bat-batean urruntasunean desagertu egin zen.

Banoa nire bila, ihes. Hodeiak zerutik baztertu ziren eguzki izpiei lekua eginez. Eguzkia gogotsu esnatu zen egun hartan. Nire ingurura begiratu nuen, mendi garaiez estalita zegoen paisaia. Baina nire begirada tontor txikienean finkatu zen. Hura bai ederra eta bitxia. Eguzki argiek gailur horretan soilik jotzen zuten zuzen-zuzenean, horrek nire arreta bereganatu zuen. Ezin nuen nire begirada handik baztertu, mendi horretan topatuko al nuen nire askatasuna?

Nire bidaia hasteko unea iritsi zen. Ibiltzen nindoan heinean kaleak estutu egiten ziren, ezin nuen atzerantz pausorik bota. Nire urratsen ondorioak doitu behar nituen, ergelkeriak saihesteko. Konturatu nintzenerako baso zabal baten barruan aurkitu nuen nire burua. Zuhaitzak biluzik zeuden eta lurra hostoz beterik zegoen. Gorantz begiratu eta euri tanta batek nire kopeta jo zuen. Eguraldia zeharo aldatu zen, barearen ostean ekaitzak gogor jotzen hasi zuen. Argi distiratsu bat ikusi nuen zeruan eta bost segundo pasa ondoren zarata bortitz bat entzuten zen. Soinua gero eta azkarrago entzun nezakeen. Argia zeruan agertu eta hiru zenbatzerakoan entzuten nuen, gero eta gertuago zegoen. Tximistak ziren, nire belarria ohitu egin zen zarata horretara. Zoritxarrez, tximistak bakarrik ez ziren hurbiltzen ari zirenak. Gau hartan ilargi betea antzeman zitekeen eta otsoen oihuek berehala apurtu zuten nire lasaitasuna. Bertatik ihes egitea ezinbestekoa zen, baina ez nekien norantz bota nire lehenengo pausoa. Zuhaitz baten gainean igotzen saiatu nintzen, baina alferrik, egurrak labaintzen zuen eta sekulako kolpea hartu nuen. Zutik jarri nintzenerako gris kolorekoak ziren bost otso ikaragarrik ingu-

ratzen ninduten. Begiak kolore horikoak ziren, begirada sarkorrak zituzten. Batek berezi bihurtzen zuen orban zuri bat zuen bere hankan, taldearen nagusia izango zen. Hamar segundo geldirik iragan nituen, ezinegonean. Otsoen letaginek zorrotzak ziruditen. Artalde zuriko ardi beltza sentitzen nintzen. Orduan, narrasti horrek esandakoa etorri zitzaidan burura: “Inoiz erre zintuen su berberak argituko dizu etxera heltzeko bidea”. Nire mugimenduak neurtu gabe makila pare bat hartu eta sutea eragingo zuen txinparta piztu nuen. Su hesi bat zen otsoak eta ni banatzen gintuena. Korrika hasi nintzen, orbandun otsoa nire atzetik zetorrelarik. Sua gainditzea lortuko zuen. Basoan zehar zeuden sasi guztiak nire bidetik baztertzen nituen, animaliaren atzaparretan ez erortzeko. Basoaren amaierara iritsi nintzen, ezin nuen aurrera jarraitu. Itsaslabar baten ertzean aurkitu nuen neure burua. Ez nuen piztiaren harrapakin bihurtu nahi. Nire oinak labarraren mugara gerturatu eta jauzi egin nuen. Ura izugarri hotz zegoen, nire gorputz atalak berehala zimurtu ziren. Ur-korronteak indartsu astintzen zuen, arrastaka eramaten ninduen ibaian behera. Gau osoa iragan nuen uretan murgilduta. Eguzkiarekin batera atera nintzen lehorrera. Noraezean nenbilen, alderrai baten antzera. Ez nuen nire gailurra inondik topatzen. Eguzki-izpien norabidea jarraitu eta hodeien artean mendia agerian gelditu zen. Nire begien aurrean itsaso zabal bat zegoen, zeruertzean ezkutatzen zena. Hori zen bertatik aldentzen ninduen oztopo bakarra. Ura oso gardena zen, nire aurpegia islatzen zen bertan. Itsasoan barrena sartu nintzen eta segituan ez nuen lurra sumatzen, oso sakona zen. Ez nintzen aparteko igerilaria, baina bizitzan gogor jokatzen saiatu behar gara. Burua uretan sartu eta igeri egiten hasi nintzen. Aurrera egitea zeregin zaila zen gero eta nekatuago ikusten nuen neure burua. Ustekabean, olatu

erraldoi bat jo zidan eta hondoratu egin nintzen. Urpean nengoen, itsasoa liluragarria zen benetan. Kolore guztietako arrainak nire inguruan egiten zuten igeri, kilimak nabaritzen nituen nire azala laztantzen zuten bakoitzean. Urpeko bizitza zoragarria zen. Minutu hagitz neraman uretan murgilduta, eta nire ezusterako oraindik ere arnas egin nezakeen. Urpean igeri egiten nengoen lamia baten antzera. Dena oso lasai zirudien, baina tupustean, zirrara hori deuseztatu egin zen. Nire hanka landare batean korapilaturik gelditu zen, berriz ere kaiola baten barruan nengoen. Hala ere, libre izateko nituen gogoak oraindik ez zeuden preso. Ahalegin guztiak jarri nituen giltzape horretatik askatzeko, eta marrazo baten haginei esker lortu nuen soka moztea. Dortoken laguntzaz iritsi nintzen nire bidaiaren helmugara. Nire azken arnasa gailur hori konkistatzeko erabili beharko nuen. Eguzkiak ez zuen gehiago argiztatzen, elurra egiten hasi zen. Mendi magaletako belarra zuriz estalita gelditu zen. Haize boladek gogor astintzen zituzten mendiko zuhaitzak. Bakarrik nengoen neguko eguraldi gogor horren aurrean, baina ez nuen amorerik emango. Askatasunak prezioa dauka. Geratzen zitzaizkidan indar guztiak batu eta aldapan gora jarri nintzen. Igotzen nindoan heinean, nire haurtzaroko oroitzapenak etortzen zitzaizkidan burura. Txikia nintzenean munduari begira ibiltzen nintzen, bizitzari barreka, inolako buruhausterik gabe. Faltan botatzen nituen nire senideak. Mendi osoan bakarra nintzen ni. Azkeneko igoeraren aldapan nengoen eta urruntasunean, tunelaren amaieran nire familiakoen aurpegiak ikustatu nituen. Kezkatuta ziruditen. Hainbeste denbora elkar ikusi gabe. Neurtu al duzue inoiz nahi duzuena eta behar duzuenaren tarteko distantzia? Une horretan nire senideak besarkatzeko beharra sentitzen nuen, egun hartan beharrezko nituen. Tunel iluna zeharkatzen

hasi nintzen baina zenbat eta aurrerago joan, distantzia handiagoak banatzen gintuen. Hegalak zabaldu eta korrika hasi nintzen, sekula ez gelditzeko, bihotza lehertu arte. Zeru zabaletan aske sentitzen nintzen. Haien eskuei heltzeko zorian nengoenean, ezustekoan, kristal baten kontra jo zuen nire buruak. Ispilua apurtzen saiatu nintzen, kolpe izugarriak eman nituen kristalaren kontra, eskua odoletan hasi zen arte. Ezin nuen muga zeharkatu. Galdera bat zetorren nire burura, zer ote bestaldean? Etxeko atean zeuden nire zain, baina ez nintzen inoiz bueltatuko. Ezizen bat nahiko nuke, *ezizan* honen truke. Ispilua malkoz estali nuen. Zaila egiten zait esplikatzen aske izateko guztia eman ondoren, geratzen den sentimendu hori. Mila kilometrotara zeuden, baina nire bihotzetik gertu mantenduko nituen. Muga honen amaieran itxoingo nituen, non bestela.

# Askatasun egarriz

June Ugalde Pikabea
Lezo institutua
Lezo

Abionetan zortzi bat pertsona goaz. Hemen goitik bizi arrastorik gabeko kilometroak besterik ez dira ikusten. Atzeko aulkietan doan mediku taldearen elkarrizketa txundigarriak nire burua bueltaka jarri du. Etxekoandre gutxietsi bat baino zerbait gehiago izango nintzateke gaur, ikasketak utzi izan ez banitu. Jende eta bizimodu desberdinak ezagutuko nituzke. Egunero etxetik ateratzeko aitzakia edukiko nuke, nire senarra baino zerbait gehiagok beteko lidake burua urteotan eta berarekiko menpekotasun horri aurre egiten jakingo nuke.

Gehiegizkoak izan dira urte hauek. Hogeita hiru urte, erraz esaten da. Gogoan dut ezkondu ginen eguna. Zoriontsu nintzen. Nire bizitzako gizona aurkitu nuela uste nuen. Horixe uste izan dut orain urte gutxi arte. Mehatxuak, mozkorraldiak… Niri tokatu zitzaidana hori zela sinetsita nengoen eta horrekin bizi behar nuela. Ez dakit noiz ireki nituen begiak baina mozkorturik etorri zen gau ilun hartan, ziurrenik. Inoiz ez nintzen orduan bezain umiliaturik sentitu. Burura etortzen zaidan aldiko malkoz betetzen zaizkit begiak. Urte gehiegi eman ditut gatibu, horregatik erabaki nuen Etiopiara etortzea, psikologoak aholkatu bezala, abentura berri bila. Laguntza-talde bate-

kin nator, boluntario gisa. Jakintsu hauen ondoan, ordea, ikusezin sentitzen naiz, hutsaren hurrengo.

Orduak aurrera doaz eta paisaia ez da aldatzen. Iritsi gara azkenik aireportura. Bertan bi gizon beltzaran ditugu zain. Gurpil handiko autoetan Tsemay herrixkara eraman gaituzte. Erreka ertzean dago Tsemay, berde xamarra da, beraz. Herritar guztiak guri begira geratu dira. Emakumeek ume txikiak besoetan hartu dituzte eta mutilkoxkorrak amaren gonapera hurbildu dira. Denak daude guri begira, adi-adi. Zimurrez betea du aurpegia gugana hurbildu den gizon zaharrak. Ia biluzik dago eta lur koloreko azala du. Denek errespetuz begiratzen dute, serio. Beren hizkuntzan hitz egin digu gizonak, ahots sendo eta abeslariaz. Ez diogu deus ulertu, baina ongietorria izango zela pentsatu dugu. Oso pozik omen daude gu han egoteaz eta gaurtik aurrera beraietakoak bagina bezala tratatuko gaituztela, onerako eta txarrerako. Horrelaxe itzuli digu herrixka hartara eraman gaituzten bi gizonetako batek, Kendneshek. Gure itzultzailea izango omen da bera. Nik irribarre egiten diet denei, ez baitakit zer esan.

Bi aste hauetan gure txoko izango diren lokatz eta zuhaitz adaxkazko etxolatxoak erakutsi dizkigute. Gure etxoletara sartu eta berehala etorri zaigu Isma, medikuetako bat, afaria prestatzen ari direla esanez. Gure etxolan hiru neskak egingo dugu lo. Mariak, Hendaiako emakume adinekoak, Enarak, Iruñako neska gazteak eta hirurok. Jatorrak dirudite. Esan didatenez ez da Etiopiara etortzen diren lehen aldia, esperientzi ahaztezina omen da.

Ilundu du dagoeneko, eta herri guztia hurbildu da suaren ingurura. Lurrezko ontzitan haragi puska bana jarri

dute, fruitu gozo batzuez lagundurik. Afaltzen hasi baino lehen herri guztiak begiak itxi ditu eta sugarraren soinua bakarrik entzun da. Gizon zaharrak hitz batzuk esan ditu ozen. Segituan, begiak ireki eta afaltzen hasi dira denak. Tsemay herriak familia handi bat dirudi.

Afalostean dortoka-odol eta landare baten hostoekin egiten duten edari gorrixka edan dugu. Ondo lo egiten laguntzen omen du. Ordubete egon gara berriketan lotaratu aurretik. Enararekin lasai hitz egiteko aukera izan dut. “Medikuntza bukatzen ari naiz unibertsitatean. Lehenengoz Etiopiara etorri nintzenean maitemindu egin nintzen. Lehenik jendearekin, gero haien naturaltasunarekin eta azkenik lekuarekin. Etxean bezala sentitzen naiz dagoeneko.”

Zoriontsu dirudi. Inbidia sentitu dut. Bizitza guztia du aurrean eta askatasunez bizitzea erabaki du, betirako loturarik gabe. Edozer emango nuke nire gazte garaira bueltatu eta erabaki guztiak huts hutsetik hartzeagatik. Orain hemen nago, ordea, berrogeita zazpi urterekin, Tsemayen, munduaren beste muturrean galduta. Ez dakit zer aurkituko dudan hemen, ezta gustatuko zaidan ere. Kantuan ari dira herritar guztiak, haiek ere alai, lotsarik gabe, oihuka. Azaldu ezin dudan indar berezi bat sentitzen dut gorputzean. Logure naiz, afalosteko edariaren eraginez izango da...

* * *

Ume ahotsek esnatu naute. Iratzargailu gorrotagarriaz gogoratu naiz eta irribarrea atera zait. Akabo goizeroko esnatze zakar haiek! Energiaz altxatu naiz. Errekara joan

eta aurpegia garbitzen nuen bitartean, Kendnesh etorri zait gosaria ekartzera. Ogi itxura du ekarri duenak, baina oso mikatza da, inoiz jan dudan gauzarik mikatzena. Egun osorako indarra emango didala esan dit. Erreka ertzean eseri naiz gosaltzera, gure itzultzaileak gaurko plana kontatzen didan bitartean. Gaurko helburua herriko ume guztiei txertoa jartzea da. Emakume guztiekin bildu gara Isma, Kendnesh eta hirurok. Haiekin hitz egin dugu eta txertoak duen garrantzia azaldu diegu. Gehienei ongi iruditu zaie, beste batzuk senarrekin hitz egin behar dutela esan digute.

Bazkal ondoren hasi dira medikuak beren lanean eta Maria, Enara eta hirurok umeen ondoan egon gara bitartean. Umeen begirada zuzen eta garbiak barru-barruraino sartu zaizkit. Indartsuak dira hemengo umeak. Goizetik gauera korrika ibiltzen dira batera eta bestera, ez dira gelditzen. Jaioberriak amaren bularretik zintzilik ibiltzen dira, zapian bildurik.

Emakumeak lanean dabiltza egun guztian. Janaria prestatu, umeak zaindu, arropa garbitu, josi… Garesti dituzte irribarreak. Kemena nabari zaie begiradan. Denak daude ezkonduta. Gizonek etxetik kanpo ematen dute eguna, ehizan eta iluntzean topatzen dira emazteekin.

Emakume gazte batengana joan zait begirada, denbora askoan behatu dut. Ederra da. Ile motz xamarra du, txirikordatxoz betea. Aurpegiko tatuajeak begirada zorrozten dio. Bakarrik egon da egun guztian. Kendneshekin eta bere alabarekin soilik hitz egin du. Bere lau urteko alabatxoak Guday du izena, txertoa jartzerakoan ezagutu dut.

Ume alaia da, urduria. Ile beltz motza du, oso kizkurra. Hortz zuri-zuriak ageri zaizkio irribarre egiten duenean.

Afal orduan ama-alabei begira egon naiz. Gaur ez dugu atzo bezain ondo afaldu. Pure marroixka bat jan dugu. Gaur ez da ondo lo egiteko edaririk banatu. Egun berezietarako izango dela pentsatu dut.

* * *

Asha du izena Gudayren amak. Enarak kontatu didanez, senarra joan den urtean hil zitzaion eta ordutik ez du bururik altxa. Herriak beti baztertu izan du, berezia, desberdina delakoan. Berarekin hitz egin nahi nuke, baina ez naiz gauza. Kendneshi galdetu diot Ashari buruz. Karakter handiko emakumea dela eta berarekin hitz egitea ez dela erraza izango esan dit berak. Agian hobe dut bazterrak ez nahastea nire kuriositate hutsagatik.

* * *

Guday etorri da nigana korrika erreka ertzean eserita nagoela. Irribarre bihurri bat eginez errekatik bere eskutxoetan ura hartu eta aurpegira bota dit. Korrika alde egin du nik begiak ireki ditudanerako. Nigana hurbildu izanak hunkitu egin nau, baina ezustean harrapatu nau eta ez naiz txantxa itzultzeko gai izan. Aurpegiko tantak lehortzerakoan irribarreak alde egin dit.

* * *

Mehari hil da, herrixkako ehiztarietako bat. Gaur ez nau haur soinuak esnatu, ezta haien irribarreak txunditu ere. Egun goibela izan da. Alarguna ez da etxolatik atera

iluntzeko omenaldia hasi den arte. Orduan, sutondora hurbildu eta gure ondoan eseri da. Denok hilotzaren inguruan eserita geunden eta gizon zaharra hizketan hasi da, ozen, sendo, beti egitez duen lez. Denek hitz batzuk errepikatu dituzte alarguna iritsi denean. Emakumeak indartsu zirudien. Gizon zaharrak altxatzeko agindu dio alargunari. Meharik lepotik zintzilik zituen lepoko mordoa hartu eta emakumeari jarri dizkio. Bitartean pare bat gizonek egur gehiago bota dute sutara. Garra handitzen hasi da eta herri guztia altxatu da bat-batean. Lau gizonen artean sutara bota dute gorpua. Kantuan hasi dira guztiak. Ez dira lehen gauean kantatu zituzten kanta alai haiek, ordea. Tristura darie tsemaytarren abestiei.

Lotara nindoan nire etxolaren ondoan Mehariren alarguna eta Asha hizketan ikusi ditudanean. Elkarri kontsolatzen ariko zirela pentsatu dut. Barrura sartu eta lurrean etzan naiz gauero bezala. Bi emakumeen ahotsak entzuten ditut kanpoan. Asharen ahotsa ezagun dut jada, baina ez nuen inoiz halako indarrez hizketan entzun. Emakume kementsua da inondik ere. Laster nagusitu da isiltasuna.

* * *

Goizaldean Ashak esnatu nau. Bere etxolara eraman eta bere ondoan etzanarazi nau. Muxu eman dit ezpainetan, biluztu eta gorputz osoa laztandu dit, maitekiro. Liluraz begiratu dut, irribarrez. Bere begiradak segurtasuna eman dit, ausardia. Elkarrekin eman dugu gaua. Hizkuntzarik gabe elkar ulertzea lortu dugu.

Goizean garaiz jaiki da, esnatu naizenean ez zegoen nire ondoan, espero bezala. Guday ere ez zegoen. Errekara

joan naiz aurpegia garbitzera, goizero bezala. Herritarrek mespretxuz begiratu naute. Aspaldian jaso gabeko begiradek zulatu dute nire azala. Nire etxolara joan naiz korrika, babes bila. Bertan Enara, Maria eta Kandnesh aurkitu ditut hizketan. Sartu orduko azaldu didate zer gertatu den herrian. Ashak bart gauean zurekin gertatutakoa kontatu du herri guztiaren aurrean. Hemen ez omen daude baimenduta bi emakumeren arteko harremanak. Asha, Guday eta hirurok biharko eguna baino lehen Tsemaytik botako gaituztela diote. Baztertua sentitu naiz, aspaldi ez bezala. Kandneshek esan dit gauean eramango nauela aireportura. Ashaz galdetu diet, berarekin egon behar dudala.

Kandnesh eta biok etxolatik atera eta Asharen bila hasi gara. Gizon zaharrarekin hizketan ari zen. Gizona ez zen zigorraz ari, ordea, barkamenaz baizik. Urteotan guztiotan bazterturik eduki dutela aitortu du. Koldartzat omen zeukaten, eta hori ez omen da tsemaytarren ezaugarria. Baina gaur bere ausardia erakutsi duela herri guztiaren aurrean eta benetan frogatu duela tsemaytar odola daramala zainetan. Herriaren baimena duela, emakume nahiz gizon, nahi duen pertsonarekin egoteko.

Asha nigana hurbildu da, “lortu dut” esanez bezala. Eskua eman dit, estu. Ea beraiekin geratuko naizen galdetu dit irribarre zabal batez. Berak erakutsiko dizkidala bertako hizkuntza eta ohiturak. Guday zoriontsu heziko dugula bion artean. Nire erantzunaren zain geratu da begitara begira.

* * *

Herriak begi onez ikusten omen du Asha eta biok elkar maitatzea, baina hiru egunen ondoren ere begirada zorrotzak jasotzen ditut oraindik. Banaka-banaka sumatzen ditut azalean ziztaka, zerbait egotziz bezala. Ez dakit hemen denbora askoan iraun ahal izango dudan. Oraingoz Asha eta Gudayren maitasuna aski zait gaueko hotza epeltzeko, ziztadak laztanez leun-tzeko.

Nire iraganetik ihesi ibili naiz denbora askoan, eta hala nabil orain ere. Iheslariek ausart aipua dute, baina azkenean haiek dira koldarrenak. Hori da iheslarion gabeziarik handiena, arazoei aurre egiten ez jakitea. Orain orekaturik sentitzen naiz. Ashak  adorea du bizitzari aurpegia emateko. Asko dut beregandik ikasteko…

# Ahantzi

Iñigo Perez Mujika
La Salle-San Jose ikastetxea
Beasain

Ahantzia dut jaio nintzen eguna; ez dut oroitzen nire lehen arnasa; ahaztua dut amak emaniko lehen bularra; ez dut gogoratzen nire lehen irria… baina badakit hor daudela. Ez nuke nahi egun hau nire oroimenetik ezabatu, kanporatu…

*Sabaiko kolore zuri argiak eta paretako azulejuek talka egiten zuten angeluari so neramatzan hiru ordu. Ingurutik umeen oihuak, erlojuaren tik-tak torturatzailea, jendearen joan etorriak, ni bezala egonean zegoen pertsonen txistuak eta nire semearen ahotsa entzuten nituen.*

*- Lasai aita, dena ondo aterako da, ez urduritu.*

*Baina biok genekien, biok barren-barrenean bagenekien hainbeste denbora itxaronean egon nintzen ospitale hartakoek, ez zidatela berri onik emango; horrexegatik bakarrik, ez nion jaramonik egin; horrexegatik bakarrik, beste soinuekin batera sailkatu nuen, beste soinu eta zaratei bezala ez nien jaramonik egin eta sabai eta pareta arteko angelura so jarraitu nuen.*

*- Alzheimerra, Alzheimerraren sintomak aurkitu ditugu. -Esan zigun bere lanean sentimendurik jartzen ez*

*zuen mediku hark beste ordubete itxaroten egon ondoren* … baina badakit ahantziko zaidala.

Nire iraganaz, ezer gutxi esan dezaket; nire orainaz, etorkizunaz hausnartzen ari naizela; nire etorkizunaz, noizbait, egunen batean akaso, gogoratuko ez dudan beste iragan zati bat izango dela.

Medikuaren zita izan nuenetik aste bat pasa da, eta ingurukoei begietara begiratzean errukia ikusten dut. Irribarre apal bat egin eta begiradaren norabidea aldatzen dute. Egia esan, pentsatzen jarrita, ez da horren tristea; soilik, helmuga bat ipini diot bizitzari, itsaso zabalean, urrun, baina lurra ikusi dut. Lema, finko dago; olatuekin batera zuzen noa, ez du inporta zenbat bela jarri ibilaldia geldotzeko, badakit, ez oso berandu iritsiko naizela. Okerrena, nire marinelek, bizi guztiko oroimenek, lurra ukitu aurretik ezerezera jauzi egingo dutela da, eta portura iristen den gauza bakarra, ontzi huts usteldu bat izango dela.

Astegunero bezala, gaur nire hiru bilobetako bat etorri da. Astegunero bezala, muxu eman dit, telebista aurrean eseri eta umeentzako saio txoro bat hasi da ikusten. Astegunero bezala, galdera bat egiten diodan bitartean telebistari so dago, eta mugimendu txiki bat ere egin gabe, astegunero bezala, hitzak ez diren hizki elkartuak ateratzen dira haren aho txikitik. Zazpietan etxetik alde egitean, etorri ez balitz bezala sentitzen naiz. Ez dakit telebista arazoa den edo, baina nire biloba begietara begiratzen dudan bakoitzean, telebistaren garroetan egon ezean, xamurki irribarre bat ateratzen da haren ezpainetatik, eta begiek ezer jakingo ez balute bezala, inozente, nire begiradari so, zuzen, geratzen dira.

Hiru hilabete…

Alzheimerrak oroimena galarazten omen duela esan didate. Niri, ordea, orain hiru urte bururatuko ez zitzaizkidan kontuak etortzen zaizkit oroimenera…

*- Aitona, nora zoaz?*

*- Idiak saltzera Miguel, idiak saltzera. Zorian zoriz, 5.000 pezetetan salduko ditugu.*

*- Hori asko al da?*

*- Behar duguna baino gutxiago Miguel.*

Esaten dute Alzheimerrak pertsona bat lasai eta axolagabe egiten duela. Ni, ordea, gero eta biziago nagoela iruditzen zait.

Urtero bezala, Kontzepzio eguna eta gero, jaiotza jarri dugu etxeko egongela isilean. Gutxi falta da Gabonetarako, urtea bukatzeko…

Alzheimerraren kontua ia ahazturik dut, oroimeneko txokorik ezkutuenean gordeta. Ez litzaidake gustatuko, gogoratzen dudan azkeneko gauza gaixotasun hau dudala izatea. Horrexegatik nire betiko errutina jarraitu dut. Lagunekin ere atera naiz mus partida jokatzera. Nire lagunei ez diet gaixotasunaren berri eman. Ez dakit zergatik ordea, nire betiko…

*- Hi Miguel, ikusi al duk horko neska puska… ?*

*- Baaa…*

- *Erantzun!*

- …

- *Honek begiz jo dik orain ere… gaur arratsean izango du lana neska laguntzen.”*

…lagunak dira eta. Txikitatik nago haiekin: Juan, Martin, Joxemari.

Eguberri eguna gaur! Urteko errutina jarraituz, nire etxean egin da bazkaria. Etorri dira nire semea eta haren sendia. Gaur ez dago telebistarik, ez dago oztoporik nire bilobak zertxobait gehiago ezagutzeko. Hasi zaizkit kontu kontari gauzak kontatzen. Eskolatik, lagun artera, lagun artetik, solfeora. Gaur zoriontsu naiz!

Orain dela gutxitik gaur arte bezala, ordea, ez nago eroso, geldik eta patxadan. Beti zerbait egin behar dudalakoan nago. Semeak gelditzeko esaten dit, baina geldirik bat zahartu egiten omen da eta altxatu beharra dut.

- Aita! Eser zaitez eta egon lasai -esan dit, baina altxatu eta ate aldera joan naiz.

- Aita, itzuli!

- Aitona, nora zoaz? -Nahigabe eta nahita, biak batera, edo ez dakit nola, baina geratu, atzeraka begiratu eta…

- Idiak saltzera. Zorian zoriz, 5.000 pezetatan salduko ditut.

Bi biloba txikienak parrez hasi dira; handiena berriz, zur eta lur. Nire semea izotz bihurtu da eta emazteari ardoa kontrako eztarritik joan zaio. Ez dakit, nik ondo erantzun dudalakoan nago. Horrexegatik egin behar nuena alde batera utzi eta mahaian eseri naiz.

-Alzheimerra, Alzheimerraren sintomak aurkitu ditugu -esan zuenean, begiak indartsu itxi eta errukia eskatu nuen. Baina nire aita begiratzean, bere aurpegia ez zela aldatu konturatu nintzen, ez keinu bat, ezta hitzik ere. Zer zen hura? Ez al zion inporta? Zergatik? Ez nekien galdera horiei nik bakarrik erantzuten. Baina ez nintzen ausartzen beste inori  nire kezka adierazten. Zergatik?… ez dakit, agian zentzugabeko zerbait izan zelako, lotsa ematen zidalako,… zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta buruko min handiagoa jartzen zitzaidan. Horregatik gaia alde batera utzi eta nire bizitzan murgildu nintzen, nire munduan.

Ez zen gaixotasunaren berririk izan eguberri egunera arte. Ez dakit zergatik baina egun hartan urduri zegoen, ezin geldirik. Hori, ordea, ez zen izan okerrena… "idiak saltzera" zer esan nahi izan ote zuen aitak horrekin? Esanahi bereziren bat izango zuen? Ala buruak eragindako oker zentzugaberen bat zen besterik gabe? Dena dela, egun hartatik aurrera gauzak okertzen hasi ziren. Gero eta zentzugabekeria gehiago esaten zituen, gero eta urduriago jartzen zen. Momentu batean, biolentzia erabiltzen hasi zen. Mundu guztiarekin haserretzen zen, nire seme Mikeli makila eta guzti atera zion jotzeko. Denboraren poderioz, pixkanaka guztiaz ahazten hasi zen. Zail egiten da, beti zaindu izan zaituen aita batek zure izena ahaztea; gogor egiten da, noizbait zu zaindu zintuen bezala, zuk bera zaindu behar izatea.

Orain irribarrea sortzen dit, aitona Miguelek jaio nintzenetik ezagutu ninduela esateak. Orain irribarrea sorrarazten dit, noizbait bere besoetan kulunkan egon nintzela pentsatzeak. Orain irribarrea eragiten dit, harekin zenbat momentu egon nintzen pentsatzeak. Baina batez ere, negargura ematen dit egon nintzen momentu guzti haietan ze gutxi ezagutu nuen jakiteak. Orain, ordea, badakit ez dudala gehiago ikusiko, entzungo… ez dudala bigarren aukerarik.

Gogoratzen naiz astegunero bere etxera joan eta telebista ikusten jartzen nintzenean. Gogoratzen naiz, zenbat galdera egiten zizkidan, eta ze gutxi erantzuten nizkion. Eta ez dut ahazten nire aitonak eginiko azken irria, emaniko azken muxua.

Nahiz eta gaixotasunaren berri ez eduki, egunero egunero aitona Migelen etxera joaten nintzenean, aurreko egunean baina ahulago ikusten nuen. 6 urte izan arren banekien nire aitonari zerbait gertatzen zitzaiola, banekien nire aitona ez zela betikoa, gaixo zegoela. Baina kasu egin ordez telebista aurrean jarraitzen nuen itsatsirik, harik eta egun batean hitz egiten hasi eta nire izena ez zuela gogoratzen konturatu arte. Momentu hartan negargura sortu zitzaidan; momentu hartan jakin nuen nire aitona ez nuela gehiago ezagutuko, nire aitonak ez ninduela gehiago ezagutuko…

- Aitona ez nauzu ezagutzen? Erantzun!… -esan nion. Malkoei ezin eutsi eta negarrez hasi nintzen.

- Honek begiz jo dik orain ere… gaur arratsean izango du lana neska laguntzen -erantzun zidan. Ez nekien zer

esan nahi zuen horrek baina besarkatu, muxu bat eman eta …

-Maite zaitut, aitona -esan nion.

-Maite zaitut, aitona -esan zidan. Ume hura nor zen ez nekien. Zergatik esan zuen hori ez nuen konprenitzen, baina oraindik banekiena hitz horien esanahia zen, horrexegatik bakarrik…

…besarkada bat eman zidan…

- …muxua itzuli nion…

- …nik ere maite zaitut -esan eta…

- …nik noizbait ikusitako irribarrea agertu zen ume goxo haren malkoz bustitako masail artean.

# Bi mundu bakarrean

Olaia Irigoyen Iriondo
Elgoibar ikastola
Elgoibar

Gatzik gabeko ogi txigortu bat, infusio okagarri bat eta kolore desberdineko hiru pilula. Horiek dira goizero nire begiek ikusten, nire sudurrak usaintzen eta nire ahoak dastatzen dituen “elikagaiak”. Nik pertsonalki ez diet gauza nazkagarri horiei “elikagai” deitzen, baina erizainek egunero horiei erreferentzia egiteko hitz hori erabiltzen dutenez, nik ere hala egin beharko dut hemendik aurrera. Bazkari, askari eta afariak gosariak baino okerragoak dira zenbaitetan, baina goizetan hartu behar izaten ditudan pilulen kopurua beste jatordu guztietakoa baino handiagoa denez, gosariak hartzen du horien arteko lehen postua. Noski, okerrenaren postua. Sendagilea astean behin etortzen da zentrora eta azterketa medikoa egiten dit. Beti esaten dit gaztetxo baten parekoa naizela, oso sasoitsu nagoela eta nire gorputzak bikain lan egiten duela , baina, hala eta guztiz ere, beti amaitzen du sendagai berriak agintzen. Inozotzat hartzen nauela uste izaten dut zenbaitetan. Bi urteko ume baten antzera hitz egiten didate, eta zenbaki hori berrogei zenbakiaz biderkatuz gero, horra nire benetako adina: laurogei urte. 80 zenbakia benetan garrantzitsua da. Pentsatzen jartzen bagara, 80 dira Jules Verne idazle frantziarraren “Munduari bira 80 egunetan” nobelaren Phileas Fogg izeneko pertsonaia nagusiak munduari bira emateko behar izan zituen egunak.

Nolatan ematen didate haur baten tratu berdina? Askotan izugarrizko iskanbilak izaten ditut Frida izeneko erizainarekin. Berak ez du errua, nik oso ondo dakit hori, niretzako onura besterik ez du nahi, baina drogatzat funtzionatzen duten pilulak eta "elikagai" horiek ematen dizkidana bera da. Hortaz, berak jasan behar izaten ditu nire hitz jario eta garrasi guztiak lau pareta zuri triste hauen artean. Badira bost urte bihotzeko txiki bat izan nuela, eta Belanie-k, nire alaba bakarrak, zaharren egoitzara ekarri ninduela. Astean birritan egiten dit bisita, eta atetik sartzen den bakoitzean, bere ama zenaren irudi argia ikusten dut. Duela bi egun egin zuen azken agerraldia hemendik eta idazlan bat egiteko eskatu zidan. Bai, idazlana esan dut. Jende askok pentsatzen du idaztea lelokeria bat dela, denbora galtze bat alegia. Ongi da, pertsona horien ikuspuntua errespetatzen dut, guztion pentsamendu, ikuspuntu eta iritziak entzutea eta onartzea ezinbestekoa delako, baina jarraian esango dudanak iritzi, pentsamendu eta ikuspuntu horiek guztiak aldatzea edo behintzat horien inguruan erreflexio sakon bat egitera bultzatzea espero dut. Alabak zehazki eskatu zidana zera da: bere amaren, hau da, nire emaztearen eta nire istorioa xehetasun osoz idaztea bere jatorria zehazki ezagutu dezan. Benetan poztu ninduen Belanie-k hori eskatzeak, batez ere, hori dena jada idatzita dudalako. Ongi da, ez dago paperetan idatzita, baina grabatuta dago bai nire buruan, gizakion ordenagailuan, eta bihotzean, gizakion urrezko altxorrean.

Beraz nire grabatutako hitzak idazteari ekingo diot gaur arratsaldean, baina ez dut lau pareten artean egingo, ez horixe! Fridak eramango nau ibaiertzera nire lagunik onenaren gainean, gurpildun aulkian, eta koaderno eta bolaluma baten laguntzaz bikain egingo dut. Ibaiertzean

egingo dut, Jacquelin-en lekurik gogokoena zelako. Beti zioen ibaia lasaitasunaren, sekretuen eta isiltasunaren gordailua zela, eta igandero bertara joaten ginen. Bai, leku perfektua da. Orain, martxan jartzea da kontua.

*Gure Lur planeta ederraren barnean milioika mundu daude, 7.000.000.000 inguru. Pertsona bakoitza mundu bat da, mundu desberdin eta misteriotsu bat. Pertsona bakoitzaren mundua bakoitzaren bizitza da, ederra bere osotasunean. Bizitza ez da beti krabelin gorri ederrez beteriko bide laua, ez horixe, bidean zehar arantza asko daude, arantza sendo, zorrotz eta mingarriak. Nire bizitzako momentu lauak eta momentu zorrotzak balantza batean jarriz gero, ez zen mugitu ere egingo, bizipen gogorrak onak bezain ugariak izan direlako. Haurtzaroan eta gaztaroan nire munduan arantza asko izan ziren, guztiz zauriturik utzi nindutenak. Horiek sendagairik ez zutela uste nuen momentuan bertan iritsi zen nire bizitzara gure planetan existitu litekeen oparirik ederrena, zauriak poliki-poliki sendatu zizkidana eta bizitza momentu askotan krabelinez beterikoa bihurtu zuena. Hura zen, da eta beti izango da nire bizitza krabelinez beteriko bidea bihurtzen duena, nahiz eta bera hemen, nire alboan ez egon duela hamabost urte ingurutik. Opari hori, biolentziaz eta malkoz beteriko haurtzaro eta nerabezaro horietatik atera zidan pertsona da: Jacquelin Anderson, nire emazte, alabaren ama, eta ezagutu dudan pertsonarik ederrena.*

*1950. urtean bi mundu berri sortu ziren, bata Ohio-ko estatuan eta bestea Pennsylvaniakoan. Bata ni, Richard Spencer, Ohioko etxe txiki eta zahar batean jaio nintzena, eta bestea Jacquelin Anderson, Pennsylvaniako nekazaletxe behartsu baina aldi berean aberats batean jaio zena,*

*eta beti inor baino gehiago maite izan dudana. Familia hura egoera ekonomiko aldetik behartsua bazen ere, pertsonei laguntzerako orduan inoiz ezagutu dudan aberatsena zen.*

*Lehenago aipatu dut nire munduaren sorreraren lehen pausoetan dena oso gogorra izan zela. Lehenik, bi urte nituela, ama hil egin zen nire nebarik gazteena erditu bezain laster. Bigarren, alkoholak guztiz kontrolaturik izaten zuen gure aita zena. Gainera, arreba nagusia nik zazpi urte nituela azal kolore iluneko mutil batez maitemindu zen itsu-itsu. Garai haietan hori onartezina zen, oso gaizki ikusia zegoen, eta aitak haren berri izanez gero, agur arrebaren askatasunari. Goiz batean, esnatu eta egongelara joan nintzenean bi pertsona algaraka ikusi nituen, haien barre algaren soinuak gramofonotik ateratzen ziren Duke Ellington jazz abeslariaren ahotsak eta musikak estaltzen zituelarik. Lehenengo aldiz ahizpa pozik ikusten nuen, aske, maitatzen eta errespetatzen zuen pertsona batekin zegoelako. Askotan esaten da pertsonak laranja baten erdia garela, eta beste erdiaren bila bizitzeko jaioak garela. Batzuek ez dute osotasun hori lortzeko falta zaien zatia aurkitzen, baina hamazazpi urteko arrebak oso bizkor aurkitu zuen berea. Hamabost minutu igaro nituen atearen bazterretik burua aterata ahozabalik, begiak behin ere kliskatu gabe; hain ziren zoriontsu! Konturatu gabe pilota bat erori zitzaidan egurrezko lur zaharrera eta zarata egin zuen. Lau begi niri begira ikusi nituen. Barkamena eskatu nien arrebaren urduritasun aurpegia ikusi bezain laster, eta segituan aurkeztu zidan irribarre ederra marrazten zion pertsona eder hura, benetan pertsona miresgarria eta bihotz onekoa zen. Musikaren erritmoan dantza egiten saiatu nintzen…*

Tira, Richard, badakit poliki-poliki memoria galtzen zoazela, zure ordenagailuaren bateria xahutzen ari dela, baina idazlan hau oso garrantzitsua da zure alabarentzat ,eta egin beharra daukazu. Ez, harri haietan ikusten ari zaren gauza hori ez da antxeta bat, ezta ahate bat ere, plastikozko poltsa bat da. Gizona, gaur egungo ingurumena guztiz suntsituta dago, zu gaztea zinenean zegoena baino askoz ere gehiago. Bai, gogoratu dut! Ordenagailuko bateria une txiki batez bada ere birkargatzea lortu dut!

*…Eta hamabost minutu algaraka igaro ondoren, bizitzan inoiz gehiago entzun ez ditudan algarekin batera aitak lapurtutako SEAT 600-a ikusi nuen kalearen amaieran:*

*- Aitatxo dator!- esan nuen.*

*Jarraian entzun nituen hiru esaldiak nire ahizpa kuttunaren ahotik irtendako azken hitzak izan ziren.*

*-Ez maiteño, gure artekoa benetakoa da, ezin dugu hori egin.*

*- Zer egin bestela? Arraza zuri eta beltzeko bikote gazte bat besterik ez gara. Zer dago gaur egun hori baino gauza onartezinagorik?*

-…

*Eta azkenik niregana zuzenduz esan zuena:*

*- Zaindu beti maite duzun hori, izan ausarta txikitxo!*

*Momentu hartan irribarre eder bat eskaini nion, baina ahizpa gehiago itzuli ez zela ikusten aitaren erreakzioak dena azaldu zidan:*

*- Beltz nazkagarria! Beltz nazkagarria Beltz…*

*Hori besterik ez zuen errepikatzen behin eta berriz. Auzokideen erreakzioa ere ez zen atsegina izan, ez horixe! Eta horrek aita asko mindu zuen, eta min hori alkoholaren bidez konpontzen saiatzen zen, edo zertxobait leuntzen behintzat. Hemezortzi urte bete nituenerako, aita ezezagun bat zen, sabai berdinaren azpian bizi zen ezezagun bat. Hortaz, agurrik gabe etxetik alde egin nuen, zerbait berria, zerbait zirraragarria bizitzeko asmoz, edota besterik gabe, bizitzeko asmoz.*

*Alde egin nuen egun hartan, nire gorputz gazte eta sasoitsua, soinean neraman arropa eta poltsikoan nituen pare bat txanpon besterik ez nituen. Beno, hori gezurra da, gogoa neukan, mundu honetan oso beharrezkoa den gauza bitxi hori: gogoa. Bi txanpon horiei esker autobus bat hartu ahal izan nuen, hori bai, helmuga zein zen jakin gabe. Niretzako berria zen leku batean geratu zen autobusa, Pennsylvania izeneko estatuko herri bateko kanpoaldean. Garai haietan heroi gihartsu eta ausarten filmak nire galbidea ziren, eta noski, birritan pentsatu gabe haiek nire kasuan egingo luketena egin nuen: senari jarrraitu (edozein bidetatik abiatu). Bai, asmatu duzu, bidean galdu egin nintzen. Argi dago filmak filmak direla eta pantailaren barnean geratzen direla bizitza errealetik urrun, oso urrun. Orduak igaro nituan hara eta hona intsektizida bota berri dioten eltxo baten antzera, urrutian herri bat ikusi nuen arte. Bertara korrika joan eta lehenengo aur-*

*kitu nuen eraikinaren aurrean geratu nintzen, Irakurri nuen sarrerako idazkunean musikari buruzko zerbait, baina gosearen gosez eta egarriaren egarriz ez nion kasurik egin eta bertara sartu nintzen. Atea gurutzatu bezain laster, foku more batek guztiz itsutu ninduen, eta jarraian ikusi nuenak are gehiago. Handia, elegantea, luxuzkoa zen leku hura. Hormetan hainbat margolan eta erretratu zeuden, guztiak azal kolore beltzeko musikarienak. Sabaia lanpara handi eta distiratsuez josita zegoen. Mahai-zapi beltzetan edari garestiak besterik ez zeuden, eta haien inguruan eserita azal kolore beltzeko pertsonak aurkitzen ziren. Jantzi dotoreekin jantzitako pertsona haiek oso pozik zeuden, edo hala iruditu zitzaidan niri behintzat. Arrebaz gogoratu nintzen momentu hartan, eta nire pentsamenduetan murgildu nintzen mikrofonotik ateratzen zen emakume baten ahotsak lurreratu ninduen arte. Emakume esan al dut? Barkatu, aingeru esan nahi nuen. Zerutik eroritako aingeru bat zen, eta haiek bezala abesten zuen, noski. Berak ez zuen foko itsugarri horien beharrik, berezko argia baitzuen. Ez dakit zergatik, baina lehenenbizi oinetara begiratu nion. Takoidun zapata gorri batzuk zeramatzan, bere azal kolore beltz ederrarekin kontraste benetan polita egiten zutenak. Jarraian, zintzilikariz beteriko soineko beltz ederra ikusi nuen. Hori dena benetan ikusgarria zen, baina begietara begiratu nionean, zerbait berezia gertatu zen, denbora geratu egin zen niretzako, eta baita aingeru harentzako ere, bera ere nire begiei begira geratu baitzen. Gure begiradak iltzatu egin ziren eta momentu hartan jabetu nintzen lehenago aipaturiko zati erdi hori, laranja erdi hori aurkitu berri nuela. Egia esan, ez nuen nik bera bilatu, ezta berak ni ere. Esan genezake patuaren indarrari esker izan zela. Une hartan gu ginen bakarrak, ez zen inor gehiago existitzen; ez zeuden 7.000.000.000*

*mundu, begirada bakar batez loturik zeuden 2 mundu besterik ez zeuden. Bi mundu bakarrean.*

*Egun hartatik aurrera elkarrekin igaro genituen orduak, egunak, asteak, hilabeteak eta urteak. Bere bizitza osoa azaldu zidan, eta nik nirea azaldu nion. Familia behartsu batekoa zela esan zidanean, ez nion sinetsi, ezagutu nuen egunean zeraman soinekoak ez baitzeukan merke itxura, ez horixe! Hori esan nionean barre algara arin bat egin zuen, eta bere amaren eta bere arteko lan gogorraren emaitza zela esan zidan. Tabernako buruzagi eskuzabalari esker zerbitzari bezala lana lortu nuen berak abesten zuen leku berean. Zure amak, Jacquelinek abesten zuen bakoitzean bezeroak haserretu eta kexatu egiten ziren kasurik egiten ez nielako, hain zen ederra bere ahotsa! Dena oso ondo zioakigun auzo afroamerikarrean bizi izan ginen bitartean: lana geneukan, zu, gure oparirik ederrena, mundura iritsi zinen, eta maitasun faltarik ez geneukan. Zer gehiago behar du pertsona batek zoriontsu izateko?*

*Hamar urtez bizi izan ginen auzo hartan, eta biok hogeita hamar urte bete genituenean, zuk bost urte zenituela, beste auzo batera lekualdatu ginen. Lekualdaketa hori izan da bizitzan egin dudan gauzarik okerrena. Auzo hartan azal zuridun pertsonak bakarrik bizi ziren, eta noski, garai haietan oso gaizki ikusia zegoen azal kolore zuriko eta azal kolore beltzeko bikote bat. Uste baino lehenago hasi ziren gure familia gutxiesten eta hiruron eguneroko bizitza pertsona( edo monstruo) horien aurrean oharkabean igarotzean oinarritzen zen, etengabeko borroka zen hura. Zure amak eta biok barnean genituen indar guztiak atera genituen egoera horri aurre egiteko, baina borroka hartan zure amari nerbio-depresioak irabazi egin zion.*

*Poliki-poliki, urteen poderioz, aingeruaren berezko argia itzaltzen joan zen guztiz itzali arte. Eta zuk ondo dakizunez, duela hamabost urte gure albotik joan zen. Nik beti esan izan dut, eta esaten dut berak sendatu zizkidala haurtzaroko eta gaztaroko arantzen zauriak, eta berari esker nagoela hementxe, laurogei urterekin, munduko alabarik maitagarriena alboan dudala.*

Beno, jada bukatu dut nire eskuizkribua eta aitortu beharra daukat eskua eta atzealdea jada hilik ditudala. Zerua iluntzen dagoela ikusten ari naiz, hortaz, nire lagunaren gainean itzuli beharko naiz berriz ere kartzela horretako lau pareten artera. Kaka zaharra!

Jada iritsi naiz 250 zenbakia duen gelara, edo beste modu batera esanda, infernura.

- Hau da hau poza! Eskerrak zu hemen zauden kobazulo honi argia emateko!

- Kaixo aitatxo! Idatzi al duzu lehengo egunean eskatu nizun idazlana?

- Bai, tori, hemen daukazu.

- Mila esker aita, ez dakizu zenbat eskertzen dizudan!

Elkar besarkatzen ari gara eta begietatik aurpegian behera pare bat malkok ihes egin didatela igartzen ari naiz. Horiek alkandoraren laguntzaz desagerrarazten ditut eta hau esaten diot nire alaba kuttunari:

- Maitea…

- Zer aitatxo?

- Zaindu maite duzun hori, eta gorde ezazu giltzapean zure urrezko altxorrean betirako.

# Zergatik?

Mireia Yurrita Senperena
La Salle-San Jose ikastetxea
Beasain

Zergatik? Horixe nire aurrean suntsipena bakarrik ikusten nuenean pentsatutakoa, ordura arte gertatutako guztia nire burmuinetik ezabatu eta berriz ere hutsetik hastea erabaki nuen egunean gogoan neukana. Mundua ankerra da, bai, baina krudeltasun horrez gain, zoratuta dagoela argi geratu zen nire garunetik ezabatu ezin dudan egun horretan. Zer egin zieten bada defentsarik ez zuten pertsona horiek? Inolako errurik ez eta beraien biziarekin ordaindu behar izan zutenek? Gurasoak, izeba-osabak, anai-arrebak… familia osoak lurrean, beraien bizitzak bukaerara iritsi zirenean laguntzarik gabe baztertuak, bertan behera utziak, animaliak balira bezala. Milaka pertsona noraezean, zer egin jakin gabe, beraien ilusio guztiak ordu gutxitan suntsituak zirela ikustean, mendeak ziruditen orduak, ordu bukaezinak.

Apirilaren 26a, azoka eguna. 1937ko astelehen horretan eguzkiak alfer borrokatzen zuen zerua estaltzen zuten lainoen kontra. Ezinean zebilen, ipar haize horrek ekartzen zuen freskura nolabait goxatu nahian. Udaberriko lehen eguzki izpiak, itxaropenaren seinale. Negu luze eta hotzaren ostean, uda beroaren adierazgarri.

Itxaropena. Hitz horrekin hasi genuen eguna, bai, baina horixe izan zen ere, gaueko iluntasunak eguna estali zuenean inork buruan ez zeukana.

Salmenta onak egiteko itxaropena. Pobrezia hori pixka bat eramangarriagoa egingo zuen dirua lortzeko esperantza. Sei seme-alaba elikatzeko nire amatxok behar zuen dirua, gu guztiontzat oso beharrezkoa zena.

Honelaxe bada, hasi genuen azoka eguna, aste horretan eginiko gaztak saltzeko asmoarekin. Amarekin batera gurdia hartu eta Gernikako erdigunera iristeko falta ziren 2 kilometroak egiteko asmoz. Egunak nahiko lasaia zirudien, hegazkinak bueltaka zebiltzan ohikoa zen bezala zeruan barrena. Metalezko txori erraldoi horiek nagusitasunarekin begiratzen zuten beherantz, hor goitik gure pausu guztiak kontrolatzeko gai izango balira bezala.

Gerra garaia zela frogatzen zuten aztarna horiek kontuan hartu barik, aurrera jarraitu genuen, gure helburua lortzeko asmoz. Bertara iritsitakoan, Mari Carmen bizilagunari “Egun on!” alai batekin kasu egin eta gure betiko txokorantz abiatu ginen.

Dena betiko moduan. Hildako animalia batez gain, ez zegoen inolako nobedaderik. Dena bare-bare zegoenean iritsi zen ekaitza. Mota guztietariko suzko arma eta abarrek piztu zuten trumoien burrunba, beraien hots gorgarriarekin isilunerik txikiena ere bortxatuz.

Arratsaldeko lau t’erdiak ziren inork espero ez zuena gertatu zenean, horrenbesteko denboran bueltaka ibilitako

hegazkinek beraien benetako asmoak erakutsi zizkigutenean.

Kanpaiak handik momentu gutxitara gertatu beharrekoa iragarri zutenean, nire lagun Juanarekin berriketan nenbilen. Santa Mariako kanpandorreak ordara jotzean guztiok genekien infernuaren hasiera bakarrik zela hura, hiru orduz luzatuko zen amesgaiztoa, gaur egun gutako batzuk bakarrik kontatu dezakegun gertaera tamalgarria.

Bat-batean agertu ziren guretzat hasiera batean ikustea ezinezkoa ziren hegazkinak, gerra hegazkinak, txanda honetan intentzio txarrez zetozenak. Bonba astunak eta granadak ikustea lortzean, azokatik aldendu eta ahal zen moduan geure burua babestera joan ginen. Baina zein zen aukeratu beharreko bidea? Nola saihestu ahalko nituen leku guztietatik barrena zeuden militar horien arma mingarriak? Su garrez inguratzen hasi zen herriko plaza, deabruaren atzaparretatik ihes egin nahirik zebilen jendea, bueltaka lurretik barrena zeuden traste guztien artean salbaziorako bideren bat aurkituko ote. Oihuak nonahi, mota guztietako izenak entzun nitzakeen airean, haizeari beraien senideak aldamenera ekartzeko arren eskatzen ari ziren pertsonen erreguak senti nitzakeen nire belarrietan zehar.

Nahastearen erdian, ume negartxo batzuk entzun nituen, ama nolanahi bilatu nahi zuen ume baten marruak. Halako egoera batean, bi aldiz pentsatu gabe haurra nire besoetan hartu eta keaz betetzen ari zen plazatik ahal nuen guztia aldendu nintzen. Etsipena nagusi den uneetan erabaki azkarrak hartzen dira, egia esan ez nuen inoiz pentsatu semearen bila ari zen amak ere bere falta sumatuko zuenik, bizia salbatzea zen garrantzitsua orduan.

Beste txikikeriek ez zuten inporta, eta aurpegi maitagarri horrek errukiturik, nire senari jarraitu nion.

* * *

- Luis, zer egiten duk hor?

- Zulo honetan sartzen banauk, ni akabatzeko betebetean asmatu beharra ditek, hi ere sartu hadi!

Baina nire laguntxo berria erakustean, alde batera utzi nuen ideia hori. Ez pentsa buruari birarik eman ez nionik, zulo horrek leku ona izan zezakeen, beste toki bat bilatu behar nuela erabaki nuen, ordea. Ehunka pertsona jarraituz mendialderantz jo nuen lasterka.

Hegaldi baxua zekarten oraingoan, inoiz baino gertuago pasa ziren gure gainetik, beraien metrailetekin gure bizia mehatxatzen. Iseka egitera ausartu zenik egon zen, baina han bukatu ziren emakume ausart haren hitzak. Momentuan bertan, gu guztion aurrean, tiro egin eta lurrera seko erori zen, bere gorpuaren ondoan odol ibai bat utziz. Herri baten mina irudikatzen zuen odola zen hura, gu guztioi abisu bat ematen ziguna, herriaren garai hartako 5.000 biztanleren sufrimendua irudikatzen zuena.

Begiak ondo ireki eta haurtxoa besoetan tinko estuturik nire ibilaldia jarraitu nuen arineketan, atzera begiratu gabe. Eskuak gutxinaka-gutxinaka bustitzen joan zitzaizkidan urduritasunaren seinale, honela nirekin neraman umearen gorputza pixkanaka irristatzen zitzaidalarik. Nire aurpegian ere erraz ikus zitekeen bizitzen ari nintzen egoera kritikoak sortzen zidan izua, ingurura etsaia ondoan edukiko banu bezala begiratzen nuen bitartean. Berriz ere

zaratak isiluneak betetzen zituen, metraileten eta bonben burrunba saminaren eta sufrimenduaren etsipenarekin nahasten zenean. Nire bihotzak baimentzen zidan jokaera adoretsuenarekin iluntasunaren artean eguzki izpi baten bila jardun nintzen itsu-itsuan. Ezin nuen nire bizileku izandako Gernikaren suntsiketa ikusi. Ezin nituen jendearen oihuak entzun. Ezin nuen hilketa usain hura jasan. Mendekuaren zaporea dastatzen ari ziren soldadu horiei Jainkoak merezitako zigorra ezartzeko bakarrik errezatzen nuen, momentu horietan eragiten ari ziren guztiagatik ordain zezaten.

Iluntzeko zortziak. Ordu horixe nire begi itsuei hesgailua kendu eta berriro ere atzera begiratzeko ausardia eduki nuen ordua. Sugarretan erretzen ari zen Gernika ikusten ari nintzen. Horrenbeste bizipen, horrenbeste algara, horrenbeste istorio… dena erraustua. Alemaniatik eta Italiatik etorritako soldaduak zirela esan ziguten. Ez gintuzten ezagutzen, ez zuten gure egoeraren berri, beraiek tiro egitean bakarrik pentsatu zuten, honek eduki zitzakeen ondorioak hausnartu gabe. Haiek nire bihotzaren zati handi bat suntsitu zuten, inongo arrazoik gabe. Ehunka pertsona bizilekurik gabe utzi zituzten bai eta beste ehunka zauritu ere, eta hori guztia zertarako? Ba al dago bada arrazoirik inondik inora ezagutzen ez duzun pertsona bati modu honetan bizia bere eskuetatik kentzeko?

Herri guztiaren ikuspegi ona zegoen muino batean eseri eta bertatik ezintasunari eusteko gai izan ez eta negar malkoak azaleratzen zitzaizkidan. Zerbait egin nahi baina ezin, lagundu nahi baina hau ere ezin. Ezer egiteko gai ez nintzen, ez neukan suntsipen hura konpontzerik. Niretzat herri horrek ez zuen etorkizunik. Nola berreraiki berriz

horrenbeste lanekin altxatutako gure herria? Nola lortu berriz Gernikako biztanleriak bizi osoan zehar edukitako ohiturei jarraitzea? Nahigabea alde batera utzi eta berriz ere tradizioak aurrera eramateko gai izango ote ginen, bada? Ezinezkoa zen. Jadanik ez nekien zer pentsatu, zer egin, nora jo… Ez neukan ez jatekorik, ez jantzirik, ez eta nire penak kontatzeko inor. Galdua nengoen guztiz nahasirik zegoen nire garunean. Halere, dena alde batera utzi eta amore ematea pentsatu nuenean, barne-barnetik indarra atera eta aurrera begiratu nuen.

Honela, nire kezka eta buruhausteak esfortzu handiarekin lasaitu ostean, herrira jaitsi eta ezagunen bila hasi nintzen, kide berriarekin batera. Kale nagusian barrena, noizbait ikusitako pertsona baten gorpua animalien gorpu eta beste horrenbeste trasteren artean identifikatzeko gai izan nintzen, baina ez nuen familiakorik ikusten.

Ordu batzuk aurrerago "bisitatutako" zulora heldu, bertara hurbildu eta nire lagun Luis zegoen begiratu nuen. Bai, hantxe zegoen, baina ez nik nahi izango nuen modura. Bere gorpu hilak bertan zirauen, odola zuela inguruan.

Ezin nuen etsi. Inguruan ikus nitzakeen pertsona, animalia edo behera eroritako eraikinek ezin ninduten atzera bota. Askotan esan ohi genuen bezala "ogi gogorrari hagin zorrotza" jarri eta aurrera jarraitu nuen. Aurrera, guztiz suntsiturik zegoen nire bihotzeko Gernikako kaleetatik barrena, baina azken finean, aurrera.

126 hildako eta milaka zauritu. Hori izan zen Euskal Herriko historiako bonbardaketa garrantzitsuenetako ba-

ten emaitza. 126 familia suntsitu. Milaka pertsona etxerik gabe, noraezean, beraien lekua bilatu nahian.

Horietako batzuk, nik egin nuen bezala, herrian jarraitzea erabaki zuten, bertan gelditzen zen gutxiari eutsi eta berriro ere guztion bizileku izango zen herria eraikitzeko. Gernika berria. Bakearen adierazgarri izango zen Gernika, memoria ikaragarri horiek berriro gertatu ez zitezen borroka egingo zuen Gernika, itxaropenaren Gernika.

Beste batzuk, ordea, herritik alde egin eta beraien etorkizuna beste lurralde batzuetan sortzea pentsatu zuten. Hauek ere, atzean utzi nahi izan zuten bertan bizitakoa, toki hartatik ahal zuten guztia aldenduz.

Sufrimendu hura gogoratzen dudan bakoitzean, galdera bat etortzen zait burura: Zergatik? Eta hau erantzuten saiatu naizen bakoitzean gauza bakarra ondorioztatu dut, mundua ankerra da, bai, baina krudeltasun horrez gain, zoratuta ere badago.

# Gau luzea

Mattin Aranburu Guridi
J. M. Iparragirre institutua
Urretxu

Buelta erdia eman eta leiho aldera begiratu dut, bertan, ordea, iluntasuna besterik ez dut ikusi, pareko etxearen profil lausoa. Badira pare bat urte bertan inor bizi ez dela. Pisuaren azpian, hiruzpalau metro beherago dagoen pubak ateak zabalik utzi ohi ditu eta mozkorren oihuek eta Real Madrilen golek ez dute lo egiten uzten Labeaga kalean. Gaur, ordea, isiltasuna da nagusi. Isiltasuna. Arraroa, egun seinalatua izanik ia mundu osoko egutegietan. Honetan pentsatzen ari naizela, oraindik leihotik begira, nire begininiak dilatatzen hasi direla ohartu naiz. Dagoeneko nire anaia zaharraren gitarra ikus dezaket, laneko mahaiaren alboan. Baita nire txikitako argazkiak ere...

Besoa lokartu zait buruari bueltaka nabilela. Posturaz aldatu eta beste aldera zuzendu ditut begiak, nire anaiaren ohe aldera. Lo dago, erraz hartzen du lo, nik ez bezala. Gaueko ordu txikietan ohean egoten naiz, alde batetik bestera jira-biraka edo buruari bueltaka, gaur bezala. Tarteka ideia bitxiak izaten ditut, askotan pentsatu dut etorkizuneko makina batean, botoi gorrixka bat sakatuz lo harraraziko lukeena. Nik dakidala, oraingoz ez da horrelakorik asmatu, beraz, nire pentsamenduak eta burutazioak idazten ditut, ordenagailuaren aurrean lo hartu arte. Gaurkoan be-

zala. Gaur, ordea, arrazoi berezi bat du nire lo egin ezinak, abenduaren 24a egun garrantzitsua da, gero!

Magikoa da garai hau, bai horixe. Lagunen eskutitz zabarrak, izeba Andrearen postal zainduak edota anaiaren Christmas lehiaketarako gutun perfekzionistak, denak batera belen eder baten alboan, egongelako mahai gainean gailetak eta ardo goxoa, Olentzeroren sabelera noiz iritsiko zain… Denetan onena, halere, duela pare bat ordu amaitu dugun afaria. Aurten ere ez dut lortu alkohol tantarik edatea; xanpain apur bat eskatu diodanean osabari, denak barrez hasi dira eta xanpaina eta sagardoa kendu dituzte nire ingurutik, badaezpada.

Nire lehengusu Eñaut eseri da parean, sei urte bete berri dituena eta hantxe aritu da, jo ta ke, Olentzero harrapatzeko egin dituen planak kontatzen. Mahaitik altxatzean Olentzero nire etxera iristen ez bada, ez harritzeko esan dit, bere logelan egongo baita, berekin batera opariak irekitzen, eguzkiak Urretxuko zerua argitu arte.

Goizaldeko ordu-biak aldera, ohiko algara eta oihuak entzuten hasi naiz. Ordu-biak eta erdi aldera, berriz, petardoak lehertzen hasi dira. Honek nire pentsamenduetatik aldendu nau. Pertsianak guztiz jaitsi eta mahaiko argi ahula piztu dut, ondoren, kostata baina lortu dut libururen bat eskuratzea. Betaurrekoak jarri, liburua ireki eta irakurketari ekin diot, ez ordea luzaroan. Ez dago hasieratik irakurlearen interesa pizten ez duen liburua irakurtzea baino gauza aspergarriagorik eta, zoritxarrez, horietakoa da eskuartean dudan liburua.

Kontuz-kontuz, anaia esnatu ez dadin, liburua gainen batean utzi, argia itzali eta ohearen ertzak ukituz komunerako bidea aurkitu dut.

Komuneko atea itxi eta argia piztu dut. Bonbilla alu horrek ia itsutu nau! Eskuekin begiak argitasun itsugarritik babestuz komuneko tapa hotzaren gainean eseri naiz eta bat-batean, nekeak jota edo, bertan lo hartu dut.

Konturatzerako amets arraro batean murgildu naiz; Eñautekin hitz egiten bukatzean, gurasoekin eta anaiarekin batera etxera itzuli ordez etxe ondoko tabernara sartu naiz, barraren alboan eseri eta garagardoa eskatu dut. Hamalau urteko mukizu bat nintzela ikustean, zerbitzariak, tabernaria eta bezero guztiak barrez lehertu dira eta haserre, tabernatik irten naiz, maldizioka.

Kalera irtetean, jertsea barruan utzi dudala oihukatu dit zerbitzari batek, baina amorruak gainezka korrika alde egin dut.

Bat-batean industrialde abandonatu batean agertu naiz eta ikaragarrizko hotza sentitu dut kamiseta finaren azpian. Nonbait, fabriken artean edo, bi petardo lehertu direla entzun eta bertara abiatu naiz, sutan, leherrarazi dituenari pare bat gauza esateko asmotan. Iritsi naizenean, ordea, mutututa eta mugitu ezinik, aurrez  aurre dudan gizonari begira gelditu naiz. Trapu bat du ezker eskuan eta pistola bat bestean. Pistola garbitzen hasi da baina, berehala ikusi nau. Zorrotz begiratu nau eta gelditzeko esan dit, baina korrika hasi naiz, ahal bezain azkar eta orduan… pum!

Arnasestuka esnatu naiz, izerdi hotzetan blai eta ingurura begiratu dut, ez dago tabernaririk, ezta pistoladun gizonik ere, komuna besterik ez. Iturria ireki eta kopeta busti dut ur hotzez. Orain hobeto nago. Ordulariari begiratu eta hasperen luze bat egin dut, hirurak eta erdi. Ia hiru ordu laurden egin dut lo komuneko tapan eserita.

Anaia esnatu gabe ohean sartu naiz, eta lehenago lo hartzeko esperantzarekin ardiak saltoka imajinatzen saiatu naiz. Ardi bat, bi ardi, hiru ardi... hogeita laugarrenean kontatzeari utzi diot.

Begiak ixten hasi zaizkit, poliki-poliki, betazalak bi pertsiana bezala guztiz jaitsi diren arte. Kaleko zalaparta gero eta urrutiago entzuten dut, urrutiago, azkenean isildu den arte. Buruan ditudan pentsamenduak desagertzen hasi dira, apurka-apurka nire burutik joaten, burua hutsik geratu zaidan arte. Arnasa sakon hartu eta giharrak erlaxatu ditut, lo hartu dudan arte.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Autopsia

Leire Alonso Allue
Askatasuna institutua
Burlata

## AUTOPSIA GELA

Bero egiten du
hildakoen bizitokian.

Ez da hotza.
Hotza espero nuen.
Giroa.
Gela.
Heriotza.

Baina berogailua piztuta dago.
Eta irratia.

Labanak daude izkina batean,
kolore eta tamainen
arabera ordenatuta.

Mantal berdea
eman dit medikuak.
(Medikua da.
Nahiz eta
bizitzak beharrean
heriotzak salbatzen dituen.)

Eta latexezko eskularruak, *badaezpada*.
Ezetz esan diot,
nik autopsiak boligrafoarekin egiten ditudala.

## GORPUA

Plastikozko poltsa zuri handia.
Metalezko ohatila.
Hozkailutik atera berri.

Guraizez urratu dizkiote
prakak.
Horregatik
heriotzari beldurra
(guk prakak urratu baino lehen
guri urratuko dizkiguten
beldur gara).

Nortasun agiria mahai gainean.
Ez da inor.
Hogeita hamaika urteko marokoarra.
Inork erreklamatu gabeko gorpua.
Hildakoa. Izenik gabea.

Nortasun agiria ondoko mahaian.
Nortasuna galdu du.
Poltsikotik eroriko zitzaion
bizitzatik heriotzarako bidean.

## SAIHETSAK

Saihetsak moztu dizkiote
guraizez.
Umetan izozki makilak
mozten genituen bezala, *klak*.

Organoak igerian
ditu toraxean.
Oraindik ez dute
bidaia amaitu, nonbait.

## BIHOTZA ETA BIRIKAK

Moztu, moztu, moztu.
Tira.
Dena batera lapurtu diote,
bihotza eta arnasa.

Eta ez du zirkinik egin.

Printzesen ipuinetan
ez zen hain erraza
bihotzak lapurtzea.
Gero itzuliko baliote, sikiera…
Baina inork ez du
gorpua erreklamatu.
Bihotzak ez zuen
jaberik izango.

**BURMUINA**

Zerraz ireki diote
burezurra,
interneteko
argazki sadikoetan bezala.

Burmuina.
Ohi baino handiagoa.
Klasiko errusiarrak irakurriko zituen.
Historialaria izango zen beharbada.
Auskalo.

Paperez bete dute
burmuinak utzitako hutsunea.
Beharbada hori baino
ez gara izango.
Paperak.
Cervantesen paperak.
Napoleon, Stalin eta Marxek betetako orriak.
Agian hori da heriotza.
Bizi bitartean betetako paperak.
Hori baino ez.

## LABANAZ

Dena moztu dute,
dena xerratu.

Giltzurrun erdibituak.
Arteria moztuak.
Bihotz zatikatua.
Urdaila. Area. Hestegorria.

Dena moztu dute.
Eta izozki kutxen antzekoetan sartu.

Birikak.
Eskuinekoa eta ezkerrekoa.
Labanaz moztu dituzte.
Koaguluak.
Heriotzaren zergatia, azkenean.

Zortziehun euroko *reflex* bat
hartu du medikuak.
Hondartza egunak etorri zaizkit gogora,
familia argazkiak,
mendiko paisaiak.
Ez nekien koaguluak ere,
ilunabarrak bezala,
fotogenikoak zirenik.

## AMAIERA

Hankak ireki dizkiote.
Muskuluak ebaki.
Koaguluak.
*Reflexa*.
Txaloak.

Hanketako odola koagulatu
eta biriketara heldu zaio:
heriotza.

Autoan bizi zelako.
Autoan egiten zuelako lo
hogeita hamaika urteko marokoarrak.

Heriotza usaina
hartu du nire arropak.
Ezin dut gainetik kendu.
Mahaia garbitzen hasi direnean
usain txarra zegoen
(hesteen zulaketa bat).

Hori izango da heriotza.
Hori utziko du bizitzak.
Paperak eta usain txarra.
Egunetan gainetik kentzen ez den horietakoa.

Horregatik itzali behar izaten dut telebista
gudetako irudiak agertzean.
Heriotzaren usaina gogorregia delako.
Nahiz eta inork erreklamatu gabeko gorpua izan.

# Errutina zara

Txaber Ormazabal Villanueva
Gabriel Aresti institutua
Bilbao

Benedetti-ren antonimoa sentitzen naiz
kareharria.
Egia da, ez dut ezer politik
ikusten tximeleta baten.
Non ote dago Campanilla… bere gerizpearen
atzetik… eta ni hemen,
haragia segundoei jaten ematen
bihotzeko orbainetan arrakalak irekiz.
Heriotza gobernuaren publizitatea delakoa,
gezurra.
Eta zilborrari begira paradisua ikus nezake
paradisua baita, bertako giltzak karamelu
bihurtu eta aspaldian usteldu zirenak.
Inork sekula zapalduko ez duen olinpoa
zure bularren parekoa,
auskalo zein jainkoren gotorleku.
Orain inurrien bankete, Dali-k erakutsi ziguna
bere koadroetan, gugan dagoen amua.
Mamua.
Hurkoa maite du pertsonak;
ez duzu zertan erotuta egon
hemen bizitzeko, baina
lagungarria izan daiteke.
Zoriontasunaren aitzindari diren
poetek ere bota zuten garuna

malkoz ezpainetan egin zitzaien putzura.
Orduak ematen ditugulako
mezu baten zain.
Bestela zergatik egongo nintzateke idazten.
-idazteak ez du merezi ez badu inork
irakurtzen. Adierazpena da.
-hitzek lasaitu egiten dute nire gorputza…
-poesia artea da.
Gezurra, ez du inork zertan
irakurri behar. Existitu izan garenaren
froga soilik
utzi nahi dugu paperean. Berben arkitekto,
eta plazerak gurtzen ditugu.
Nonbait beste azalpenik bada, gu
ateo.
Eta zure mezua heldu gabe.
Horren sinpleak diren hitzak esatea
asko kostatzen zaigu;
agur, laster arte.
Sorkuntza oro Babel delako,
lorpen guztiek ezereza izanik bukatzen
dute, pisu gehiago bizkarrentzat.
Eta nik ere errealitatetik ihes
egin nahi izan nuen,
baina beste errealitate bat agertu

zitzaidan, berdin.
Ez naiz libre izateko jaio.
Agian, zu zarelako errealitatea
osatzen duen geometriaren jainko,
eta ametsen teologiaren ardatz.
Orain egun luzeak gura ditut,
besterik ez, batzuetan onak izan
daitezkeen egun luzeak.
Zertarako amestu
errealitatea soilik bururatzen bazaigu.
Denbora historia izozten duen nebera
bada, nik gaur ez dut
egunsentirako iritsi nahi.
Musika kutxa baten barruan bizi
ahalko balitz, zu beti dantzan…
baina ez duzu erantzungo,
gaur irudimenak esan beharko dit
maite zaitut.
Beste gau bat,
beste bi poesia,
bizi hiru egun gutxiago.
Eta esperantza:
komuneko papera,
komunean dagoen
papera.

Badirudi, beti tira eta tira
eta inoiz
bukatuko ez dela.
Ordea, gehien behar
duzunean ez dago.
Nirea agortu da,
orain ez zaitut maite.
Zure erruz tiro egin diot nire barneko
umeari. Baina azken aukera duzu,
komunera joan, bueltatu eta mezua
egon daiteke.
Komunetik behera norberaren
errealitate apurra.
Alferrik dira hitzak ez badu inork
irakurriko… kasu honetan bai.
Ireki da matrioska, haur bakoitzak bera
ama jango duela, eta itxita egon da beti
matrioska, etorkizun antzua.

# Gorritik morera

Mikel Arruabarrena Larrarte
Talaia institutua
Hondarribia

*Errealitatea, ortzadarra bezala, zatitxotan datzalako…*

## Ortzadarra

*Utzi nire maitasunari eguzki-argiak bezala*
*besarka zaitzan, besarkatuta zaituen arren*
*askatasun argitsua emango dizu eta.*
(Rabindranath Tagore)

Ortzadarra ikusi dut gaur,
argi izpi (ezdeus) batean,

zure begi hezeetan islatu eta
gorritik morera deskonposatu denean.

## (Beltz)

*Errealitatea eta egia gure arrazoimenetik kanpo daudelako, beltza ortzadarretik bezala…*

**Zulo beltzak**
Ikusten ez dituzun arren
espazio-denbora kiribiltzen duten zulo beltzak,

gogamenaren ozeanoko zentro bihurtuz
(gainerako pentsamenduak ahanzturara kondenatuz).

**Utopien zingira**

Ez zaitez barneratu,
inork ez du irteterik lortu:

ez ahalegindu argizarizko hegoekin
eguzkira heltzen…

**Lanbroa**

Goiz batez sartu zen,
herria pixkanaka bilduz
lausotasunaren aura horretan.

Eta asteak eta hilabeteak igaro ziren,
apurka ohartuz nindoalarik
hura ez zela nire hizkera,
haiek ez zirela nire kaleak, nire adiskideak.

Goiz batez jakin nuen arte
arrotza besterik ez nintzela.

**Ikara**

Ez dagoelako

ispilu gardenei beldur izatea baino gauza ilunagorik…

## (Zuri)

Zuria,
osotasun ezdeusa.

# 1) Gorri

*Eskarlata,*
*maitasunetik heriotzera.*

### Hodeiak

Goizean iritsi ziren,
arin, zuri;
Gauean joan ziren
geldo, gorri...

### Haur-jolasak

Ez dezagun geure burua engainatu:

ez dago begirada nerabeetan,
paper zirriborratuetan
edota haur jolasetan geratu ziren horiek baino
maitasun ederragorik.

**Zauriak eta orbanak**

Hilabete da soldaduak joan zirela.
Kale kantoietatik ezabatu dira gerlako orban nabarrak.
Leihoetatik kirikan ari diren bihotzetako zauriek erretzen jarraitzen dute…

## 2) Laranja

*Laranjak dira gasolindegiak;*
*Ekialde hurbileko fruituak eta gasolioa bezalakoak.*

**Kapitalismoa**

Supermerkatuan denetarik dago:
txokolate zuritik esne beltzera.

**Energia**

*E=mc2*

(Energia eta masaren arteko erlazioa, **Albert Einstein**)

Badirudi
Eguzkiaren nukleoan urtzen diren
hidrogeno atomoen energia amaigabea erabiltzen jakin arte
lurra zukutzen jarraitu beharko dugula;

odol beltz horren bila.

## 3) Hori

*Edozein bazterretan ezkutatzen diren limoi maltzurrak.*

**Malkoak**
Eztarrian josita geratzen diren
limoi-urezko malko garratzak.

**Amesgaiztoa**
(Urriaren 31, Halloween gaua)
Limoizko ilargiaren argitan,
haur zorabiatuak dantzan,
hazi gabeko zonbiak baliran.

**Edonon**
Basamortu hareatsuetan ez da landarerik hazten;
bertan hildakoei ezin diete lorerik eraman.

Nola hazten dira bada limoiak?

**Unibertso paraleloa**
Egongo ote da limoirik gabeko unibertso paralelorik?

## 4) Berde

*Orlegiak,*
*amazonia, plutonioa.*

**Behinola**

Behinola,
ez zegoen merkatalgunerik hirian;
nekazarien baratzeek estaltzen zuten orube hori.

Behinola,
ez zegoen errepiderik hirian;
harri koskorrezko bidexka bat besterik ez.

Eta ahateak (desagerturiko) errekatxoan dantzatzen ziren,
ilargiaren argitan,
behinola…

**Perretxiko erradioaktiboak**

Orain badakit ez dela kanpoko itxuraz bakarrik fidatu behar;
begira amanita eder bezain hilgarriak eta
ezer baino berdeago diren hondakin nuklearrak.

**Aldaketa klimatikoa**

> *Ez dakit zer arma erabiliko diren 3. mundu gerran, baina ziur nago 4. mundu gerran makila eta harriak erabiliko direla.* (Albert Einstein)

Bost axola aldaketa klimatikoa:
guztiok dakigu bonba atomikoen melodian erreko dela mundua.

## 5) Urdin

*Eta zeru garbira begiratu,*
*irudimenean zamalkatuz…*

**Zama**

Batzuetan, ustekabean,
harrapatzen nau;

oroitzapen eta istorio zaharrek biltzen nautenean,
itzuliko ez naizen leku haietaz gogoratzean,
egingo ez ditudan gauza horietan pentsatzean…

**Asintota**

Infinitura doan asintota bezala

egin nahi dut ihes:

(gelditu gabe)
denborak harrapa ez nazan,
nire ametsak izotz ez daitezen.

**Isla**
Gustuko dut putzuetan begiratzea,
eta gainbeheran dagoen mundu hau alderantziz ikustea

(konponduko den esperantzaz edo)…

## 6) More

*Askotan, argia itzaltzean hasten garelako ikusten.*

**Haratago**
Heldu eskutik, begiraidazu begietara:
uhar horietan zehar ikusi nahi dut,
egia eta gezurretik haratago.

**Arrazoiaren kosmos-kaosa**
*Ezer ez dakidala bakarra dakit.* (Sokrates)
Lurra ez da laua, eta mugitzen da.

Zerua ez da ez zeru eta ezta urdin ere…

**Kutsadura luminikoa**

*Caesar non est supra grammaticos*. (Kant)

Eta zer
(garapenaren) noranzko bakarreko zuzena
zalantzan jarriko bagenu?
(Gure aitonak izarrak ikusten zituen
farolezko lorategi honetatik)

Eta
ongia, gaizkia eta balore (inposatu) oro
ezabatuko bagenitu;
izango ote zen orduan kutsadura luminikorik?

**Herioaren dantza**

Ez dagoelako yang-ik gabeko ying-ik,
gorrotorik gabeko maitasunik,
edota etsairik ez duen izakirik;
Funtsean,
herioaren dantza antagoniko oro bizitzaren dantza ere badelako.

**Loa**

> *Eta amaieran ohartzea guztia amets bat besterik ez dela (izan)…*

Gaur
amets galduen lurraldean esnatu naiz,
bakarrik,
haur inuzentez inguratuta.
Eta haiekin jolastu naiz,
lasai,
denboraren haria askatuta.

Gaur ezerezaren lurraldean esnatu naiz,
aske, bizi,
irudimenaren ozeanoko
ur moreetan murgilduz.
Baina azkenean abstrakzioaren erresumatik irten naiz,
bakean,
izara artetik mundura jauzi eginaz.

# Gogoeten susmoak, taupadak

Itziar Ugarte Irizar
Txantxiku ikastola
Oñati

*Gogoetari susmoa dario*
*Susmoari taupada dario.*

*Bizitzari dario taupada.*

*****

**G**ogoan dut ilargiari begiratzen genionean.
Itsaso beltzean uberak argiztatzen dituen itsasargia bailitzan.

Baina elkarren babesa labaindu zitzaigunetik,
zeru urdinean ilargiaren arrastoak
batera gozatutako ke izoztua dirudi.

**E**ta susmoa dut,
ez dela ezinbestekoa,
neguaren harrokeria udaberriarekin apaltzea.

Ez dela ezinbestekoa,
udaberria udaren gonapean ezkutatzea (lotsatzea).

Ez dela ezinbestekoa,
udako birek udazken jirak laztantzea.

Ez dela ezinbestekoa,
udazkena neguaren aginduz biluztea.

Ez litzatekeela ezinbestekoa izango,
bizitzak
apaltzea,
ezkutatzea,
(lotsatzea),
laztantzea,
biluztea
izango ez balu nahitaezko;
urtaroen atsedenaren jarraipen.

***

Gogoan dut nola ikusi nituen aita-semeak;
[ والد وابنه ].
Argituz doan egunaren ausardiaz,
kaosetik aldendutakoa zuen semea.

Bi eskuekin heltzen zuela geltokiaren hegitik ,
harrizko maila zulatuaren gainean eutsiz;
nola behatz bihurriak hesian
hala jakin-nahiaz egarritutako begiak
trenbide bitan kateaturik.

Lo orduetan ametsek zabaltzen duten hotzikaran,
jaioterritik mututua datorren ilargi beraren estalkian,
hemendik harakoak zein handik honakoak
asaldatzeko gai den,
lekuz kanpo sentitzetik askatuko ez dien
haizearen gordinean.

Dinar gutxi batzuk,
indar andana
aurrez aurreztuta,
egun euritsuetako badaezpadetan.

Hamaika herrikiderekin banatutako pisuan
Semeak nola margotzen zuen ikara orri zurian;
zer den ezer eta zer edozer.
Zer babes eta zer ihes.

Eta sumatzen denean bihotza uzkurtzen,
hatsa kiskaltzen,
hari guztiak estutzen,
periferia desagertzen
arima birrintzen,

saihesbide bila hasten garela
min ulertezinen kolpetan gidaturik.

Akordatu ezin garenean hotz zuriaz,
behin hola jasotako babesaz,
hegan egitearen libertateaz,
maitearen algarari miretsitako keinuaz,

saihesbide bila hasten garela
zentzurik gabeko joan-etorri galduan.

Malkoak nahiko ez direnean sendatzeko
jaso zein emandako bultzadak,
erru gordinaren debekuak,
komenentziaren estalkiak,

saihesbide bila hasten garela
ezagutzen ez dugun eskutik heldurik.

***

**G**ogoan ditut
kiosko osteko lur abailduak koloreztatzen genituen arratsak.

Euria garrasika hastean,
putzu berdeak eta putzu moreak
luzatzen zirela gure oinetan,

orain malko etsiek bihotzean uzten diguten putzuen gisan.

Hortzik gabeko irribarreetan
nola laztantzen genuen ume-denbora.

**E**ta susmoa badatorkit segidan,
egun lore errebeldeenen usainarekin
inguratzen natzaizunean,
zilborraren leuntasuna miazkatzean,
poliki,
denboraren arnasa suspertzeko gauza garela.

Denboraren taupada mesfidatiak,
itolarriaren amu diren gogoeta eta susmoen uretan,
gure matxinada mingarria ulertzen dutela.

# Zoramena ez bada

Eider Perez Martinez
Sto. Tomas lizeoa
Donostia

Arrats ilun batean
dena aterturik,
neguak edenduta
matrailak hozturik.
Orduko azken trena
jada irten delarik,
itxoiten nago ea
datorren besterik.

Aterki bustiaren
tantak dira isuri,
haizea arerio
leihoak urduri.
Geltokiko argiak
gerizpean nagusi,
bakardadeak preso
naukala dirudi.

Artega begietan
buru, barne nahasi
zeruan aise dira
izarrak ageri.
Ilargi betea dut
gaurkoan zaindari
ezer gerta ez dadin
dabil zelatari.

Tupustean itzal bat
igaro delarik
pausoak entzun ditut
pareko nasatik.
Bertso bat entzuten dut
gauaren hutsetik
ez dut ezer ikusten
hitzak izan ezik.

Ozen ari da abesten
nahiko izan balu
niretzako abestu
baina dago mutu.
Hots goxo-goxoz dabil
kantan mila doinu
erantzungo nioke
ulertuko banu.

Paisaia lausotuta
gurmaren artean
orratzak atzeraka
erloju zaharrean.
Bertsoa oraindaino
isildu gabean,
ja ilargirik ez da
zeru ilunean.

Zoramena ez bada,
zer ote bestela?
Orduan argi batek
ernatu nauela
aise konturatu naiz
trenean nago_ela:
eta nire helmuga
ja atzean dela.

Ametsetan murgilduz
denbora da galdu.
Errealitatean
ametsak zoratu.
Nahasten dira gerora
denbora ta kontu.
Beraz egia ahaztu
ta amets bihurtu.

**Doinua**: “Txakurraren partia”
Txomin Artola

# Harriko harritxu

Maite Santiago Garabieta
Gernika institutua
Gernika-Lumo

## NIREGAN

Nire eskuetan dago.
Nire eskuetan dago izatea.
Zer izan behar dut?
Nire eskuetan dago izatea.
Zer espero dute nitaz?
Nire eskuetan dago esperantza.
Zer bide aukeratu behar dut?
Nire eskuetan dago aukera.
Zer gora-behera jasango ditut?
Nire eskuetan dago jasatea.

Nirea da erabakia,
eta nireak dira eskuok.
Hala ere,
guztiok bezala,
norbait izan nahian
helduko naiz
ni ere,
noizbait
izar bakar,
propio
eta batez ere
apartekoa izatera.

## IZATERA

Nor izatera?
Ni naiz.
Zeu zara.
Hura da.
Eta gu gizartea gara.
Gu globalizatuta gaude.
Gu kutsatuta gaude.
Gure arazoa dugu,
gure buruhaustea da.
Jira-biraka darabilt burua
eta ez zait konponbidea
hurbiltzen barrura.

## BARRURA

Barrurantz begiratzen dut,
noizean behin behintzat.
Zer aurkitzen dut?
Nire bihotza.
Betiko metafora merkeek inguratzen dute kanpoa,
hala ere,
inoizko preziatuena dago barruan.

## PREZIATUENA

Familia dut urrerik gorriena.
Lagunak ditut zilartzat.
Gainerako guztia dut brontzea.

Ez dut ezer falta,
ez dut ezer soberan.
Baina horregatik,
konpartituko dut
nirea dena.

Esku zabala naiz,
guztiok elkar hartzearen aldekoa.
Bihotz nimiñoa daukat,
baina barruan,
inoiz ikusi gabeko
korapilo sendoena gordetzen duena.

## GORDETZEN DU

Gordeta dauzkat ametsak.
Nire baitan ditut gogoak.
Atera beharrekoak ditut ahaleginak,
gaurko elurtearen erdian.
Hizkuntza dut lurzoru,

lurzoru elurtua.
Laprast egin dezaket gaur,
baina ez bihar.
Horregatik ausartu behar dut orain,
euskaraz hitz egitera.
Oraindik harritzar dena,
harri pusketa galaraziz bihurtzera.

## HARRIPUSKETA

Kostako haitz
haitzeko harri,
harriko harritxu.
Norbaitek zure begi ederrak ikusiko balitu.

Olatuek jo dute
goizean gogor
zeru urrunean.

Zuri itxaroten nengoen
egunaren azkenean,
ea agertuko zinatekeen
nire ondoan bat-batean.

Agertu ezean nengoke ni triste,
nire harkaitza litzateke erori,
eta bihotza zeniezadake txikitu.

Kostako haitz
haitzeko harri,
harriko harritxu,
norbaitek nik bezala maiteko bazintu.

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Hozkada

Maialen Akizu Bidegain
J. M. Iparragirre institutua
Urretxu

1- Atzazalari kosk egin diot
luzeegia zegoen jada,
itsusitua
eta hozkada bakarrean
moztea erabaki dut.
Gurea moztu nuen bezala.
Zuk ere bazenekien
egun bakoitza luzatu ahala
itsusitzen ari zela.
Konturatu gabe
gehiegi moztu nuen,
berriz hitzik ez nizula egingo oihukatu nizun
koskada bakarrean.
Orain lehen baino itsusiago gelditu da
eta min ematen dit.
Atzazalaz ari naiz.

2- Bigarren atzazala
jan egin dut.
Jan,
jan ditudan hitz guztiekin batera.
Badakit
zin egin nizula
zu maite zintudala eta
ez nuela kosk gehiago egingo.

Agian ez zara
ohartu ere egingo
beste atzazal bat gehiago jan dudanik.
Eskuei begiratuta soilik
ohartzen naiz ni ere.

3- Kosk, kosk, kosk,
atzazalari.
Behin, birritan, hirutan.
Bankuari egin nion bezala.
Behin, birritan, hirutan.
Bere gogortasun maila
baldintzan jarriz.
Zenbateraino hel zitekeen
jolastuz.
Eta gabe geratu naiz.
Hirugarren atzazalik gabe.

4- Azkazalei hozkaka
laugarrena heldu zen.
Neska dotorea, fina, garbia
eta horri ere
kosk.
Erraza egiten zitzaidan
kolpetik hozkatu

eta listuaren laguntzaz
lurrera kanporatzea
azkazala
beste bat gehiago bailitzan.
Baina
ezin izan nuen
azkazala hortz artean estekatu baitzitzaidan.
Saiatu nintzen
begirada sarkor hura ahazten
bere presentziarik ez sumatzen
mingaina hortz artean nenbilkiela.
Azkazal zati bat
soilik zen
beste azkazal zati bat gehiago.
Baina estekatuta jarraitzen du.

5- Bosgarren hatza
behatz txikia
aspaldi geratu zen
maitasunik gabe,
atzazalik gabe.
Eta ordutik ez diot
garrantzirik eman.
Baina gaur
begira gelditu natzaio,

bera niri begira zegoen bezala.
Bere begi urdin horiekin.
Eta aspaldian ahaztua izan arren,
berarekin igarotako
momentu oro oroitu dut.
Koska egiten ausartu naiz,
natzaizu.
Haragia berriro ere minduta gelditu zait.
Eta garbi gelditu
ez dagoela hozka egiterik ezer ez dagoenean,
maitasuna, atzazala aspaldi galdu zuenean.

6- Gogoan dut atzazala
txukun moztu genuen hura.
Guraize argiez:
hitz eginez.
Nik hemendik
zuk hortik
elkar lotzen gintuena
elkarrekin askatuz.
Dotore gelditu zait, zaigu
borobildua, garbia, atzazala.
Dotorea, baina moztua.

7- Zazpigarrena zikindua nuen,
ni ere zikindua nengoelako
zegoen atzazala zikindua.
Beltza.
Kanpotik ikus zitekeen
zikinkeria haragiraino
sartzen ari zela.
Atzazalaren
gardentasun ezak
salatzen ninduen.
Garbitzen saiatu arren
berriro zikintzen nintzen.
Hargatik erabaki nuen
moztea,
guraize zorrotzenekin
indartsu
moztea.
Txukun geratu zait,
usain salatzailearekin
eta moztuta.

8- Indartsu heldu nahi nion
atzazalari,
indartsu heldu nahi nizun
nire bihurtu.

Baina konturatu gabe
mingainari egin diot hozka
zuri egin beharrean.
Eta hala geratu naiz
beste behin ere zuri begira
isilik.
Ez hitzik ez dudalako
konturatu gabe egindakoek
mingainean min handiagoa ematen dutelako.

9- Bederatzigarren atzazalak ere
patu bera izan zuen.
Puskatzen hasia zegoen
alde batetik behintzat
eta traba egiten zidan
inguruko hari guztiekin kateatzeko gai baitzen.
Koskada bakarrean
mespretxuz
lurrera botatzea deliberatu nuen.
Azkazalarengandik erraz libratu nintzen.
Ez zaizkit gauza errazak gustatzen.

10- Hamargarrena
irentsi egin nuen.
Pentsatu gabe irentsi.

Gure osaba joan zen bezala
azkazalak ere
heriotza azkarra izan zuen.
Kimioaren ordez
nire hozkada urduriak jasan beharrak izan zituen ordea.
Baina irentsia  dut,
eta kalte egin dit,
ez hestean edo urdailean.
Ez.
Eskolan erakutsi ez arren
badakit azkazalek ez dutela digestio ohikoa egiten
hauek bihotzera joaten dira zuzenean.
Eta minduta daukat
azkazalagatik
bihotza.

Atzazalik gabe geratu naiz.
Eta damutu egin naiz,
errudun sentitu.
Azkazalak ordea berriro ere haziko zaizkit
eta berriro ere kosk egingo diet.
Zergatik jartzen dizkigute tentazioak eskuen artean?

# Espaloian noraezean

Maialen Akizu Bidegain
J. M. Iparragirre institutua
Urretxu

Badoa.
Ohiko ibilera narrasez atera etxetik
eta badoa.

Espaloiak zenbat zikinkeria dituen harritu da.
Denak zapaltzen ditu leunki;
arratsalde aspertuetako pipa azalak,
tabernan erre ezin zen zigarroaren errauskinak,
amorruz klaskatu dituzten txikle beltzak.
Denak leun pasatzen ditu zapatapearekin,
beraien itsaskortasun maila probatu nahirik,
inbidiaz.
Bere antza dute.
Zikinak, zapalduak, beltzak.
Berak ere nahiago luke lurrean itsatsirik balego
eta ez gizartearen zapatapean
pauso bakoitzean
gainean duen pisu astuna jasaten duelarik.

Eskuak poltsikoan sartu ditu,
atzoko azken kanutoaren soberakinak nabari ditzake.
Atzamarrek gustuko dute,
ezagun dute ukitu berezia
eta elkar laztantzen hasi dira.
Gustuko du,

eta zeri itsatsia dagoen gogorazi dio.

Pauso narrasez segi du aurrera.

Amona bat gurutzatu da.
Ez du agurtu.
Eskuak poltsikoan ditu
eta ez du atzamarren, bere, gozamena gelditu nahi.

Noraezean darrai lurrera begira.
Espaloiak ez du horrenbeste zikinkeria.

------

Gazteak ez dio begiratu ere egin.

Jada ez dio inork begiratzen,
ez behintzat Joxek zuen begiradarekin.

Goizetan noraezean dabilen gizona
behe-laino artean galtzen den bezala
Joxek ere espaloian aurrera egin zuen,
desagertzeraino.

Gaur ere berarekin paseatzeko gelditu da Karmen.

Ttirri-ttarra.
Gora begiratuz.
Haizeak xuxurla gozo bat ekarri dio bere baitan.
Belarrian kili-kili bat nabaritzeraino.
Hizketan hasi zaio;
herriko obrak, atzoko hamaiketakoa, Martin hil dela,
ez da isiltzen.

Gora begiratu du.
Joxek bere eskua eskaini dio
eta Karmenek onartu
ondo baitaki eskutik helduta paseatzea errazagoa dela.
Ttirri-ttarra.

Gora begiratuz segitu du.
*"Koska bat duzu aurrean.*
*Kontuz amona, begiratu espaloian non zapaltzen duzun".*
harrituta gelditu da ezezagunaren esanarekin.
Zer espaloi? Zer bide?
Zerua du oinpean.

------

Koska askorekin estropezu egin du,
hargatik abisatu dio amonari

eskuan gosaritarako kafea
pajita batez zurrupatzen duelarik.
Beroegia.
Mingaina erre du,
ohitua dago.
Azken aldian dezentetan erre du mingaina
irensten duenaren tenperatura nabaritzea kosta egiten zaio.
Hartu eta barrura sartu,
besterik ez du buruan.

Ondorengo mitina errepasatzen dabil
gorbata, anoraka eta zapara txukunei begiratzen dielarik.
Hitzordu garrantzitsua dute,
berea egitea du helburu.
Berea eta berea.

Ezin du Ana burutik kendu.
Bera ere behin hartu zuen
barrura sartu eta beste trago bat bailitzan uztekotan.
Baina orduan ere erre egin zen.
Ez zitzaion mingaina erre.
Bera erre zen.
Eta erreta segitzen du.
Bera eta bera.

Bidean aurrera doa,
baina beste aldera pasa beharrean da.
Espaloi batetik bestera pasatzeko
zebrabidean ondo begiratu behar dela erakutsi diote.
Batzuk zain
besteak pasa.
Besteak zain
batzuk pasa.
Horrela funtzionatzen ei dugu.
Autoak bata bestearen segidan dabiltza.
Errepidea gurutzatu du
pentsatu ere egin gabe.
Auto batek egundoko geldialdia egin beharra izan du.
Bozina hotsak belarrian min egin dio.
Baina nahi zuen espaloian aurrera doa.
Munduaren zain
ez zaio kaferik hoztuko.

------

"Gizon horrek zebrabidea gurutzatu gabe pasa du.
Ba, amatxok dio hori oso gaizki dagoela"

Gero etxeratzean kontatuko dio amatxori
nola ezezagun batek arauak hautsi dituen

zebrabidea begiratu gabe pasa duen.

Berak jolasean segi du.

Espaloiko baldosen marrak zapaltzea
debekatu dio
bere buruari.
Hori da jolasak duen arau bakarra.
Hanka puntetan,
pauso txikiak emanez
adi.
Errazegia da.
Zapaltzen duen harlauza
zapaltzen duela
handiegia da
bere oin txikientzat.
Hargatik egiten zaio dena erraza.

Arau berria jarri dio
bere buruari.
Baldosa beltzak soilik zapaldu ahalko ditu
bestela eliminatua.
Saltoka hasi da
koloredun laukitxoak saihestuz.
Hanka motzekin kosta egiten da ordea jauzi luzeak

ematea.

Horregatik egin du umeak dena
pausuz pausu,
hanka motzak dituelako.

Erritmoa bizkortzen hasi da
eta eskolan ikasi berri duten kantu bat abesten.
Erronka asko
marra gehiago.
Ez ba!
Marra zapaldu du.
Ingurura begiratu du ea norbait begira duen.
Inork ez du ikusi.
Ez dago eliminatua.

---

Bera ere,
aspaldian ez dela espaloiko marrak zapaltzera jolastu oroitu da.
Ez daki zergatik.
Salto egiten ez zaio ahaztu,
baldosak ez dira txikitu.

# URRUZUNOTARRAK
# 1986-2012

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Aboitiz Correa | Xabier | Ikaro | 2010 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Ohore Galdua | 1998 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Burua tente mutilak! | 1999 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Maite duen orok... | 2000 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Gorrotoaren mendekua | 2000 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | La dolce vendetta | 2001 | Prosa |
| Agirre Arriolabengoa | Manex | Aitona | 1997 | Prosa |
| Agirre Elgarresta | Martin | Idazmakina bakarti baten azken narrazioa | 1986 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Pausoak | 2006 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Ikararen korridorean gaindi | 2007 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Agian | 2007 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Insomnio gauetan idatzitako zirriborroa | 2007 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Hiru segundo eta erdi | 2007 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Azkeneko bidaian | 2008 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Denbora zer den | 2008 | Poesia |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Zenbakaitzaren mugagabetasuna | 2006 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Gatibu | 2007 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Zeruertzaren bila | 2008 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Tximeleten jolasa | 2008 | Poesia |
| Agirre Larrea | Antziñe | Irrati baten gora-beherak | 1986 | Prosa |
| Agirre Lazkanoiturburu | Mikel | Zergatik? | 1989 | Poesia |
| Agirre Madariaga | Uxue | Oroitzapenen ziega | 2010 | Prosa |
| Agirre Mosquera | Uxue | Espero ez nuena | 2010 | Poesia |
| Agirre Zapirain | Ugaitz | Malkoz josiriko bandera | 2008 | Poesia |
| Agirre Zapirain | Ugaitz | Erokerian | 2009 | Poesia |
| Aizpiolea Martikorena | Maialen | Azken orbela | 1997 | Prosa |
| Aizpuru Segurola | Kristina | Isiltasunaren oihartzuna | 1999 | Prosa |
| Akizu Bidegain | Maialen | Blas | 2011 | Prosa |
| Akizu Bidegain | Maialen | Ipuin batean bezala | 2011 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Hozkada | 2012 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Espaloian noraezean | 2012 | Poesia |
| Alberdi Estibaritz | Antton | Ez dut ezer ulertzen | 2002 | Prosa |
| Aldabaldetreku Etxeberria | Gotzon | Itzultzerik gabeko bidaia | 1993 | Prosa |
| Alduntzin Egizurain | Unai | Morte nel carnavale | 2008 | Prosa |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Alduntzin Egizurain | Unai | Izango al du udaberririk negu honek? | 2009 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Azken dantza hau | 2011 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Autopsia | 2012 | Poesia |
| Alonso Allue | Leire | Alzheimerraren doinua | 2012 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Jainkoaren izenean | 2011 | Poesia |
| Altuna Angiozar | Nekane | Niregandik urrun | 1987 | Poesia |
| Altuna Angiozar | Nekane | Baldin argia ikustera iristen banaiz | 1988 | Poesia |
| Altuna Jauregi | Karmele | Praisku mutil zaharra | 1986 | Poesia |
| Altuna Jauregi | Nuria | Bizitza horrela delako | 1987 | Prosa |
| Alvarez Gerriko | Ion | Betidanik, betirako | 1990 | Poesia |
| Alzate Azpiroz | Jon | Zozketagai xelebrea | 1992 | Prosa |
| Alzugarai Sacristán | Aitziber | Zergatik? | 1988 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Gaizka | Margotu ninduten | 1999 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Gaizka | Urtaroen klandestinitatean, zu | 2000 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Nagore | Gogoratzen haiz | 1995 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Nagore | Malekoitik so | 1997 | Poesia |
| Amozarrain Mendizabal | Idurre | Pentsamenduak | 1995 | Poesia |
| Ansa Arbelaitz | Garazi | Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute | 2005 | Prosa |
| Ansa Arbelaitz | Garazi | Oraina iraganean ahazturik | 2005 | Poesia |
| Anzizar Lizarraga | Nerea | Blues bat gauaren iluntasunean | 1997 | Prosa |
| Apaolaza Goena | Amaia | Amaigabeko itukin latzak | 1992 | Prosa |
| Apaolaza Goena | Amaia | Zaharra berri... orain eta beti | 1993 | Prosa |
| Apaolaza Larrea | Uxue | Azken bost minutuak | 1996 | Prosa |
| Aranburu Aseginolaza | Iñigo | Sahatsaren azken negarra | 1987 | Prosa |
| Aranburu Aseginolaza | Maria | Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari | 1990 | Poesia |
| Aranburu Guridi | Mattin | Gau luzea | 2012 | Prosa |
| Aranburu Zeziaga | Xabier | Hiriaren ostadarra | 1989 | Poesia |
| Aranguren Juaristi | Olatz | Aztiaren eskuetan... | 1996 | Poesia |
| Aranguren Mujika | Josune | Ni ez naiz Amaia | 1997 | Prosa |
| Aranguren Oiharzabal | Ainhoa | Gauaren atseden isila | 1989 | Poesia |
| Aranzeta Zubeldia | Amaia | Iraultza | 2003 | Poesia |
| Arbelaitz Lekuona | Usua | Helmugara iristea, hori da kontua | 2000 | Prosa |
| Arbelaitz Sarasola | Olaia | Hantxe lokartu nintzen | 2003 | Prosa |
| Arenas Belamendia | Leire | Borobilean amaitzen diren istorioak: Narziso | 2011 | Poesia |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Ares Amaia | Nagore | Urdinez tindaturiko hitzak | 2007 | Poesia |
| Aristizabal Tolosa | Ekiñe | Pairatzeak ikaratu ala ikara pairatu? | 2003 | Poesia |
| Arozena Velez | Maite | Aita, zer gertatzen zaio munduari? | 2001 | Prosa |
| Arratibel Galartza | Enara | Begi diztiratsuak | 1995 | Prosa |
| Arregi Elosua | Ainhoa | Konfidantzaren ordaina | 1988 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Alots | Puntu ta komak garagardo aparretan | 2003 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Alots | Paperezko hegazkinak biribil ezabatuan | 2003 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Belaunpe konprimituetako autobus geltokiak | 2003 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Hegoak ebaki banizkion zeruari, ez zen urdina izango | 2003 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Gaur, berandu sartu zait beltza hartzeko gogoa | 2004 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Alots | Gasolinategirik baldin bada | 2004 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Alots | Tximeleta zuriak kutxa gardenetan asfixiatzen dira | 2005 | Prosa |
| Arregi Izagirre | Odei | Itsasoaren besoetan | 1999 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Amets gaiztoetatik ihesi | 1999 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Sentimentuetan galdurik | 2000 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Aingeruen negarra | 2000 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Argi amatatuetan itzal bat | 2001 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Bizitzaren drogak | 2001 | Poesia |
| Arregi Izagirre | Odei | Sagar bihotzak sagar begietan | 2002 | Poesia |
| Arregi Lopez | Ane | Zuk uste ametsak bete daitezkeela? | 2002 | Prosa |
| Arrese Iturbe | Olaia | Maitemintzearen gaztigua | 1993 | Poesia |
| Arriolabengoa Bengoa | Nagore | Hesiak gainditzen | 2001 | Poesia |
| Arrizabalaga Linaza | Mirari | Zereko zera zertzeko | 1986 | Poesia |
| Arruabarrena Larrarte | Mikel | Gorritik morera | 2012 | Poesia |
| Arruebarrena Lizarralde | Miren Gurutze | Iluntasuna | 1994 | Poesia |
| Arruti Arruti | Iñaki | Amaierarik gabeko gutuna | 2001 | Prosa |
| Arruti Arruti | Iñaki | Balbea errekak bere bidea darrai | 2001 | Prosa |
| Arruti Errazkin | Idoia | Ametsen Bakardadean | 1998 | Prosa |
| Arruza Elgezabal | Amaia | Naturaren legea | 1988 | Prosa |
| Artetxe Arrien | Ainara | Isilpean bego Anttonen itxura | 1988 | Prosa |
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Etorkizun beltzaren islada | 2007 | Poesia |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Itsasoaren magalean | 2008 | Poesia |
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Itzal ilunaren beldur | 2009 | Poesia |
| Artetxe Maiztegi | Maialen | Ispiluaren aurrean | 2010 | Poesia |
| Artola Iriondo | Mikel | Nagusia eta hirurok | 1992 | Prosa |
| Artola San Miguel | Asier | Infernuaren mugetatik | 2005 | Prosa |
| Artola San Miguel | Asier | Amorioen bazca | 2006 | Prosa |
| Artolazabal Amilleta | Amaia | Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago | 1996 | Poesia |
| Artolazabal Amilleta | Amaia | Iluntasunean lorea zimeltzen den lez | 1997 | Poesia |
| Artolazabal Amilleta | Amaia | Denborak ez du astirik | 1997 | Poesia |
| Asurabarrena Bidegain | Eñaut | 12 puntu | 2007 | Prosa |
| Asurabarrena Zipitria | Lierni | Aitonaren heriotza | 1996 | Poesia |
| Atucha Zarakova | Anastasia Ainhoa | Gizakiok aska gaitezen! | 2009 | Prosa |
| Atxabal Arrasate | Ainhoa | Bihotzak lau atal… lau poema? | 2007 | Poesia |
| Atxabal Arrasate | Ainhoa | Harearik gabeko itsasoa | 2009 | Poesia |
| Atxutegi Sarrionandia | Alvaro | M | 2005 | Prosa |
| Atxutegi Sarrionandia | Juan | Idazle izan nahi dutenei | 2003 | Prosa |
| Atxutegi Sarrionandia | Juan | Gutun guztiak karteroak jan dituelako | 2005 | Poesia |
| Atxutegi Sarrionandia | Juan | Mentre dorme la Cittá | 2005 | Prosa |
| Atxutegi Sarrionandia | Juan | Herdoildutako izkinek ez dute sentipenik | 2004 | Prosa |
| Aurrekoetxea Arkotxa | Igor | 0 14 | 1991 | Poesia |
| Aurrekoetxea Arkotxa | Iñaki | Merezi al du paradisuak? | 1987 | Poesia |
| Aurrekoetxea Arkotxa | Leire | Zure zain | 1996 | Poesia |
| Auzmendi Agirre | Agurtzane | Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du | 1990 | Poesia |
| Ayllon Corral | Mikel | Jaiotza bat | 1996 | Poesia |
| Ayllon Corral | Mikel | Garaiak | 1996 | Poesia |
| Ayllon Corral | Mikel | Desgaraiko olerki zentzugabe solteak | 1996 | Poesia |
| Ayllon Corral | Mikel | Zer dakarkit errekako urak zure negar malkoak ez badira? | 1997 | Poesia |
| Ayllón Corral | Mikel | Zure xerka | 1995 | Poesia |
| Azipiolea Martikorena | Maialen | Zerua negarrez denean | 1999 | Prosa |
| Azkarate Egaña | Belen | Amona, egia ote? | 1990 | Prosa |
| Azkue Ibarbia | Xabier | Azken hitzak | 1987 | Poesia |
| Azpiroz Iragorri | Izar | Poema bat momentuari | 2006 | Poesia |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Azpiroz Iragorri | Izar | Zenbat min | 2006 | Poesia |
| Azpiroz Iragorri | Olaia | Udazkenean jausten diren orbel sikatuak | 2008 | Poesia |
| Aztiria Etxeberria | Nekane | Lamintxo | 1986 | Prosa |
| Azurmendi Lasa | Ane | Zaharrak berri | 2000 | Prosa |
| Babiano Lpz de Sabando | Mikel | Oroitzapenak | 2001 | Prosa |
| Badiola Ostolaiz | Ane | Mugagabearen mugetasun irreala | 2005 | Prosa |
| Badiola Ostolaiz | Ane | Koloreen melodiapean galdurik, bizitzaren elbarritasunari so | 2005 | Poesia |
| Badiola Ostolaiz | Ane | Mugarriaren mugak zazpi zapi ditu | 2006 | Poesia |
| Badiola Ostolaiz | Ane | Eta gaur ere atzo | 2007 | Prosa |
| Badiola Ostolaiz | Ane | Komunetik behera | 2007 | Prosa |
| Badiola Prieto | Joseba | Mugaz bestalde | 2006 | Prosa |
| Barbadillo Silva | Ana | Mundu deskafeinatua | 2010 | Prosa |
| Barbantxo Galdos | Iñigo | Soinu izoztuak | 1999 | Poesia |
| Baroja Arrue | Miguel Mª | Apokalipsis 1913 | 1994 | Prosa |
| Basterra Fernandez | Ainhoa | Bihotzeko kontraesanak | 1986 | Prosa |
| Bastida Loinaz | Ana Isabel | Igande gau batetako eztabaida imaginarioa | 1987 | Prosa |
| Baztarrika Otegi | Unai | Etenaren trilogia | 2000 | Poesia |
| Bedoya Valencia | Cristian | Nik bainila dut gustuko | 2006 | Prosa |
| Beloki Lizarralde | Leire | Itsasoaren menpean | 1994 | Poesia |
| Beloki Lizarralde | Leire | Amodioaren desterruan | 1995 | Poesia |
| Benavides Otsoa-Aizpurua | Jokin | Oroitzapenen garra | 2002 | Prosa |
| Bengoa Santxo | Mikeldi | Zu eta ni (hiria medio) | 1988 | Poesia |
| Bengoetxea Otegi | Idoia | Hiriaren taupadaz | 2007 | Poesia |
| Benito Aranberri | Jon | Etorkizunaren lurraldean | 1997 | Poesia |
| Benito Aranberri | Jon | Atzera begira | 1997 | Poesia |
| Benito Aranberri | Jon | Zure gorputzaren abenidetan galduriko azken intifada | 1997 | Poesia |
| Benito Aranberri | Jon | Amaraun Anonimoetan | 1998 | Poesia |
| Beobide Azpeitia | Begoña | Abestiaren argia | 1989 | Poesia |
| Beramendi Britt | Miren | Mundua | 2002 | Poesia |
| Beramendi Britt | Miren | Ezinaren malkoa edo ezjakintasunaren negarra? | 2003 | Poesia |
| Berasaluze Ostolaza | Garikoitz | Amodioaren itsasoa | 1990 | Poesia |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Berasaluze Ostolaza | Garikoitz | Auñamenditik zure leihora | 1990 | Poesia |
